# MUNITIBAR

## ARBATZEGI - GERRIKAITZ

AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN
1992

**BIZKAIKO ALDUNDIAREN LAGUNTZAGAZ**

Augustin Zubikarai
Legezko gordetza: BI-1348-92
I.S.B.N.: 84-604-3270-X
Irarkola: Flash Composition, S.A.
Argazkiak: Juan Fernandez Egiguren.
Azala: José María Muñoz.

# MUNITIBAR

## ARBATZEGI - GERRIKAITZ

AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN
1992



Auleztia
Totorika
Berreño-Aldaka
Munitibar
MUNITIBAR
GERRIKAITZ
Gerrik
Gerrikaitz
zenarruza

GERRIKAITZ AUZOA 1,709 BARRIO DE GERRIKAITZ

URIOXA AUZUNEA
1.-URIOXA GOENA (Gunengo)
2. URIONA ORMAETXEA (Ormetxe) 1372 Casa censuaria del M. de S.Vicente P. a la V. de G.
3.
4. URIOXA-ETXEBARRIA, 1372 Casa censuaria del M. de S.Vicente. Pert. a la V. de G.
5.-URIONA BARRENETXEA
6.

SAN MIKEL (en Garro) AUZUNEA
.-OLAETXEA, no existe. P. a la V. de Gerrikaitz.
1.
2.-OTAOLEA, 1372 Casa del M. de S.Vicente, P. a la V. de G.
3.-
4.-
5.-
.-GARRO. Casa solariega, existía en 1557.
6.-

SAN MIGEL AUZUNEA
1.-MENDIOLEA (Gollkoa)
2.
3.
4.-GOIKOLEA (C.S.)
5.
6.
7.-
8. ARRAIZEGI
9.-ALTAMIRA (abandonada)
10. AGORRIA DE ARRAIZEGI
11. ARRAIZEGI POZUETA (Egurreta) Derruida
12. SAN MIKEL, ermita


KISETA

KALZADA AUZUNEA
1.-
2.-
3.
4.
5.-
6.
7.-URTIAGA (Urtia) Pert. a la V. de Gerrikaitz
8.

GARAI AUZUNEA
1.-
2.-
3.-
.-ZUBERUETA, 1300 Antiguo Sel de Zenarruza
4.-
5.
6.-
7.-

OKIZ AUZUNEA
.-OKIZ, 1300 Antiguo Sel de Zenarruza
1.-
2.-
3.-
4.-
5.
6.-
7.-
8. SAN KRISTOBAL, ermita

BERREÑO-ALDAKA AUZOA 1,709 BARRIO DE BERREÑO-ALDAKA



1.-
2.-
3.-
4.-
.-BERREÑO-AGIRRE. Actualmente no existe. Se construyó en 1409 sobre un Sel.
5.-
6.
.-BULUKUA. Actualmente no existe. Existía en 1557
7.-
.-URRETXAONDO. Existen ruinas. Se construyó en 1410 sobre un Sel.
8.-BERREÑO-AURTENETXEA (Aurtenetxe)
9.-BERREÑO-BENGOETXEA (Bengetxe) 1557
10.-BERREÑO-URIARTE (Ujjarte) 1557
11. BERREÑO-GOITIA (Goitijje) 1557
12.-
13.-BERREÑO-ZELAIA (Zelaikue) 1557
14.-BERREÑO INTXAURRAGA (Intxaurta)
15.-BERREÑO-ETXEBARRIA (Etxebarri)
16.-BERREÑO GOIENETXEA (Gunengoa)
17. SAN SALBADOR, ermita
18.-
19.-
20.-
21.-
22.
23.-ZUZAETA o ZUSIETA (Suseta) 1502
24.-OLABARRIA (Olabarri) 1557
25.-ORUETA
26.-
.-ASTOREKA TORRE. No existe actualmente
27.-
28.
29.
30. SANTIAGO, ermita
31
32. ALDAKA-AURTENETXEA (Aurtenetxe)
33.-ALDAKA-GOENA (Gunengo) Pert. a la V. de Gerrikaitz.
34.-
35.-LOITIA (Loitti) 1372. Pert. a la V. de Gerrikaitz.
36.-ALDAKA-BARRENENGOA (Bixko-Aurtenetxe o Barrena.) Pert. a la Villa de Gerrikaitz.
37.-
38.-ALDAKA-ZABAL (Aldazabale). Pert. a la V. de Gerrikaitz
39.-ALDAIETA (Aldaeta) 1372 Pert. a la V. de Gerrikaitz.
40.-
41.-
42.-
43. ARROSPIDE Antiguo Sel de Zenarruza, 1300 Existía en 1557.
.-TORRE DE ALDAOLEA. No existe actualmente.
44.-ALDAOLEA DE YUSO (Aldola Gane) P. a la V. de G.
45.-ALDAOLEA DE SUSO (Aldola-Axpi) P. a la V. de G.
46.-
47.-
48.-SANTA EUGENIA, ermita

TOTORIKA AUZOA 1,709 BARRIO DE TOTORIKA

1.-TOTORIKA - JUAN DE LOPETXENA. Totorika-Jauregi o Jolapitxene
2.-
3.-TOTORIKA-LARRINAGA
4.-
5.-
6.-TOTORIKA GOGEASKOETXEA (Gosketxe)
7.-TOTORIKA-GURPIDEA (Gurpide) Existía en el año 1372 Pert. a la Villa de Gerrikaitz.
8.-
9.-TOTORIKA-GOIENA (Junena-Etxebarri)
10.-
11.-SAN JUAN, ermita
12.
13.-Txabola o Sagasti
14.-
15.-Depósito de agua
16.
17.-
18.
19.-
20.-
21.-

GERRIKA AUZOA 1,709 BARRIO DE GERRIKA

1.-GERRIKA-GAZTAÑETA, anterior al siglo X
2.-GERRIKA-BEITIA, anterior al siglo X
3.-GERRIKA-GOITIA, anterior alsiglo X
4. GERRIKA-ETXEBARRIA, anterior al siglo X
4.-bis.-Perretokijja
5.-SANTA LUCIA, ermita
5.-bis.-
6.-
7.-
8.-
9.-

JAIO AUZUNEA'n
10.-
11.-

Los siguientes caseríos no pertenecen a Munitibar-Gerrikaitz, y no hemos estudiado fechas.

a.-JAIO (Jaio-Azpe), abandonada

GERRIKA BARRERIGUNEA'n
b.-GONTZE d.-ETXEIXU
c.-GONTZE e.-AIZTI, muy interesante

ALDAPE AUZUNEA'n
ALDAPE-GOIKO ARANTZAHENDI-GOIKO
ALDAPE-BEKO ARANTZEHENDI-BEKO

# BIDEZ BIDE...

Bidez bide ibiliko gara,
bide barri edo ta
kaltzada zarretatik,
baso bide eta
oraingo pistaetatik,
iturririk iturri,
zubirik zubi,
ibarrik ibar,
auzorik auzo,
tontorrik tontor,
munorik muno,
pagadirik pagadi,
bordarik borda,
larrerik larre,
iratzerik iratze,
Eta zegaitik ez?
ermitarik ermita,
elizarik eliza,
gure aurretikoen
santu-santen fedez
edo ta ikusmiñez.
Bai eta
etxerik etxe,
ormazarrik ormazar,
olarik ola,
bolurik bolu...
Eta burua nekatuko dogu
artxiburik artxibu,
paper zarrik paper zar,
Munitibar
edo

Arbatzegi eta Gerrikaitz,
lengoa eta gaurkoa,
elizate eta uria
ikusi ta erakusten,
ezagutu ta ezagutu eragiten,
alegiñik onenagaz,
nai ta batzutan
gitxien uste danean
laprastaden bat egin.

Lea-Artibai'ko
erri eta auzo.
Uri eta elizate
geien bat baserri giroan
agertu naian
olgetan lez asi giñan.
Gero katea luzatu,
ta orra gaur emen,
Jaunak emondako osasunari esker,
azken ibillaldiko frutua.
Borondaterik onenagaz
artu egizue
Munitibar tar guztiak.
Zuentzako da,
bertan irauten dozuenentzako pozgarri,
bertatik alde egin ebenentzat oroigarri,
eta batez be
bertako odola daroen
eta eroango dabenen
erri miñaren asegarri
eta beti be jakingarri.



**GERRIKAITZ**





KALTZADAKO
BIDEA



OIZ'KO ITURRIAK



# LEA ETA OIZ

Oiz mendiaren iparraldean sortzen da, eta tartetan datozan Goikolea, Txaargarate eta Aldape'ko urekaz ugaritzen da Garro zubi inguruan eta Olatxua errementaritzaren alboan (Arbazegi'n) eta Gerrikaitz'era sartzen da, uri au ezkerretara itxita, perdigoizko tiro baten arteka mendean.

Ortik Munitibar'era dua eta emen, ezker aldetik Ganbiril'dik datozan erreka biren urak artu eta beste birenak eskuma aldetik, San Bixente eleiza baiño beratxuago Gerrika eta Totorika aldetik datozanak eta Murelaga'ko bidean asten da, bide orretan Gaztiburu eta Motrellu'tiko urak be artzen dauzala.

Murelagatik Aulesti'ra duala, Ibakatx zubi ondoan, beste erreka txiki bat dago, Gerrika kofradiako lurretan, eta Mendibítarte'ko Madalenaren ermitako iturrian eta Lekoniz'ko mendietan sortzen dana...

Orrelaxe agertzen dau Iturriza istori idazleak Lea ibaiaren Munitibar zearko bidea.

Lea ibaia zelakoa dan?

Esan geinke Lea ibaia Bizkai'ko ibairik politentzat etsita dagoala. Eta bere egaletan esateko industririk ez dagonez, kutsadura gitxikoa dala autortu bear.

Lea berbera Munitibar'en sortzen dala esan leike, Oiztik bera datozala alkartzen diran erreketako urekaz.

Eta irakurri daitekenez, Lekeitio'n itxasoan sartu arte, ibairik zoridunentzat dago kutsadurari buruz. ("Ibaiak eta Haranak" III, La gestión del agua en Bizkaia, Jose Luis Iturrieta).

Jakiña da Oiz mendia urtsua dala.

Bertan sortzen dira eta bertatik zabaldu Lea eta Artibai eta Gernika ibaiak, Lekeitio, Ondarroa eta Mundaka aurrean itxasoan sartzen diranak.

Baiña Oiz mendia, gaur ezagutzen dogun antzeko eta zan antxiñako denboretan?

Ez da asko sakondu bear liburuetan, jarraian agertuko dogun lako agerpena bíllatzeko. Gaillur bikoa zala esaten dabe geobgoak, ludiztilariak.

Irakurri:

"Oiz erpiña dugu Bizkaiko toles konkorraren gaiñik goituena: Mendí lerroxka au ez da beti orrela izana, zearo aldatua baizik.

Orain Garai dagon ingurutsu ortan gaillur bat, oraingo Oiz eta Gerrikaitz'en artean bestea, bi gaillur izan zituan mendi andiago baten egal edo saiets izan zana da aldiren batean gaur mendi dan au".

Ez ori bakarrik:

"Oiz mendi-lerro au gaur dagonez, irakurten da beste tarte baten, eta Urko ta Egoarbitza'tik Punta Galera'ra doan toles-konkor au osorik, Irugarren Arokoa da, zeatzago esanik, Eozeno garaikoa. Auxe da beraz Bizkai ta Gipuzkoa'ko gaillur garrantzizkoetan (1.026 metro) gazteen-gazteena.

Mendi onen alde bietara, au da ipar-aldean Mendata-Gerrikaitz-Zenarruza lurraldea eta ego aldean Garai-Berriz-Zaldibar ingurua, Bigarren Arokoak dira, zeazkiago esanda, Trosk-aroaren azkeneko-ak.

Ondarki bigunez egiña da Oiz. Ain juxtu ere orregatik gertatu zaizkio ain lur-jate aundiak, eta gaiki oiek guztiak gero Gernika, Lekeitio eta Ondarroa'ko erriberetan kokatu edo pillatu izan dira". ("Mendiak". Euskalerriko ikuspegi orokorra, I liburua, 29 orrialdean. Areso tar Paulo'k).

Orra Arbazegi eta Gerrikaitz'eko, edo nai ba da Munitibar'ko ama-lur eta bertako ibarrak bustiten dauan Lea ibai txikiaren gain-gaiñeko ikuspegiaren agerbide bat.



**OIZKO ITURRIA**



**OIZ'KO PARKEA**



**GARRO'KO ZUBIA**



**KALZADA'KO ZUBIA**



**LEA IBAIA**

# NOIZKOA DA MUNITIBAR?

Esan daigun antxiñako paperetan bardin irakurten dala Munditibar, Monitibar edo Munitibar.

Eta esan daigun baita, Munitibar Gerrikaitz'en egoala, orduko paperen araberan.

Onelakoak irakurten dira Konde eta Jaunen agirietan:

mis pobladores de Munditibar, que es en Guerricaiz..."

"... labradores pertenecientes para dicha villa de Munditibar que sean del término de Guerricaiz..."

"Villanueva de Munditíbar de Guerricaz..."

Jakiña da Bizkaia'n, bertako Jaun deitzen ziran kondeen denboretan, ogei ta bat (21) uri (vílla) sortu zirala eta euren artean Munitibar'ekoa.

Munitibar'eri uri irazpena (fundasiñoia) emon eutsana don Tello Bizkaiko XXII garren Jauntzat ezagutu zana izan zan.

Don Tello berberak emon eutsen uri legedia Markiña, Elorrio eta Gernika'ri be.

Markiña'ri 1355 urteko Maiatzaren 6'an.

Elorrio'ri 1356 urteko Bagilla'ren 27'an.

Gernika'ri 1366 urteko Apirilla'ren 28'an.

Munitibar'eri, 1366 urteko Urrilla'ren 4'an.

Bizkai guztian ogei ta bat (21) uri dagozala kontuan artuta, amazazpigarren irazitako (fundatutako) uria da Munitibar. Bere ondoren beste lau sortu ziran, au da, don Juan kondeak sortutako Miraballes, Mungia, Larrabetzu eta Errigoiti.

Munitibar'ek, Gernikako batzarretan, urien arteko amaseigarren botoa eta jezarlekua eukan.

Arbazegi'k, Batzar Nagusietan, eleiz-ateen artean, ogeitazortzigarrena. Norbait arritu egin lei geroago, Irazpen edo fundaziñoko agiria irakurtean, agiri ori 1404 urteko Urrilla'ren 4'an izenpetu eta emona izan zala irakurtean, baiña gogoratu nai dogu, denboraldi aretako agiri eta dokumentuetan agertzen diran urteei, ogeita amazortzi urte kendu edo beratu bear jakoezala, geroago egin zan egutegietako zeazketa ondorenez. Beraz gaurko kontakizunetan, 1366 urtea izango zan.



GERRIKAITZ



GERRIKAITZ

# MUNITIBAR'EN IRASPENA, URI LEZ SORTZEA

Onela asten da Uri (Villa) izateko eskubídeko agiria; euskerara biurtuta:

"Aitaren eta Semearen eta Espiritu santuaren izenean, iru notin (pertsona) eta egiazko Jaungoiko bakarra eta bere Ama guztiz santu Andra Mariaren izenean.

Jakin begie mesedeko agiri au ikusten dabenak, nik Tello Jaunak, Bizkai'ko Konde eta Castañeda'ko, eta Agilar'eko Jaun eta Endika Erregearen alfereza nazanez, Gerrikaitz'en dagon Monditibar nire menpeko eta lurgiñei, bardin martzal izan edo ta baserritar, eta zueri emon eta ziurtatzen dautsuet eta mesede au betiko eukiteko agindu, Bizkai'ko nire jaurerriko zaldun eta martzalak aolkatu nabelako Munditibar erritzeko eta bertan biziten geratu nai ebenei legea eta forua emoteko, bertara etorri al daitezen eta bertan bizi nire zerbitzuan; eta nik aolku (kontzeju) au ona eta zintzoa dala ikusita, legea eta forua emoten dautset eta ortarako karta au egin orain bizitzera etorri nai dabenentzat eta emendik aurrera munduaren azkenerarte etorri daitezanentzat, bertan bizi diranak nai munduko edozein jaurerritik izan, gizon askeak ba dira, eta fedeari eusten dautsenak eta idazki onen bidez orain bertan bizi diranei eta emendik aurrera nire Jaurerriko izango diranei, karta onen bidez agintzen dautsedan lez".

"Eta orain bizi diranei eta aurrerantzean esandako Monditibar lekuan bizi diran zortzi (8) lurgin erri-irazle, eta inguruan urreren dagozan amar il-etxe, onenak diranak eta Munditibar'eko uripean dagozanak; eta esandako zortzi lurgin erri-irazleak eta amar il-etxeak Gerrikaitz'eko lurralde eta lekuko izan daitezala.

Eta gaiñera Munditibar uria sortuko dabenei inguru-mugatzat emoten dautsedaz Iruzubieta'n asi, ur gorantz Arrangiz'era; eta andik Urtxuteaga'ra, eta andik Abargabide'ra, eta ortik Aldaola'ra, eta andik Alzola'ra, eta andik Urrakez gaiñera, eta andik Urriola'ra, eta andik Meabe'ra Iruzubietaraiño; eta Durango'tik Lekeitio'ra joaten diran mando saillak Monditibar uritik igaro daitezala, eta agintzen dot emen gaur bizi diranak eta biziko diranak, martzalak izan nai lurgiñak, Eleiz-etxe bat jaso dagiela uri orretan Andra Maria'ren izenean, eta agintzen dot Eleiza orretan illobiak zabaldu daitezala, eta erabili dagiezala gaur nire uri dan Durango'ko Tabira'ko eleizan era-

bilten diran lez, eta uria ormaz inguratu leikeela bertakoak nai izango daben lez eta gura dabenean".

"Eta toki onetako bizi-lagunak baimen oso eta garbia euki dagiela bere inguru eta mugaen artean erosi edo edozein saltzaillek salduten edo emoten dautsena artzeko, edo ta gurasoakandik artu, etxe, eta lur, eta soro eta diru, errota edo arraintoki, bardin martzalenak izan edo ta biargiñenak, edo ta Monastegietakoak; eta bere mugaetatik kanpora saldu edo erosi, edo ta saltzetik edo trukatzetik, edo gurasoekandik, bardin martzal edo biargin izan oiñordetzen dabenetik, irabazia lortzeko baímena euki dagiela, eta origaitík ez dagiela ordaindu zergarik, ez íl-ondorenik, ez Sayoniarik, ez auzolanik; ordez, aske geratu daitezala Logroño'ko forutik.

Eta Munditibar lekuko bizi-lagunak, nai dabenean saldu nai emon leikezala bardin premiñazko dabezan eta daukezan beste gauzak be, eurak gura dabenei; eta edozein bizilagunek etxea edo beste zerbait urte bete eta egun batez aurkako zer-esan txarrik barik euki ezkero, aske izan daitela eta kittu, Logroño'ko foruaren eran, erosi nai saltzen dabenetik",

"Eta burdiñolak banatzen dituen toki onetakuak, banatu eta jaubetu leikezala, orain arteko oituretan; eta bardin nik Munditibar lekuko irazleei (fundadoreei) emoten dautsedazan tokietakuak gaur arte oitu izan daben lez; eta mesede geiago egiten dautset, aurrerantzean urtean bein euren oizko alkate, epaikari eta eskribaduak izentatu dagiezan euren eskuz, beste Bizkai'ko nire urietan egiten dan lez, eta buruzagitzat onartu dagiela nik eskeiñiko dautsedana, baiña ez dagiela onetaz baliatu uriko bizilagun ez ba da; eta iñor Alkateagandik edo Ofizialengandik min artuta geratzen danean, Tabira'ko nire uriko alkatearengana jo daitekela, eta euren bitartez niregana; eta iñongo Buruzagi, ez Prestameru, ez Bizkai'ko merinurik ez daitela bertan sartu agintzen, eta ez dagiela ezelako aginterik euki Munditibar'ko urian, ez bere mendi, mugarte, ez eta bertako inguruetan, ez eta bizilagunetan be, ezta gorago esanda geratu diran nik emengo bizi-lagunei eskeiñitako tokietan",

"Eta mesede egitearren agintzen dot astelen guztietan merkatua euki dagiela, eta baita iñok Munditibar'eko bizílagunei ezer eskatuko ba leikioe, Alkateak agintzen dauana betetzeko erantzuleak jarri dagiezala, eta kendu dagioela berak daukan guztia; eta mesede geiago egiteko baita be, orain emen bizitera datozenei, edo emendik aurrera etorriko diranei, ala egin dagien, uria obeto inguratu edo sarratu dagien, lenengo zortzi urtetako zergak kentzen dautsedaz, eta zortzi urteak igaro ondoren, zerga emoleak beretu dagiezala

bertara datozanak, beste Bizkai'ko nire urietan egiten dan lez; eta agintzen dot eta benetan aldezten dot iñor ez daitela eta ez daitezala Uri onetakoen aurka joan sekula orain egiten dautsedan mesede onengatik, eta bere aurka edo bere zatiren baten aurka eurekana joan daitezanak edo ta zigorrez joaldi bakoitzeko Castilla'n oituten diran dirutan milla marau ordaintzera makurtu daitezala, edo ta nire uritarrei egiten jakoezan kalte eta galtze guztiak bidartuta ordaindu dagiezala".

"Eta nik, don Tello Kondeak, mesede au ziurtatze eta emotea agintzen dot, eta nire Konderriko andiki nai txikiei agintzen dautset nire aurre eta agintepean egiten dodan mesede au iñok atzipetuta ez dagioela kalteratu, eta iñor indarrez edo beste zerbaitegaitik ausi nai ba leu, Jainkoak madarikatu edo ta lotsarazia izan daitela, edo San Pedro'k, edo ta Apostolu guztiak, eta Jaungoikuak nigandik aldendu zaiteze esan eutsenekin batean izan daitela, eta Juditar eta fede-ausle lez kristiñauen laguntzatik urrundua izan daitela, eta íl ondoren diabruekin eta Judas saltzaíllegaz betirako inpernuetara joan daitela; eta nire borondatea uri au sortzea dala ulertu dagizuen, mesede au narruzko pergaminoan idatzita emotea agindu dot, nire izena idatzi dodan argizarizko nire sillua dindilizka daroala.

Miranda de Ebro'n emona, 1404 urteko Urrilla'ren 4'an- Ni, Bizkai'ko Kondeak- Kondearen aginduz nik, Fermin Garzia'k agindu neban idaztea".



**ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ**



ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ



GERRIKAITZ

# LEGEAK EDO LEGE ANTZEKO AGINDUAK

Munitibar'en uri sortzea ikusi dogu.

Bear ba da errezena izaten zan uri bat sortzea, irastea, fundatzea inguruko lurrak izentatu, mugak billatu, bertako bizilagun eta auzokideak nortzuk izango ziran aukeratu eta zelako eskubideak eta mesedeak eukiko zituen eta abar paperetan agertuaz.

Alkar arteko bizitzan etorri edo sortzen zan gero nastea eta nastearen ondoren, asarreak.

Batari kendu edo bestari ez emotean. Lengoak euren eskubideak zapalduta ikustean edo ta barriak agintzen eutsezanekaz gargortuta bizi naietan.

Origaitik gertatzen ziran urteak urte zapalduta geratu zirala uste ebenen gora-joteak eta agindutakoa beteten lagaten ez eutsela buruan sartzen jakenen gorako eskabideak.

Erri zar eta barriekaz geienetan gertaten zan lez, emen be geratu ziran orrelakoak.

Asarre oneik bitarte, eta asarretuen eskabideei erantzunez agertzen ziran Jaunen edo Ordezkarien aginduak, lenengo irasleak (fundadoreak) emondako mesedeari eutsi naian.

Orrela Munitibar'eko gertaeran be, agiri edo dokumento oneik argitaratu ziran eta or geratzen dira istorirako.

1362 urtean: Bizkai'ko Jaun zan Juan'ek emondako mesedezko karta bat. Bertan Gerrikaitz'eko Kontzejuko gizonen alde agertzen da, Ziortza'ko eleiztarrei gogoratu eta agintzen 1362 urtean Munitibar'en erriztatzea galeraso nai izan eben lez, Ajorabide'n erria egitea ez egiela galeraso.

Bigarrena 1402 urtean agertua da. Gaia: Arbazegi eta Bolibar'en errolduta egozan lurgiñek Gerrikaitz'en erroltzeari buruz.

Irugarrena, Arbazegi'ko Bixente deunaren eleizako amarren eta errentak ango patroiak beste bateri aldatzeko egindako tratua da.

Laugarren bat, 1630 urtean Felipe IV garrena emondako lege berezi bat, oraingo onetan Gerrikaitz'etik etxe batzuk askatzen.

Jakiña da orduko idazkera eta gaurkoa ez dirala bardiñak. Orduko idazkeretan lege eta oitura zana, gaur aspergarri eta ia irakurteko be luze eta gaitz egiten da.

Origaitik guretzat eta istorirako bertan agertzen diran etxe eta tokien izenak jakingarri dirala ikusirik, alik laburren agertuk doguz karta eta agiri orreik, bitarteko esaera betegarriak kenduta.

## BIZKAI'KO JALIN ZAN JUAN'EK EMONDAKO MESEDEZKO KARTA BAT

"Jakin egizue nire osaba Tello jaunak Munditibar'eko Kontzejuari mesede lez Gerrikaitz'en erri sortzea emon eutsela, eta orain andik diñoste Ziortza'ko eleiztarrak ez dautsela lagaten Munditibar'en biziten jarten, eta eurak Durango'ko Kondearen mesedez Ajorabide'n egin ebela uria, eta orain bildur dirala bertan egoten itxiko ez ete dautsen eta nai dabela nik agertzea ondo ikusten dodala".

Eta agíri onetan, gogoratu eragiten dautse ziortzatarrei ezelako trabarik ez ipinteko Munditibar erria jasoten, eta daukan mesederik eta eskubiderik ez dagiela iñolaz eta iñundik azpiratu, eta karta au artzean bertan agintzen dana zeatz eta zuzen beteteko.

Burgos'en emondako karta da, 1410'ko Urtarrilla'ren 17'an. Gaurko erako 1362 urtean.

## ARBAZEGI ETA BOLIBAR'EN ERROLDUTAKO LURGIÑEI GERRIKAITZ'EN ERROLTZEARI BURUZ

"In Dei nomine, Amen".

Olantxe asten da idazki au. Eta diño Kristo mundura etorri zaneko 1402 urteko Garilla'ren (Uztailla) 25'an, Gerrikaitz eta Munditibar uriko Andra Mari eleizan, ango alkate Joan Berreño eta Martin Todorika (lengo paper onetan onelaxe irakurten da: Todorika), eta Joan Ibañez Garai, Prebostearen ordezkoa, eta Joan Gerrika eta Santxo G. Mendibil epaikariak batu zirala, eta bertako gizon on guztiak, oitura dan lez, kanpai otsera.

Eta batu zirala baita Arbazegi'ko San Bixente'ko parrokiko ziran lurgin guztiak eta euren artean Peru I. Berrañogoitikoa, Joan P. Astorki, Joan Orueta, Joan Aldaka, perratzaillea; Aldazabal'go Peru Baltz, Joan Aransolo, Todarika'ko Larrinaga'ko Peru, Todarika'ko Santxo, Uriona'ko Joan, Gillestegi'ko Martin, Gerrika'ko Peru, Ajoria'ko Martin, Jaio'ko Santxo'ren suiña, eta abar.

Baita Bolibar'eko parrokiko ziran beste ainbat.

Eta batzarrean alde bateko eta bestekoak erabillezan asarreak argitu nai izan zirala.

Munditibartarrak esan ebela euren etxeak sortu zan uri barrian lekutzeko eskubidea eukela, beste urietakoak egiten daben antzera.

Besteak erantzun eben egia zala asarreak egon zirala, baiña alkarregaz maitasun eta karidadean bizi nai ebela, asarreei luzerarik emon barik.

Eta erabagi eben, Lenengo, baserritarrak eukezan etxeak eta geroago ondoretu bear ebezanak Munitibar'eko izan eitezala eta ala ezagutu bear zirala, edo ta alde bietako.

Alde bietakoak erabagi eben uria dala ta eukezan euren esi, edo urka, edo ateekaitik, urirako janaritzako zerbait egin bear zanean eskatzen ziran gastuak uritik kanpo bizi ziran lurgiñak ordaindu egiezala, eta etxeetan uritik kanpo bizi ziranak etxe orube lez ordaindu egiela, baiña benetan beartsu ziranak, uriko gizon onak erabagiten eben antzera askatuak izan eitezala.

Eta uriaren onerako zerbait egin bear zanean, bardin ordaindu bear ebela barruan bizi ziranak eta kanpoko baserrietan bizi ziranak.

Era berean lurgiñak euren eskubidea obetu nai ba eben, ortarako alegiñak danen artean ordainduak izan eitezala, kanpoan nai barruan bizi.

Orrez gain alderdi bietakoak bat etorri ziran mendietako zaindariak batera ipini eta alde bietakoenak zaindu bear ebezala-ta. Eta iñoiz mendiren bat saldu nai ba zan, alderdi bietakoen adostasunez saldu bearko zala. Bai eta iñoiz lapurreta eta indarkeriz egiten ziran kalteak alderdi bíen kontra egin bear zirala, eta ortarako izentatzen ziran banatzailleak Jainkoak agintzen daben lez edo ta al zanik obetuen banandu bear ebezala.

Bardin soro ta zelai kontuan urikoak ez egiela enbargurik egin lurgiñei, eurak Kontzejuaren parte barik eurentzakotuta eukezan tokietan.

Eta alkateen alogerak danak bardin ordaindu bear ebezala, etxeka edo pertsonaka, urikoak eta kanpoko zatian bizi ziranen artean ondoen erabagiten eben lez.

Eta uritarrak bertako azoka edo arategia alokatu nai ba eben, ortik lortzen zana uriko Eleizako lanerako izan eiala, Kontzejuak ala nai ba eban.

Bai ta erabagi eben iñoiz gertatzen ba zan urian upeletan eukezan sagardauak ez zirala naiko Kontzeju guztirako, eta Kontzejukoak erostera beartuta aurkitzen ba ziran, lenengo auzokoei erosteko eta ez beste iñun.

Orrelaxe artu ziran ainbat erabagi, artzen ziran erabagiak zaindu eta betetera beartuta geratzen ziraka berba emonaz, iñora jotera beartu barik.

Eta batzar onetan testigu izan ziran Albiz'ko Martin, Bizkai'ko foru alkatea, eta Joan, Berraño'ko abadea, Berraño'ko Joan bono'ren semea, eta Uriarzea'ko Jose, eta Uriona'ko Joan, Gerrika'ko Peru, Jaio'ko Santxo, Todarika'ko Joan, Uriona'n bizi zana, eta beste asko.

## SAN BIXENTE ELEIZAKO PATROIEN ESKUBIDEAK

(Arbazegi'ko San Bixente parrokiko amarren eta errentak, ango patroi ziran Juan Alfontso Mugika eta Teresa Billela bere emazteak, markiñar batxillerra zan Martin Kareaga'ri saltzea. Bitarteko Ugarte'ko Joan Abadea, Mujika eta Billelatarren ordezkaria).

Asieran esaten dautse Arbazegi'ko Monastegiko (ala deitzen dautse Bixente deunaren parrokiari) Patroitzari dagokiezan amarren, erdi-irabazi, errenta, zorkari, eta zelai, mendi, lur, ur-bizi eta geldi, bedartza, intxaurdi eta euretako eskubideak saltzen eutsezala berari eta beragandik egongo diran oñordekoei, betirako, ezelako estutasun, bildur edo indarkeri barik.

Orduko esaerak zabalak dira: "saltzen zirala zeruetatik inpernuetara bitartean daukezan ondasunak, edo ta inpernuetatik zerura bitartekoak, bai lurreko edo ta arimako gauzetan".

Eta ondasun orreik egon eikezala Markiñako Merindadeko Iruzubieta'n asi ét andik Arrangiz'era, eta andik Zengotitakoa eleizara, eta andik Andikona'ra, eta Orobino'ra, eta andik Muniketara'ra, eta andik Ibarruri'ko eleizara, eta andik Mendata'ra, eta andik Gareka'torrera, eta andik Oma'ra, eta andik Leízaganera, eta andik Malax-etxeetara, eta andik Gorozugarai'ra eta andik Kareaga'ra eta Iruzubieta'ra.

San Bixente'ko eleizak, bitarte onetan euki eikeana 328.000 gaztelar marabedietan baliotu eben. Eta salmentetan egoten diran lege guztiei uko egiten eutsela, salmenta ori zeatza eta benetakoa geratu al izateko.

Beste atal baten esan, berresan eta geiagotan be agertzen dabe nai dauana egin leikela erositakoagaz, eta euren partetik, (lengo patroien aldetik) iñok ez dauala zer esanik eukiko.

Eta beartu egiten ebezala euren aldekoak, oiñordekoak, diranak eta izango diranak, ezelako eragozpenik ez ipintera patroitzan.

Eta gerorako eskubide guztiak lagaten ebazala, idatzita nai idatzi barik egon eta erabilli.

Salmenta, tratu onetako lekukotzat eta ziurtatzailletzat jarten ebezala:

Zubieta'ko jauna zan Rodrigo Adan de Yarza.

Bolukua'n bizi zan Martin; Zuazeta'n bizi zan Peru; Goikolea'n bizi zan Martin; Aldaola'ko Peru; Kareaga'n bizi zan Martin; Arbazegi'n bizi zan Joan; Lope, Agorrian bizi zana; Aldape'n bizi zan Joan Iñiko Albir, Gerrikaitz'eko barberua.

Eta oraindik be barriro ekiten dabe bateko eta besteko legeari uko egiten dautsela, tratua garbi geratu dedin.

Tratu au 1478 urtean egin zan.

## FELIPE IV GARRENAK EMONDAKO LEGE BEREZIA, BOLIBAR'EKO ERROLTZETAN EGOZAN BASERRITARREI, GERRIKAITZ'EKO IZATETIK ASKE GERATZEN

Lege berezi au 1630'ko Urtarrilla'ren 26'ean emona da.

Bertan diñonez, Bizkai'ko irurogei ta amabi (72) eleiz-atetako bat zan Ziortza'ko ogetalau (24) Etxe-jaube eta etxetxu batekoaren eskabidez egiña da.

Eskabidea egin eben etxeak: Zenarruzabeitiatarren bi, Elorriaga'ko iru, Arrangiz, Ikaztegi, Estakona, Zabala bi, Garakate, Idoeta, Atxutegi, Zenikabeitia, Ormaetxe, Onaindia, Goikoetxea, Zenika'ko Zelaia, Zenika'ko Goitia, Garate, Aberanga, Martitegi, Jaio beko, Armaolea eta Zenika-Barrenetxea etxetxuak.

Oneik esaten eben Ziortza'n sartuta bizi zirala, an eukezala, baiña Gerrikaitz'ek eurengan agintea eukala, bertakoen gogoz urira atxekituak izan ziralako, baiña Uriak ez dauala ori ondo eta aintzat artzen eta asarre asko daukezala, eta uriagozko menpetasunik euki ez egien gastuetan, eta zeregiñetan, edo beste eskatu leikioen edozetatik askatu nai ebela, eta barriro Ziortza'n geratu eskubide guztiekaz.

Ori ikusita, eta kontuan eukita Erregeak Italiagaz eukan gerrako gastuetarako milla berreun eta ogei (1.220) zidarretako dukat ordaindu eutsezala, ondo ikusten ebala euren eskaria ontzat emotea, eta origaitik esandako 24 etxe eta etxetxu bakar ori Gerrikaitzeko uriaren menpetasunetik aske geratzen zirala, aurre-

rantzean Gerrikaitz'eko agintarí eta ordezkariak ezetan eurekin sartzeko eskubide barik itxiaz.

Eta bere menpeko guztiei agintzen eutsela agindu au kontuan eukiteko gertatu eikezan edozelako goraberetan.

1394 urteko legea.

Lapur, gaizkille eta antzerakoen aurka zelan jokatu bear zan jakin eragiteko legeak 54 atal daukaz. Baten, 38 garrenean, gure errietatik eta gure burdiñola eta abarretatik kalte-giñan ebiltzanen aurka deia egiten zanean erri bakoitzak zelan erantzun bear esatean, au diño Gerrikaitz'eri buruz:

Bilbo'tik, su-etxeak (fogerak) kontatuta dagozan gizonetatik, amargarren zatia batu edo gertu bear zala; eta Lekeitio'tik bardin, amargarren zatia, eta Durango'tik be amargarren zatia, eta Ondarroa'tik bardin, gizonen amargarren zatia, eta Markiña'tik bardin, eta Plentzia'tik bardin, eta Gerrikaitz'etik (emen aldatu egiten da kopurua) amargarren zatia, baiña dagozan gizonen erdiarena, eta era berean Larrabetzu'tik, eta Miraballes'tik eta Elorrio'tik, euretako su-etxe edo fogerak kontuan artuta. Eta gaizkilleak asko ba litzaz eta dei onetakoak naiko izan ez, orduan geiago gertu eta urten bearko zirala gaizkilleen atzetik euren neurria eta kaltea kontuan artuta.





OKIS IBER



**ERMITA S. MIGLIEL**



# ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ

## OIN-ETXEAK

Etxe-oiñak, jatorri-etxeak...

Ala deitzen dautse askotan bertakoei abizena (apellidua) edo ta jatortasuna emoten dautsen etxeei.

Onetan, gure errietako erroltzerik geienak XVIII garren gizaldiaren asieratik dagozan lez, lenengo erroltzetara agertzen diranak artzen dira aipagarri.

Erroltzeak, Bizkaian 1704, 1745 eta 1795/96 urteetan egin ziran.

Ezin ukatu etxe asko aurretik egozala, zarrago dirala, eta euren arrastuak paperetan be agertzen dirala. Baiña beste batzuk, nai ta aurretikoak izan, erriko arazoetan edo bizitzan agerpiderik euki ez dabelako ez dira agertzen.

Origaitik, ziurtasuna erroltzeak emoten dabelako, zerrenda onetan bakoitzaren erroltzerik zarrena emongo dogu, nai ta gero, beste agergarri, fitxa edo etxe bakoitzaren goraberetan, aurretiagoko zeaztasunak emon.

Arbazegi bizi-guztian eleiz-ate (anteiglesia) zanez eta Gerrikaitz uri (villa), guk jatorriz arbazegitarrei A izkia jarriko dautsegu eta Gerrikaiztarrei G, orrela bakoitzaren jatorria zeatzago ebatsiteko.

| Etxearen izena | Nungo | Erroltzeko Urtea |
|---|---|---|
| Arbiasketa | G | 1704 |
| Abrisketa (1796) | | |
| Agorria | A | 1704 |
| Ajorabide | G | 1795 |
| Alberrekakoa | G | 1795 |
| Aldaka Aurtenetxea | A | 1704 |
| Aldaka Barrenengoa | G | 1704 |
| Aldaka Goena | G | 1704 |
| Aldaka Zabal | G | 1704 |
| Aldayeta | G | 1704 |
| Aldaolea beko (azpiko) | A | 1704 |
| Aldaolea goiko (nausia) | A | 1704 |

| Etxearen izena | Nungo | Erroltzeko Urtea |
|---|---|---|
| Altamira | A | 1704 |
| Aransolo | A | 1704 |
| Arbazegi nausia (mayor) | A | 1745 |
| Arbazegi txikia (menor) | A | 1745 |
| Aretxarriaga | G | 1795 |
| Arrizabalaga | A | 1795 |
| Artibai | A | 1795 |
| Askarreta | G | 1704 |
| Artorkia | A | 1704 |
| Astorkia Goena | A | 1795 |
| Axenda Beko | A | 1795 |
| Axenda Goikoa | A | 1795 |
| Barrenengoa | G | |
| Barrutieta | A | 1810 |
| Basterrekoa | A | 1810 |
| Bengolea | A | 1704 |
| Bengolea Kantoi | G | 1795 |
| Bengolea Errota | A | 1704 |
| Berreño Agirre | A | 1704 |
| Berreño Aurtenetxe | A | 1704 |
| Berreño Bengoetxea | A | 1704 |
| Berreño Goienetxea | A | 1704 |
| Berreño Goitia | A | 1704 |
| Berreño Intxaurraga | A | 1704 |
| Berreño Telleria | A | 1795 |
| Berreño Uriarte | A | 1704 |
| Berreño Urretxagaondo | A | 1704 |
| Berreño Urrunategi | A | 1745 |
| Blasenekoa | G | |
| Bolukua | A | 1704 |
| Bustindegi | A | 1704 |
| Dendarikua | G | 1795 |
| Dorrondua | A | 1795 |
| Elbiranekoa | G | 1796 |
| Eskolakoa | G | 1796 |
| Etxebarria | A | 1704 |
| Etxetxua | A | |

| Etxearen izena | Nungo | Erroltzeko Urtea |
|---|---|---|
| Elorza errota | G | 1796 |
| Errementarikoa | A | 1745 |
| Garro | A | 1745 |
| Garro Berezi | G | 1796 |
| Garro Errota | A | 1704 |
| Gaztañeta | A | 1704 |
| Gernikenekoa | G | 1796 |
| Goena | A | 1704 |
| Goenetxea | A | 1704 |
| Goíkoetxea torre | G | |
| Goikoetxetxuba | G | 1796 |
| Gojeaskoa | A | 1745 |
| Goikoolea | A | 1704 |
| Goikoolea errota | A | 1745 |
| Gerrikabeitia | A | 1704 |
| Gerrikagoitia | A | 1704 |
| Gerrika etxebarria | A | 1704 |
| Ifarrola | A | 1795 |
| Indianetxe | G | 1796 |
| Intxaurraga | A | 1745 |
| Iturrondo | A | 1795 |
| Jaio Ganekoa | A | 1704 |
| Kanpaingoa | A | 1745 |
| Kantera barrena | A | 1795 |
| Kantera ganeko | G | |
| Kubo errota | A | 1745 |
| Labakoa | A | 1795 |
| Larraondo | G | 1796 |
| Larrinaga | A | 1704 |
| Larrinaga barri | A | 1795 |
| Lauanea | G | 1796 |
| Lekoirangiz | G | 1796 |
| Lezeeta | A | 1795 |
| Loitia | G | 1704 |
| Mansustadi | A | 1798 |
| Marrakerukoa | G | 1796 |
| Mendibil | A | 1795 |

| Etxearen izena | Nungo | Erroltzeko Urtea |
|---|---|---|
| Mendiola azpikoa | G | 1704 |
| Mikaelanekoa | G | 1704 |
| Mikelena | G | 1705 |
| Mikolabarri | G | 1798 |
| Montezuri | A | 1798 |
| Motaburu | A | 1795 |
| Munditibar jauregi | A | 1704 |
| Munditibar ferreria | A | 1704 |
| Munditibar zarra | A | 1745 |
| Muspildegi | A | 1795 |
| Mutionekoa-Mutio | G | 1796 |
| Otxandategi | A | 1795 |
| Olaalde | A | 1795 |
| Ola ostea | A | 1745 |
| Olabarria | A | 1704 |
| Olatxua | A | 1745 |
| Olaetxea | G | 1704 |
| Olaetxe | A | 1745 |
| Okiz | A | 1795 |
| Ortuzar | G | 1796 |
| Orueta | A | 1704 |
| Otaolea | G | 1704 |
| Patxikoetxea | G | 1796 |
| Pantaleonekoa | G | 1796 |
| Paredisukoa | G | 1796 |
| Portala andikoa | G | 1798 |
| Portale erdikoa | G | 1798 |
| Portale bekoa | G | 1798 |
| Portale emetikoa | G | 1798 |
| San Lorenzo | G | 1796 |
| San Juanena | G | 1796 |
| Talluri | A | 1795 |
| Talluri La Cruz | G | 1796 |
| Torrekua | G | 1796 |
| Totorika burpidea | G | 1704 |
| Totorika jauregi | A | 1745 |
| Txopenia | G | 1796 |

| Etxearen izena | Nungo | Erroltzeko Urtea |
|---|---|---|
| Uribai errota | A | 1745 |
| Urionabarrenetxea | A | 1704 |
| Uriona etxebarri | G | 1796 |
| Uriona goena | A | 1704 |
| Uriona Ormaetxea | G | 1704 |
| Urkimendi | A | 1795 |
| Urretxondo | A | 1745 |
| Urrunategi | A | 1745 |
| Urrutieta | A | 1795 |
| Urteaga azpikoa | G | 1704 |
| Urteaga goikua | G | 1704 |
| Urteagatxu | G | 1796 |
| Unzilla | G | 1796 |
| Zarrabe | A | 1704 |
| Zelaia | G | 1796 |
| Zelaieta | A | 1795 |
| Zuberoeta benta | G | 1796 |
| Zubialdea | A | 1704 |
| Zubibarriaga b. | G | 1796 |
| Zubikoa | A | 1745 |
| Zubikoa erdikoa | A | 1795 |
| Zuzaeta | A | 1704 |



GERRIKAITZ



TXORIXENA



ABADE ETXE



KALEJA'KOA



**JOSE KALE**

# ZIARROTZAKO KOLEJIATA ETA ARBAZEGI TA GERRIKAITZ

Jakiña da gizaldi luzetan Ziarrotzako Kanonigoak eta bertako Kolejiatak zer ikusi andia euki ebela Oiz mendian eta inguruetan.

Ainbat saroe eta zelai soro eta larre eukezan Oiz mendian.

Eukezan jaubetasunak, jakiña danez, iru alderdi edo sailletan banatzen ekiezan.

Oiz'koak eta bere malda ta saietz guztikoak sailkapen baten: Bertan sartzen ziran Markina, Mallabi, Ziarrotza eta Munitibar.

Bigarren saílla Gaztiburu zan eta emen sartzen ziran Gerrikaitz eta Aulesti.

Irugarren saílla, Amallokoentzat lagaten eben.

Ez ori bakarrik.

1553 urtean, Garro'ko Juan Gerrikaitz'eko eskribadua zan. Eta Diego Irusta, Kolejiatako abata nagusi entzutetsuak, agerbide bat zabaldu eban eskribadu orren aurrean, ziurtatu naian Oiz mendian bazkatu eta bizi eikeen zaldizkoak Kolejiatakoak bakarrik zirala. Itxuraz Kolejiatak berreun (200) bior baiño geiago eukazan bertan.

Gai onetan ibarruritarrak, ori ontzat artu ezinda, buztanak eta zurdak ebagi eutsezala ta sortu zan auzi bat. Orren ondorenez ibarruritarrei adíeraso eutsen orrela jarraitzekotan eleizatik kanporatuak izango zirala eta *berreun* dukateko zigorra ezarriko eutsela.

Ezin ukatu ainbeste jaubetasunek, irabazien edo bizi-laguntzaren truke, ainbat burukomin emon eutsela kanonigoei, eta kanonigoak eurak ingurutako erriekaz auzi eta autu ugari euki ebezala eta zer esanik ez ingurutan jaso ziran baserrietakoekaz.

Jakiña da kanonigo areik euken entzute eta jaubetasunen ordez, batzutan borondatez, bestetan bizi-bearrez, eta iñoiz fede itsu baten eragiñez lotuera asko eukezala, askotan familiak eta etxeak jaso edo erantzun eziñekoak eta origaitik sarri ibili bear izan ebela onez ezin ba zan, indarrez edo auzi bidez duintasuna eta eskubideak zaindu nairik.

Arbazegi'ko eleiz-ate eta Gerrikaitz'eko uriari ikututen dautsen gertarak soíl-soílik agertuko doguz, beste auzo eta ingurukoekin sartu barik.

Ba dirudi 1398 urte aurretik Ziarrotzako kanonigoak eta Gerrikaiz'eko errementariak euki zituela diferentzi batzuk Kolejiataren jaubetasunei buruz.

Beintzat Errespontzuetako liburu aundi baten azalean idatzita euken euren jaubetasuneko lurren zerrenda bat, Kolejiataren jaubetasun lez.

Ziurretik eztabaidaren batzuei erantzuteko, 1388 urtean, Gernikako batzar baten agertu eben liburu a, Batzarrari eskatzen erriko dokumentu jator lez ezagutu bear zala, oraindik Bizkaian erri-eskribadurik ez egoan denboretan idatzia zalako.

Eta Gernikako Batzarrak alaxe erabagi eban.

Errementariak be makurtu ziran Batzarraren erabagia ontzat artzera, 1398ko konponketa baten bidez.

Gauza jakingarri bat.

Onartze ori agertzean, liburuetan au irakurten da: "Sentencia pronunciada en la Villa nueva de "Monditivar" (que es la villa de Guerricaiz)...

Goazen aurrera.

1502 urtea. Zuzaeta baserriko jaubeak euren lurraldetan eukezan erroten erdiak emon eutsezan Kolejiatari, ordurarte, antxiñetatik Kolejiatari urtero emoten eutsen 300 sagar arbolen frutuen ordez.

1551 urtea. Bizkai'ko Korrexidorearen erabagi bat billatzen da, Gerrikaitz'eko alkateari eta Arbazegi eta Ziortza'ko eleiz-atetako "fielei" (agintariei) agintzen, ez eitezala ausartu Kolejiatako kanonigoei trabarik sortzen eta ipinten Anitu, Aranz-sarri, Mojonarriaga, Eztenabieta, Astarloa, Longa, Longarte, Unzaegi eta Muniozguren'eko saroen jaubetasunei buruz.

1552.- Urte onetan Gerrikaitz'eko udalak galdu egin eban Aranbaltz'eko saroea zala ta Kanonigoekin eukitako auzia. Valladolid'eko txanzilleriara eldu zan auzi au.

1563 urtea.- Kanonigoak Gerrikagoenatxeako bizilagunekaz konponketa bat egiten ikusten dira. Baserri onetakoak 115 sagar arbola eukitera beartuta egozan, kanonigoekaz erdiz-banan. Baiña sagarrak emoten ez eta tratua aldatu eben, gari ordez, eta gero, berrogei ta sei urte geroago etxe onetakoak agindutako garia zorretan eukela ta auzitan ezagutzen dira.

1623 urtea.- Arbazegi'ko eleizako patroia auzitan sartu zan Gerrikaitz'eko udalagaz, Gerrikaiztarrak esaten eben arek aginduta frantzetar batzuk egurra atara ebela Egileun-dik. Arbazegi'ko patroiak erantzuten eban berak Kolejiatari erosi eutsala mendi aretako egurra eta eskubidea eukala nai ebanari saltzeko, Arbazegitarrei errazoia emon eutsen auzietan, mendi a Ziarrotzako Kolejiatarena zala ezagutu eta ziurtatuaz.





1654 urtea.- Oraingotan Gerrikaitz, Arbazegi, Ziarrotza eta Bolibar dira euren artean asarre, erriko basoak erabiltzetik eukezan naste eta ezin konponduak bitarteko. Asarre bide ziran lurren banaketa egitea erabagi eben.

1743 urtea.- Dionisio Olaetxea eta emazteak tratu bat egin eben Kolejiatagaz Zuberoeta izeneko lurretan baserri bat jaso al izateko, kanonigoei urtean ogei imiña gari urtero Irailleko Kurutzeko jai egunean ordaintzekotan.

1777 urtea - Martin Urteaga eta Ana Mendibe senar emazteak tratu bardintsu bat egin Kolejiatagaz, Okiz txiki deiturako lurraldean izen bereko baserria jasoteko, urtean ogei ta lau imiña gari ordaintzat izentauta.

1758 urtea- Artibai etxea egin eben Jose Mugira eta Malen Goenetxeak zentzu bat euken Kolejiataren mesedean, an urteurreneko eleizkizun bat esatearen dirutzaren ordaiñez.

1772. urtea.- Iñazio Arejita eta emazteak (Arbazegi txíki baserrikoak) zentzu bat izenpetu eben M. Akordagoitia'ren alde eta onek, bere azken-naian (testamentuan) zentzu ori Kolejiataren mesedean itxi eban, orrela Arbazegi-txikikoak Kolejiatari zordun itxita.

1773 urtea - Arbazegi'ko bizilagunak auzitan asi kanonigoekaz saroe batzuen jaubetasuna zala-ta. Gero auzia bertan bera itxi, baiña Gerrikaitz'eko udalak jarraitu. Auzitan amazazpi saroe izentatzen ziran.

Azkenez Bizkaiko Korrexidoreak erabagi eban zazpi Kolejiatarenak zirala baiña beste amarrak Gerrikaitz'enak.

1775 urtea - Otaolea baserriaren zentzu bat ezagutzen da Kanonigoen mesedean izenpetua.

Urte berean, 1775'n, Gerrikaitz'eko udala eta Kolejiata barriro auzitan, Gaztibura mendiko Alzola-sakonan arbola batzuk ebagi ziralako. Gerrikaitz'ek galdu eban auzia eta 8 errialeko isuna (multa) ipini eutsen ogeitamar sarats ebagi ebezalako.

Urte onetan bertan beste auzi bat euki eban Gerrikaitz'eko Udalak, Oiz mendiko lurralde batzuen jaubetasuna kanonigoei ukatzen.

1782 urtea - Andres Irusta eta M. Undabarrena senar emazteak irureun dukat eta urteko beste bederatzi mozkiñen zentzu bat izenpetu, Arrizabalaga etxearen kontura, Domingo Irusta eta Ana Jaio'ren mesedean. Oneik zentzu ori Ana Mari Andrinuari saldu eutsen eta Andrinua'ri Kolejiatak erosi, bere aldeko eleiz zerbitzu batzuen ordaiñez.

1793 urtea - Jose Agustin Martitegi, Urretxagaondo baserriko jaubeak Kolejiataren aldeko zentzu bat izenpetu, 60 dukat eta beste 14 ta erdi zorretan eukazanen ordez.

1851 urtea- Gerrikaitz'eko Juan Onaindia eta Bizenta Otaolea'ri "Alzola sakona" lurra erabilteko baimena emon eutsenean, itxuraz, an baserri bat jasotera beartu ziran, urtean 20 dukat ordainduta. Orreri buruz enfitesi-zentzu bat izenpetu eben urte onetan.

Zeaztasunetan sartu barik aitatu eta agertu doguzan auzi eta goraberetan igarten da zelako artuemon edo bizitzako goraberak egon ziran ingurutako erri txiki eta Monastegi entzutetsuaren artean.



# GERRIKAITZ 1658 URTEAN

Sarri lez gerra bildurra egoan urte oneitan.

Batez be itxasoz joaldiren bat egingo ete ebenen bildurra.

Origaitik Bizkaiko agintariak erne ebiltzan. Erne eta gertakizunak egiteari itxi barik.

Gerrikaitz'eko paperen artean 1658 urteko Bagilla'ren 30'ko baten argi igarten da emengo giroa.

Bilboko agintarien ordekotza artuaz, emen be Udaletxera deitu eutsen erriko jendeari, gerrarako urteetan egozanei, bakoitzak eukezan arma eta tresnakaz agertzeko, ikusteko ze baldintzetan eukezan euren izkilluak.

Ogei ta amazortzi gizon aurkeztu ziran, eta danak gordeta euken arkabuz, suauts-ontzi, suauts ontzi txiki, su autsa (polbora), tiroiña (bala) eta sokekaz.

Erakusteka egin ondoren ikusi zan danak alegintzen zirala tresnak ondo eta garbi gordeten eta deituraren baterako gertu.

Ala esan be eutsien. Etxetara joan eta zur eta adi egoteko, itxasertzerako deien bat artzen ba zan bereala batu eta urten al izateko.

Batu ziranak oneik izan ziran:

Pedro Azkarreta, alkatea.

Ind. Gurpidea, sindikoa.

Gregorio Zamarripa, ziñegotzia.

Ind. Albizu, 'eskribadua.

Pedro Zumarraga; Pedro Uriona; Antonio Bollibar; Pedro Uriona; Pedro Monesterio; Martin Andizpe; Blas Olakobea; Migel Azkarreta; Min Uriona; Bixente Sangroniz; Min Arrozpide; Andres ALdakazabal; Juan Urtiaga; Pedro Irusta; Juan Loitia; Dgo Axpurua; Gregorio Longa; Iñazio Aransolo, Felipe Loizaga; Antonio Zumarraga; Juan Urteaga; Juan Uriona-Etxebarria; Pedro Amesti; Ind. Uriona-Ormaetxea; Bixente Bereikua; Migel Bollibar; Alejandro Arrospide; Juan Aldekazabal, Min Gardoki; Bernabe Aldaka; Grazian Arribai; Juan Aretxaga; Pedro Munioz eta Domingo Zelaia.

# GERRIKAITZ URIA ETA INGURUKO EGITURA

Gerrikaitz'ek, uri egin zanetik, eskubidea eukan, baimena eukalako, ormak egin eta etxeak inguratuaz, ateak, sarrerak, ipinteko, uririk geienetan oitura zan lez.

Gerrikaitz'en egitura aztertu dabenak, ipotesi bi iruditu dabez erriaren egiturari buruz.

1796 urteko erroltzetan, iru etxe ezagutzen dira bertan izen oneikaz:

Portalekoa, jaube Kristobal Gerrikabeitia.

Portale andiko, jaube Pedro Karlos Olaetxea.

Portale erdiko, jaubea Josefa Mallukiza.

Orrela, ziurra da beintzat, Gerrikaitz erriak iru sarrerako ate edo portale euki ebazala.

Teknikoak lauren alde dira, eta sarreren baten etxerik ez egoteak edo sarrerako beste izenen bat eukiteak, ez dau ezereztuten gaituen irizpiderik.




*Gerrikaitz'en egitura, saietsetik ikusita.*

Baten ustez, edo irizpidez, uri barruan lau lerrokadetan egozan etxeak.

Bat, ego sorkaldean, Garro, Urriola eta Ziortzarako bidea artzen zan tokian egoan.

Ipar sarkaldera "Hospitale zarra" egongo zan eta au Ganbetik zear Zugaztietara daroan bidean egongo zan.

Irugarren atea "Barkinero" deiturako etxe egalean egongo zan eta onek zabaltzen eban Munitibar eta Aulestirako bidea.

Eta laugarrena galtzadaren asieran egon eikean, eta kantoirarte joango zan, uri erdi aldean kale biak alkartuaz.

Bigarren irudipena, bardintsua da, ipar sarkaldera zerbait laburtuaz parrokiari lekua emoteko, bide batzuek geroago zabalduak izan leikezala esanez.

Irizpide onetakoak laugarren atea Bengola torrea dagon lekuan iruditzen dabe, eta emendik Bolibar eta Gerrika'rako bide egongo zala uste da, ibaia, errekea igaroaz.

Orrela pentsaten dabenak diñoe, euren irizpidea erreka egaletan egon ziran errementari eta burdiñoletan oiñarritzen dabela, ola edo lantegi orreik bear bearrezko ebelako errekako ura.

Ondorengo irudietan ikusten da aldi bateko Gerrikaitz'ek euki eikean egitura.



*Gerríkaitz, 1981'n.*

Beste leku baten agertzen dan lez, Gerrikaitz'ek sute ikaragarri bi euki zitun, erriko etxerik geienak kiskalduta laga zituenak, 1628 urtean bata eta bestean 1731 -n.




*Gerrikaitz: Lenengo ipotesíko egitura.*




*Bigarren ipotesiko irudia. Gerrikaitz zarra.*


aulezliara
gernikara
Gerrikaitz
bolibarera
zugastietara
ziortzara

# XVI garren gizaldian ZEREGIÑAK ETA BEGIRALEAK

Oiturazko zan XVI garren gizalditik aurrera, Bizkai'ko urietan eta eleiz-atetan, agintariei edo ta lekuetako zerbitzuak euren kontura edo arduretan eukezanei, noiz-nai ikertaldiak egitea.

Errietako alkate edo ta pielak beartuta egozan euren zeregiña ardurarik andienez betetera, bai bide zaintza, osasun, alikadura, merkataritza eta abarretako zerbitzutan.

Baiña erri txikietan geienok izaten gara senide edo ta adiskide, nai ta bakoitza bere aldetik ibili, eta orrek utsune eta akatsak sortzen zitun.

Eta Bizkaiko begirale, edo Foruko zaintzaille edo ta korrexidore-en ordezkariak erriak ikertzen urreratzen ziranean, beti aurkitzen eben zigorren gaia.

Sarri zigortzen zituen errietako agintariak eta arduradunak. Ez bakarrik ikerketa egiten eben urtekuak, bai eta euren aurretik urte bi irutan zeregin ori euki ebenak be.

Gernikako Batzar Etxeko Artxiboan agiri asko dago orretaz. Guk 1630, 1635 eta 1638 urtetako agiriak aztertu doguz, eta euretatik atara giñeikez, esateko, bai Arbazegi eta bai Gerrikaitz'eko jakingarri batzuk.

**Arbazegi**

Urte orreitan, Arbazegi'n, "en la casa solar de Montitibar de Arbacegui"... diñue paperak batzen zirala begiraleak euren lanetako agiriak jasoteko.

Iru urtetako agirietan, bost errota agertzen dira eleizate onetan:

Bengolea,

Garro,

Goikoolea,

Kubo eta

Olatxua.

Aldi aretan Bengolea errota Gaspar Bengolea eta Katalin Armendariz bere emazteak erabilten eben.

Garro'koa, Albiz'eko Martin'ek.

Goikoolea, Franzisko Goikolea'k.

1635 urtean begiraleak bertaratu ziranean "itxita" aurkitu eben. Eupadea atean egin eta etxekoandreak adieraso eutsen urteak zirala errotea itxita egoala, etxerako baiño beste lanik ez ebala egiten eta bestelako erantzunik ez eban emon nai izan.

Kubo'koan Marina Belaustegi zan bertako arduradun. Pixu, uruntoki eta abar ondo eukazala erantzun ondoren, eta txarririk be ez-eukala eta egaztirik be ez (errotetan orrelakoak galerazota egoten ziralako)... nun agertzen da ollo bat tresna artean, andrea pekatari biurtzen.

Olatxua'n Bernardino Ganboa zan bertako jaube.

Begiraleak (inspektoreak) neurrietan gaitua zan errementari bat eroaten eben eta askotan igarten da au alegintzen zala bere zeregiñean neurriei edo beste gauzei aitzakiak kentzen, bear ba da ezarriko ziran zigorren bildurrez. Baiña alaz eta guzti be agiriko batzuk ezin ukatu eta ez zan ikertaldi bat egon neurrien eta pixuen gorabERAKO zigorrik barik.

Orrez gain oiturea zan, garitan, ogei librako bat iotearen mermatzat galtzea, eta artotan amasei libratik bat, baiña agirietan ikusten da errotariak bat ori, bakar ordez, ugaritu egiten ebela, libra bi, iru edo lau be kenduta. Gero izaten ziran aitzakiak, erri berbertako oitura eta abar, baiña zigor barik ez zan iñor geratzen.

Erriko taberna eta erriko ostatua be ikertzen ziran. Ardaua, neurriak eta jokorako kartak. Galerasota egoan jokorako kartak emotea eta batez be dirua jokatzea. Baiña betiko pekatua izan da jokoko dirua.

Orrez gain arraiñarentzako pixu berezia be aztertzen zan.

## Gerrikaitz

Goian esandako urte bardiñak ez ba ziran be, bat edo besteran aldiz, emen be ikerketak egiten ziran.

Ara, jakingarri lez, zeintzuk izan ziran emen ikertuak 1636 urtean.

**Erriko pixu nausia.** Ana eta Katalin Larrea aiztak ziran pixuko arduradunak eta ondo egoala esaten da.

**Erriko taberna.** Ardau baltzarena. Ana eta Katalin Larreak euken. Neurrietan ondo, baiña... 136 marauko isuna (multa) ipini eutsen.

## Eunak neurtzeko kania

Oiturazko zan erriak be neurketako bere kana "ofiziala" eukitea. Ondo billatu eben.

**Arategia.** Joan Ibarra'k eukan.

Librako pixu "otxabo" bat kenduta billatu eben. Besteak ondo.

400 marauko isuna ipini eutsen.

**Denda.** Juan Ainz'ek eukan. Pixu neurtzailleak esan ebanez, "kuarteroia" zerbait anditxuago eukan.

400 marauko zigorra.

**Arraín pixuak.** Ontza erdikoa, ontzakoa, ontza bikua, "kuarteroia" eta liberdikoa, libran amasei ontza sartzeko neurriaren araberakoak ziran. Baiña librakoa, libra bikoa, eta irukoa libran amazazpi ontzako sartzen ziranak.

Oneri be laureun marauko zigorra.

## Elorza'ko errota

Au zan uriko agintaritzapean egoan errota bakarra. Franzisko Gomizio zan jaubea.

Emen amar librako pixuak otxaba batzuk falta zituela esan eban begiraleak. Eta beste pixu eta neurriak eta olak ondo egozala.

Laureun marauko zigorra oneri be.

**Okiñak.** Iru ogi egille egozan: Katalin Totorika, Maria Uriona eta Katalin Larrea ziran.

Oneik jakin ebenian ikerketa egoala, ez ziran agertu. Eta zigorrak egon ziran eurentzat, bakoitzari eun marau.

**Eunlariak.** Zazpi lagun agertzen dira zerrendan eunlari lez: Maria Aransolo, Katalin Portalekoa, Ana Uriona, Maria Olea, Maria Mendatakoa, X. Olabeaga eta Maria Ortuzar.

Oneik be okiñen antzera ez ziran agertu eta ba ekien begiralea errian egoala. Itxuraz beartuta egozan euren gaitasuna eta abar erakustera. Bakoitzari 78 marauko isuna (multa) ipini eutsen.

**Jostunak.** Jostunak be beartuta egozan erabilten eben kania eta gaitasuneko agiria erakustera. Baiña ez ziran agertu. Gizonezkoa zan bat, Bixente Berreinkua eta emakumeak beste bi: Zezilia Zaldíbar eta Maria Kanterakua.

Bakoitzari 78 marauko zigorra.

**Albaiterua.** Albaiteru eta perratzaille egiten eben bat egoan. Oneri be jakin eragin eutsen ikertaldia egongo zala, baiña eskutatu edo ta ez zan ezetara agertu. Aransolo'ko Aparizio zan.

78 marauko zigorra ezarri eutsen.

**Ozkiña.** (Oiñetako egillea). Onek be bardin egin eban, ikertaldia egoala mezua artuarren, agertu ez. Martin Zelaia zan.

Urte onetan begirale nausi lez, Martin Manuel Munibe eta Aranzibia, Santiago Ordenako zalduna eta Bizkaiko alduna izan zan.



**TXARRI ILTEA**

# GERRIKAITZ'EN ERRENTAK 1814 URTEAN

"Bear dan argitasun eta zuzentzarako ontzat artu bear da Gerrikaitz uria baserritar etxe jaube eta errenteruak osotzen dabela eta ez dagola beste aberastasunik lurrekoa baiño.

Bertako bizilagun bi errementeriak ba dira be ez dauke beste zeregiñik lurgintzako tresnak gertutea besterik eta egunik geienetan lurreko biarretan jarduten dabe".

Orrelaxe asten da 1814 urteko ondasun autorpenei buruz erriko ordezkariak batu eta egin eben agiri bat, Gernika'ko Artxiboan ikusi daitekenez.

Ara zeatz-meatz errentak.

**Eleiz gizonak**

Parrokiko abadeak euren kanpaipeko lurraldean batzen danaren amarrenen lau seigarren zati artzen dabez.

Juan Jose Otaolea eta Jose Antonio Calle dira eurak. Bien artean, urteko, batez beste, ogetamar anega gari. Gariak euki daben beratzea kontuan eukita, anega bakoitza berrogei errialetan jota, danetara ............ 1.200 errial

Era berean jaun orreik beste 42 anega eta iru imiña arto artzen dabez, anega bakoitza 30 errialjota ............ 1.267 errial

Beste iru anega gaztaiñatan, anegako 10 ............ 30 errial

Bai eta sagar zakutada bat be ............ 16 errial

Guztira ............ 2.513 errial

**Parrokotza**

Parrokotza dala-ta garitan zazpi anega eta iru imiñaren irutik bi artzen dabez, irugarrena parrokiko fabrikarako itxita eta orrek beste ............ 280 errial

Artotan amar anega ............ 300 errial

Gaztaiñatan, zortzi errialen balioa ............ 08 errial

Sagarretan beste lau errialena ............ 04 errial

Guztira........................................................................592 errial

Baba eta idarrena ez da dirutan baliatzen, gari eta artoen balioan sartuta dagolako.

Baiña abadeak ba eukezan kendu bearrekoak be.

Esateko, erriaren alde eskeintzen ebezan mezen eskupekoa, ukarra, au da, urteko 52 jaietako erri-mezena eta Parrokiak eukazan gastu oi eta bereziakaitik beste 240 geitu eta orrez gain beste 140 errial neurrien mermakaitik. Danetara 970 errial. Orretara abadeen irabazia, garbian, errentatzat kontatu eikeana, 2.136 errialetan geratzen zan.

**Prebostea**

Pedro Manuel Arrendondo'k eukan preboste ardura eta onek be amarrenen seigarren zatiko bat artzen eban. Onek errenta orreik Jose Domingo Otaoleagaz itunduta eukazan eta beragandik 375 errial artzen zitun.

**Eleizako "fabrika"**

Eleiz fabrika deitzen danak, amarren eta asikiñen azken seigarren zatia artzen dau, baiña Sakramentu Gustiz Deunaren eta eleizan bearrezko dan argitarako ez da orren dirutzagaz naiko, eta maiordomuak egin eta erakutsi dauan azken kontutik ikusten da gastu ori 964 errialetara eltzen dala. Origaitik ezin ipini sail onetan ezelako sarrerarik.

**Erriko sarrerak**

Erriaren sarreretarako ez dago emen taberna, ziza, pattar ez eta dendarik, ortarako etxe bakarra dagolako, Zuguzaeta deiturakoa eta bere sarrera guztia au da:.............................................300 errial

Mendietan, urteko eun karga ikatzetan araututen da, eta orain gurdiñolak geldi dagozalako, ikatzak eskabiderik ez dauka; origaitik ikatzarena, karga bakoitzeko errial baten baliatzen da.. 100 errial

**Etxeak**

Etxeen errenta, irabazi, ganaduen emaitz eta abar, onela zeaztu-

ten dira:

**Alberkakua.** Jose Uriona'rena da. Urtean emon leikena ........ 74 errial

**Pantaliongua,** J. Ant. Unzueta'rena ........ 56 erríal

**Errementarikua,** M. Jose Mallukiza'rena ........ 08 errial

**Abaitua,** Jose Orma bizi danak ........ 07 errial

**Gernikena** eta **Aritxorroaga,** Jose Ibaibarriaga'renak, 100 errentatan eta beste 10 ganaduen irabaziagaitik ........ 110errial

**Paderesuaga** eta **Ajorabide,** Joakin Mendiola'renak, urtean 126 eta beste 16 ganaduena ........ 145 errial

**Elexalde,** Ageda Lotina'renak, urteko ........ 107 errial

**Kontzejukua,** Jose Zarrabe bizi danak ........ 89 errial

**Dendarikua,** F. Larrinaga'ren umezurtzenak ........ 58 erríal

**Blasenekua,** M.ª Aurtenetxea'renak ........ 89 errial

**Txominzarrena,** ezin lei bertan iñor bizi ........ 00 errial

**Agustiñena,** Mari Jose Calle'rena, urtean 60 errentena eta beste 9 ganaduena ........ 69 errial

**Barrenkale**

**Auspogingua** eta bere albokuak, Pedro An. Alegria'renak 97 eta beste 10 ganaduena ........ 107 errial

**Elbirena,** D. Olaetxea'renak ........ 15 errial

**Maria zarrena,** Jose Arteatx'enak ........ 47 errial

**Patxikoetxea,** Madalen Auzokua'renak ........ 15 errial

**Indianesa-etxea,** Mari Alzibar'enak ........ 12 errial

**Txoperena,** Juan M. Mendibe'renak ........ 59 errial

**Ortuzar,** Jose Amezti bizi danak ........ 52 errial

**Anjelena,** Ezin lei bertan iñor bizi ........ 0 errial

**Talayakua,** Dionisio Elordieta'renak ........ 52 errial

**Mariundana** eta **Juanekua** etxeak, A. Mendieta'renak 116 errenta eta beste amabi ganduena.... 128 errial

Erri barrutik kanpora dagozan etxeak

**Urtiaga goikoa.** Jaube: Jose Joakin Gojenolea, 153 errentatzakoa eta beste 13 ganaduena ........ 166 errial

**Urtiaga bekua,** Mariano Aurtenetxe'rena, 178

errentena eta beste amabi ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 89 errial
**Arbiasketa,** Juan Amezti'rena, urtean 152 eta
beste 22 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 174 errial
**Otaolea,** Pedro Egia bizi dana, 146 urteko eta
beste 14 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 160 errial
**Uriona Etxebarria,** Domingo Uberoaga'renak,
256 errenta eta 24 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 280 errial
**Uriona Ormaetxea,** Manu Irazabal'ena, 236
errenta, 13 ganaduena eta ikatzetan 27 . . . . . . . . . . . . . . . . . 276 errial
**Loitia,** Nikolasa Abarrategi'rena, 290 emaitzena
eta beste 20 ikatzena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 310 errial
**Aldaieta** Martina Muguruza'rena, 170 emaitzena
eta beste 30 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 200 errial
**Azkarreta,** Mari Arribalzaga'rena. 267ren emaitzak,
30 ganadu irabaziak eta 28 ikatzenak . . . . . 325 errial
**Burpidia,** J. Jose Gerrikabeitia'rena, 256 emaitzak,
20 ganaduena eta 17 ikatzenak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 293 errial
**Barrenengua,** Mari Astorkia'rena, 173 errentak
eta 23 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 196 errial
**Aldakazabal,** Mari Tere Larrinaga'rena, 253
emaitzena eta 23 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 180 errial
**Beaskoa,** D. Larrabeiti'rena, 132 eta 12 . . . . . . . . . . . . . . 144 errial
**Laraondo,** Dionisio Olaetxearenak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 51 errial
**Mendiola azpikua** eta **Portale andikua,** Dionisio
Olaetxearenak, 165 emaitzak eta 30 ganaduena ... 195 errial
**Portale erdikua.** Iñor ezin lei bertan bizi . . . . . . . . . . . . . . . 0 erríal
**Juanena** eta **Antontorrena,** M. Abaitua'renak, 170
emaitzena eta 18 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 188 errial
**Okiz Ibarra,** Pedro Karlos Olaetxea'rena, 85
emaitzena eta 18 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 103 errial
**Tailluri Kurutzeko,** Juan Antonio Unzueta'rena,
149 emaitzena eta 15 ganaduena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 164 errial
**Bereziena,** Jose Ortuzar'ena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 38 errial
**Mateoena,** F. Anton Mugita'rena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 30 errial
**Errandoena,** Serafin Olaetxe'rena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 54 errial
**Portale-andi,** Cristobal Gerrikabeitia'rena, ganaduen
amar sartuta . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 95 errial
**Zubibarriaga.** Ezin lei bertan bizi . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 0 errial
**Elorza errota.** M. Tere Larrinaga'rena, bostgarren zati
bi kenduta.

**Mikola** F. Larrinaga'rena, ganaduen 8 sartuta . . . . . . . 75 errial
**Eskolakua,** J. Ajuria'rena, urtean emoten dauana. 55 errial
**Goikoetxetxuba,** Pedro Arrizarin'enak . . . . . . . . . . . . . . . . 14 errial
**Goikoetxetorre** Santi Zuzaeta'rena, emaitzena 80
eta ganaduena 10 . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 10 errial
**San Lorentzo** Jose Lamikiz'ena, ganaduen 12
sartuta . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 90 errial
**Urzila,** J.M. Mendibe'rena, 90 emaitzenaeta 17 ... 107 errial
**Kantera.** Iñor ezin lei bertan bizi . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 0 errial
**Ajenda,** Juan eta Domingo Uribe'rena . . . . . . . . . . . . . . . . . 80 errial
**Telleria buru,** Juan C. Abaitua'rena, 101 eta 12... 113 errial
**Agirreburu,** Joakin Gogenolea'rena, 98 eta 15 .... 113 errial
**Zabal Iturriaga,** F. Irazabal'ena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 80 errial
**Murzia,** J.J. Zarrabeitia'rena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 23 errial
**Laburpena:** Lur eta abere (ganaduen) emaitzak ... 6.177 errial
Ikatzetan lortua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 096 errial
Erriaren eta jaubedunen mendietatik . . . . . . . . . . . . . . . 400 errial
Amarren eta asikiñak, pentsiñoena kenduta . . . . 2.136 errial
Prebostearena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 375 errial
Sarrerak, guztira . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 9.184 errial

Kopuru orixe da Gerrikaitz erriak eta erritarrak bertako irabazi guztien autorpen lez urte aretan autortu eta emondako sarrerena.

Eta batzordeak oar au ipinten dau zerrendaren ondoren:

"Oarra. Jakin eragiten da uri onetan ez dagola lanik ez jaubetasunik zerrenda onetan agertutakoak besterik; ez dago kapitalistarik, batzordeak dakianik, ortakotzat artzeko aiña ondasun daukanik, ez merkataririk, ez artisaurik. Danak dira lurgiñak eta lurrik ez daukenak lurretako alogerekuak dira.

Jakin eragiten da baita uri onetan 1810 urtean egin zan estadistika goi-goitik jota egin zala eta erririk geiena ondatuta geratu dala, bakoitzaren oiturazko zorrak be ezin ordainduta, batez be eten barik soldadu tropak emendík igaroten dabiltzalako eta dagozan zerga (kontribuziño) andiekaitik, eta orrez gain lurreko zeregiñetarako esku-bearraren utsunea dagolako.

Origaitik batzorde onek uste dau lurren emaitza ezin leikela eldu, ez gitxiago be, esandako estadistikan iragarten zan maílletara.

Batez be gure Aldundiak jakingo al izango dau arrazoi oneik onartzen, batzorde onek bere zeregiña bete izan dabelako ezelako itsukeri eta pasiño barik.

Orrela dalako izenpetzen dakienak izenpetu dabe, 1814 urteko

Martia'ren 5'an.

Bost dira agertzen diran "firmatzen" dakienak: Domingo Ola... (ortik gorakoa ez da ondo irakurten), Jose Arteatx, Juan Jose



GERRIKAITZ PARROKIA



KORUKO KAXA

# ERRI TXIKIEN DIRU KONTUAK

Ez gara atzera asko joango.

Lengo gizaldiaren erdi aldera.

Oraingotan Arbazegi'ko eleiz-atea artuko dogu aztergarritzat.

Zelako sarrerak eukazan erriak?

Zelako urteerak, gastuak?

1851 urteko kontuen gorabera ikusi daigun.

Erriko sarrerak, zetatik?

Ardau eta pattarraren zergak, sarreren lautik iru. Eta ota eta ira saltzeen ordaiñak besteak, geienbat, erriko soloen errentak be bertan dirala.

Gastuetan be ez da igarten bizitasun andirik. Eskola maisu, idazkari eta aguazillaren alogerak eta berezi bat, Parrokian urte aretan egiten iñarduen lanetarako laguntza.

Gauza bat ikusten da, erriak ospitale eta lagun-etxe bat euki ordez, ba ekiala beartsuei zela-ala laguntzen.

Ortik kanpora beste txikikeri batzuk... eta ardaua gastuetan be. Batzarretara joate ordez, erriko-etxeko errematetara agertzearren, erriko auteskunde egunetara eta abar, ardaua bizigarri ta pozgarritzat.

Eta eskribadu eta abogaduen alogerak-txartelak, erri txikietan ain ugari izaten ziran auzietan.

Orra bete-betean erriko ardura eta kontu eroantzalle zan sindikoaren burukomiña.

Ikus daigun aztergarritzat urte orretako kontu osua. 9.529 errialetako sarrera agertzen ba da be, ikusi 5.171 aurreko urtetik etozanak zirala, beraz urteko sarrera zeatza 4.358 errialena.

Jakiña danez, liburuak eta kontuak erderaz ídazten ziran eta diru kontuan errialetan, oraindik ez egoalako pesetarik.

Guk euskeraz agertzen doguz.

1851 URTEA

Pedro Jaio, eleiz-ateko sindiku eta diru gordelariak agertzen dauan kontua.

Sarrerak

| | |
|---|---|
| 1850 urtean sindiku eta diru gordelari zan Juan Jose Otaolea gandik artutakoa, urte aretan geratutako lez | 5.171,7 |
| Ardau klaretearen zergen errematean lortua | 3.200 |
| Ardau zuriaren errematean lortua | 200 |
| Pattarra eta janari-dendetako salgaien erremata | 333,11 |
| Kanterapeko soloak erabiltearen ordez | 48 |
| Ajendako soloak erabilte ordez | 48 |
| Goiko kanterakoen ordez | 53,24 |
| Olazarra'ko ira eta otak | 8 |
| Urresolo'ko ota eta orriak | 12 |
| Barrutiondo mendiko ira eta otak | 10 |
| Erregarristi'ko kare arrioletako soloagaitik | 22 |
| Zubibarriaga'ko bide azpian egozan gaztain arbola bi | 90 |
| Eleizateko beste mendietako ira eta oten errematetan lortua | 321 |
| Erriko basoetan kalte egiten ebiltzanei ezarritako isunak (multak) | 12 |
| Sarrerak, igazko 5.171,7 errialak kontuan eukita | 9.529,8 |

Ordainketak

| | |
|---|---|
| Eskola maisuari, urteko alogera | 1.200 |
| Erriko batzordeko idazkariari, paperen ordez | 12 |
| Eskoletxearen errenta | 50 |
| Erri-etxeko idazkariari, urteko alogera | 300 |
| Idazkaritzako paperzurien ordez | 30 |
| Idazkariari, erri-zaintzako kontuak garbitu eta Bilbao'tik ekartearren | 14 |
| Idazkariari, Markiña'rako iru ostera, liburuekaz | 24 |
| Sakristauari, torreko orduaria zaintzearren | 60 |
| Sakristauari, urteko bere oiturazkoak | 11 |
| Parrokiko abadiei, urteko goraberak | 196 |
| Jose Urriolabeitia'ri, auzitegitik illero isunik (multarik) egon ete dan edo ez-eko garbitasunak ekarteagaitík | 18 |
| Erriko zaindariari (aguazillari) urteko saria | 160 |
| Bula zabaltzaille eta batzaílleari | 60 |
| Erriko sindikoari, kontu eta diru goraberak erabiltearren, urteroko | 200 |

Parrokiko maiordomuari, parrokian egiten dabiltzan

lanetarako laguntza ....... 500
A. Malax-etxebarriari, urteko Boletiñak ekarteko ....... 36,16
Urteko egunkari eta agiriak ekarte-ordez ....... 46,2
D. Urionagoenari, benetan beartsu dan bere arrebari
Urtarriletik Bagilla'ren 16 arte (eguneko errial bat) eta
andik urte azkenerarte (eguneko 28 marau) emondako
janariekaitik ....... 330,2
Boletin Oficial'a eta bere ordainketa Bilbon egitea ....... 112
D. Urionagoenari, bere arrebari 1850 urtean emondako
janariekaitik ....... 365
Erriz-erri otso bat erakusten ebillan bateri ....... 6
J. Mugira'ri, azeri bat ilteagaitik ....... 10
Erretako etxe bateri laguntza ....... 80
Zarrabe'ko atetan itxi eben umetxo bat jasoteagatik ....... 7
Idi probetarako arri bat San Pedro'ko zelaira eroate ordez . . . . 16
Bolibar'eko ebaketari (zirujanu) ari, alkateak deitutako baten.. 44,17
San Gregorio'ko letañara joan ziranei, oitura dan lez emondako
pattarragatik ....... 11,26
Urte barri egunez erriko etxean urteko kontu eta goraberak
jakiten joan ziranei eta errogatibetan ibiliei ....... 250,8
1849 urteko kontuak Probintziko Gobernutik ekartea ....... 8
Erriko ordezkariak batzarretan eta euren zeregiñetan egindako
gastuak ....... 174,24
Erriko ordezkariak aukeratzeko eguneko gastuak ....... 71,17
Erriko ordezkariak Gernika'tik Gipuzkoako mugarako bidea
egitean ango ordezkariekaz egindako gastuak ....... 23,17
E. Baskaran idazkariaren alargunari, erri onetako idazkaritzan
egindako aloger eta tresnekaitik ....... 434,11
J. Zenika-Onaindia'ri karabiñeruen tresnak Zornotzara eroaten
egindako ostera bigaitik ....... 24
Erriz erri eroiezan baitu (preso) pobreei emondako janariekaitik 14
Zubibarriagako gaztain arbolak saldu ziraneko alogerak ....... 8
Aguazilla'ri J. Bermeosolo'ri auzitegirako deia eroatearren ....... 3
Sindikoari, Baskaran'en alargunari bere gauzak
eroaten Markiña'rako osterea ....... 8
D. Urriolabeitia'ri, Otxandategitik Zubikoa'ra bidea
konpontzen, kuneta atara eta Urretxagaondoko zubitxoa
zaintzarren ....... 71
Aurrekontuetako betegarriak ....... 4
Mendiekaz baliatzea dala-ta Ziortzako etxe batzuekaz
eukitako auzietako gastuetarako, Gernika'ko Belaustegi

abogaduari irurogei eta Apoita'ri beste zortzi barruan sartuta 140
D. Zuzaeta'ri, Manuela Urionagoenaren alikatzea eleiz-ate
onen kontu zan edo ez aolkatzea ............................................ 4
Alkateari, iru ostera Markiña'ra, eta J. Gerrikaetxeba-
rriari Gipuzkoarako bidea zala-ta aolku eske, beste
ostera bat ................................................................... 56
J. Totorikagoenari, bere etxe aurrean jarritako arri bategaitik .... 4
M.A. Kareagari, Zarrabe'ko atetan jasotako ume bat euki
eban denboragatik ........................................................... 5
J. Urionagoena'ri, iru egunetan karabiñeruak bere etxean
eukiteagaitik ................................................................. 4
F.I. Ibieta'ri, eskribadu lez egindako lanekaitik ...................... 118
Jose Mari Mendiolea'ri, "El Faro de los niños"en
arpidegatik eta azken gerrateko zerbitzuen kontuen kopia
bat atarateagaitik ........................................................... 26
J.J. Lekumberriri Markiña'ra ostera bat, R. Maguregi'ren
lapurreten auziak eroatera .................................................. 8
B. Lekumbarri'ri, bere etxean karabiñeruak eukitearren ........... 6
Ordainketak, guztira ............................ 5.365,4

Ikusi daikenez, aurreko urtean geratutako txortatik ia milla errial gastatu ziran, urteko sarrerak 4.357,2 errialenak izan ziralako.



**ALDOLA AZPIKO**

# ONDASUN ASKATZAILLE (DESAMORTIZAZIÑO) LEGEA

Lengo gizaldian, Napoleondarren denboretatik asitako ondasun-askatzaille legearen ondorenez (desamortizaziño legearen eragiñez) Gerrikaitz uriak eta Arbazegi eleiz-ateak be igarri zituen urteak urte lege orreik sortutako eragiñak eta ondorenak.

Lenengo urteetan ez da ezagutzen emengo paperetan, oizko mezu eta aginduak besterik.

Estu bai ibili ziran aldi aretan konbentuetan bizi ziran monjatxoak, euren dotetzakoak eta bestelako sarrerak, era batera edo bestera bizigarri ziurtasunerako banatuta eukezanak kentzen eutsezalako. Eta auzi eta burukomin bardiñak euki zituen fraileak, eta oneik monjak baiño geiago askotan, ordena askotako fraíleak euren konbentuetatik kanpo bizitzera beartu ebezalako eta orrela gaitzago ebelako ondasunak zaintzea.

Kontu egin Bizkaia'n 1809 urtean fraileen amalau konbentu egon zirala eta ogetalau monjaenak.

1837 eta 1839 bitartean, ainbat konbentuen ondasunak astindu ziran, baiña orrek ez eban euki eragiñik ez Arbazegi eta ez Gerrikaitz'en. Emen Ziortzako Kolejiatagaz erantzukizun batzuk egonarren, jaubetasunari buruz, konbentuen jaubetasuneko lez, Totorika jauregi izan zan, Markiña'ko Mertzedeko monjaena, eta gero, 1867 urtean egin ziran emengo errematetan, parrokiaren jaubetasunezko lez saltzera atara zan.

Jakiña danez emen erri bakoitzak bere parrokia eukan, eta 1851 urtean, parroki bakoitzeko abadeak mugatu ziran.

Urte aretan, 1851 urtean, Gerrikaitz'eko Andra Mari parrokiak berreun eta ogei (220) "arima" eukazan eta abade bi ezagutu yakozan euren zerbitzurako.

Arbazegi'ko San Bixente parrokiak irureun eta irurogeita amar (370) "arima" eukazan eta iru abade ezagutu yakozan.

Eleizearen jaubetasunetan, 1862-1868 bitartean aurkitzen dira legearen ondorenen eragiñak.

Ara "desamortizaziñoko" legearen araberan parroki bakoitzari saldu eragindako ondasunak:

ARBAZEGI'KO SAN BIXENTE PARROKIKOAK

1867'ko-VI-21 'ko errematean:

Solo bi, Santa Eufemi ermita inguruan.

Solo bat Aspizal ermitan (Paperetan San Franzisko ermita aitatzen da, baiña izen orretako ermitarik ez da ezagutu Arbatzegi'n, eta toki orretan San Lorentzo izenekoa zan, gaur galdua).

Solo bat, San Migel Ermitan.

Etxe bat Santa Luzia'ko ermitañoarena, padarrarena.

1867'ko-VI-25'ko errematean:

Totorika jauregi izeneko etxea, abadeena.

GERRIKAITZ'EKO ANDRA MARI PARROKIKOAK

1867 'ko VI-21 'ko errematean:

Abadeena zan solo baten zati bi.

Eleizaren aurrean egoan bola tokia.

(Datu oneik Jose M.ª Mutiloa'ren "La desamortización en Vizcaya" liburutik atara dira. San Franzisko konbentuari buruzko azalpena, gurea da).

BESTE "TRATU" BATZUK

31-X-1863

"Hambre'ko benta" izeneko etxe erdia bere sei lur zatigaz.

(Gerrikaitz'ena)

31-X-1863

"Hambre'ko benta" izeneko etxe erdia.

31-X-1863- "Iztagorri" izeneko mendia, 353 area, 83 m.$^2$ eta 18 zentrimetroduna.

(Gerrikaitz'ena)

OKIZ

Okiz'ko ariztiak 49.896 estadu eukazan. Irureun eskudotan tasatu zan eta 135 eskudotan domutu (kapitalizatu) bertan egozan 18 aritz-motx eta beste 10 pago sartuta.

# 1886'URTEKO LEGEA

1886 urtean Madrid'etik agertutako Udalei buruzko legeaK, eta 1867'ko Urrilla'ren 23'ko Errege ordenak, euki eikeen eragiña Gerrikaitz eta Arbazegi artean.

Zegaitik?

Lege orrek agintzen eban berreun auzokide (bezinu) ez euken udalak, auzoko errien bategaz alkartu bear zirala, Udal bakar bat osotzeko.

Lege orren ikutuan gertatzen ziran Arbazegi (eleiz-atea) eta Gerrikaitz (uria).

Arbazegi'k 157 auzokide eukazan urte orretan eta Gerrikaitz'ek 72.

Bien artean berreun eta ogei ta bederatzi auzokide (229). Aukeran gertatzen ziran legerako.

Bizkai aldean ainbat erriri ikututzen eutsen lege orrek. Eta bete-betean makurtzen zitun Bizkai'ko eleiz-aterik geienak. Eten egiten eban euren gizaldietako bizitza. Ez ori bakarrik, Gernika'ko Batzarretako erabide guztia ezereztuta itxi, Bizkaia'n, eleiz-ateen izakera, andi nai txiki izan, jatortzat artzen zalako.

Gernika aldeko eleiz-ateak izan ziran lenengo asarretu eta gora-goraka asi ziranak. Aldundia bera, Diputaziñoia bera, lege orren aurka jarri zan.

Lege ori betetekotan, inguru onetan ainbat erri alkartu bearko ziran.

Ala Nabarniz eta Ereño.

Morga eta Errigoiti.

Murueta, Kortezubi eta Foru.

Arratzu eta Mendata,

Gizaburuaga eta Murelaga,

Amoroto eta Mendexa.

Eta zer esanik ez, Arbazegi eta Gerrikaitz.

Zenbat bizi lagun eukazan orduan, esateko, Arbazegi'k eta zenbat Gerrikaitz'ek?

Kontuan artu legeak auzokideak (bezinoak) esaten ebala, eta ez bakoitzeko bizi-lagun guztiak.

Ala Arbazegi'k 770 bizilagun eukazan, baiña 157 auzokide.

Eta Gerrikaitz'k, 432 bizilagun, baiña 72 auzokide.

Ezin ukatu zerbait gertatu zala, Arbazegi eta Gerrikaitz lako erri txikiak, ezin bizi ziralako gauza asko nai ta ez komunidadean eroan bearrean aurkitzen ziranak, mendi eta abar be batasunean eroaten zituenak, lege orregaz itsu-itsuan ez baliatzeko.

Izan lei Gernikako batzarren inguruan lege orrek euki eban aurkako eragiñak erriei ikututea. Izan lei forutasunaren arra berotu eta aurka jartea.

Ez da igarten iñor baliatu zanik. Erririk geienak bete-betean aurka jarri ziralako.

Ba dirudi bigarren karlista gerrak bertan bera galdu eragin ebala asmo ori.



**GERRIKAITZ PARROKIA**

# ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ ALKARTASUN BIDEAN

Itxuraz, Arbazegí eta Gerríkaítz'ek, erri bi zirala, sarri eukiten zituen alkar arteko asarre txikiak.

Geiagotan bestelako auziak, bakarrik egin edo bete ezin eta alkarren laguntzan egin bearrekoak.

Orrelakoetan, erri biak edo bietakoak batzeko, Zubialde zubian batzen ziran, an egoalako bien muga, alkarri erakutsi nairik ez zirala bata bestea baiño geiago ez gitxiago, nai ta alkarren premiñan sarri aurkitu.

Orrelako zerbait gertatu zan 1882 urte inguruan. Jakiña, orrelako batzarretara eltzeko, aurrez giroa egokitu bear izaten zan eta ez zan bat-bateko gertaerako batzarra egiten.

Aldi aretan erriak beia jota egozan. Beste erri askotan bardintsu gertaten zan. Gerratetako zorrak eta ondorenak lepoan eukezan, ezin jasota. Eta Aldundia bera (Diputaziñoia) errietatik dirua artzeko gertuago egoan, emoteko baiño.

Urte areitan asiak ziran erri txikiak be umien eskola eta eziketaz arduratzen, eta ezin ziran eldu maisu bat ordaintzera.

Orrelako estutasunak eraginda azi ziran erri biak gizon-onak aukeratu eta eurok artu-emonetan ipiniaz zerbait egiten, eta alako baten be erri biak osorik alkartzea erabagi eben, baiña bat bai eta bestea ez barik, etxe guztietara deitu eta erri osoen batzarrean.

Aurrez eskatu zan baimena Gobernu zibillera, ordurako gobernadoreak asita egozalako Euskalerrian be. Eta baimena lortu ondoren erri bien arteko batzar orokorra egin zan Zubialdea deiturako tokian.

Orduan, batzar aretan, Arbazegi eta Gerrikaitz'eko alkate ziranak berba egin eben, alkarren arteko kontu garratzak eukezanetan lez batu zirala eta libertade guztiagaz erriei euren egoera larria adierazi gura eutsela esanez.

Zoritxarrez ez Arbazegi eta ez Gerrikaitz'ek ez eukela umientzako lenengo maillako eskolei eusteko dirurik. Or egozala zarrak eta gaiso ezeukiak be, eta euren laguntza eta osabidea emon edo orretan lagundu eikien osagillentzat be ez eukela nundik emon, eta orrelako lanak alkartasunean eroanda, errezago zala erri bientzat batera jokatuta eroatea, batek ezin ebana biren artean al eikelako.

Berba gitxitan esanda, bearrezko zala erri biak batu eta alkartuta jokatzea.

Orretarako erri bietako agintariak bakoitza bere udaletxe eta kontzeju etxetan batu zirala illaren seian eta orduko agiriak an eukezala, eta orrez gain erri bietako kontuak be agertu zituen bertan.

Eztabaida luzea egon zala, diñoe orduko paperak, eta ondoren batzorde bat sortu zala erri bietako kontuak aztertu eta erabagiteko.

Batzar aretan, erriko geienak batu ziran, alkateak buru zirala eta orduko paperetan izen onei, agertzen dira:

Martitegi, Jose Domingo,
Uberuaga, Domingo Iñazio,
Zuzaeta, Juan.
Olano, Iñazio.
Zarragoikoetxea, Manuel Antonio.
Urionabarrenetxea, Pedro Jose.
Lamiikiz, Beniño,
Mendiguren, Agustin,
Gandarias, Jose Manuel,
Urriolabeitia, Manuel,
Gonzalez, Eusebio,
Uriarte, Franzisko,
Urionabarrenetxea, Kristobal,
Gerrikabeitia, Franzisko,
Irazabal, Jose Manuel,
Bollar, Migel,
Belaustegi, Kristobal,
Belaustegi, Juan Jose,
Urionaguena, Manuel,
Aldaolea, Manuel,
Ajuriagoikoa, Franzisko,
Gerrikabeitia, Plazido,
Orueta, Domingo,
Irusta, Plazido,
Amesti, Jose Mari,
Belaustegi, Eugenio,
Mallea, Jose Domingo,
Mendibe, Jose Martin,
Etxebarrieta, Pedro Juan,
Jaio, Iñazio,
Gerrikaetxebarria, Jose,

Zabala, Juan Domingo,
Gerrikabeitia, Juan Domingo,
Rementeria, Jose Iñazio,
Arubitarte, Jose Iñazio,
Goikoetxea, Lukas,
Jaio, Franzisko,
Zalutregi, Agustin,
Zabala, Bitor,
Arteatx, Leandro,
Jaío, Iñazío,
Urionaguena, Juan Jose,
Bilbao, Bitor,
Zuazo, Agustin,
Uberiaga, Pedro Jose.
Zabala, Pedro,
Uriguen, Bautista,
Zalutregi, Bitor,
Bereziartua, Martin,
Lekumberri, Iñazio,
Mintegi, Juan Jose,
Andrinua, Iñazio,
Zenarruzabeitia, Pedro Antonío,
Jaio, Jose Manuel,
Kareaga, Franzisko,
Uriarte, Jose,
Zuzaeta, Jose Iñazio,
Uriarte, Agustin,
Urkiola, Kristobal,
Larrinaga, Jose,
Onaindia, Jose Joakin,
Altamira, Iñazio,
Totorikaguena, Jose Franzisko,
Irazabal, Juan Antonio,
Armaolea, Vicus,
Ituarte, Franzisko,
Kareaga, Juan Jose,
Otaolea, Juan Jose,
Bilbao, Asentzia,
Ituarte, Jose,
Abaitua, Domingo,

Llberuaga, Pedro,
Batiz, Bautista,
llarraga, Juan Jose,
Olabarria, Jeronimo,
Martitegi, Juan Antonio,
Solozabal, Franzisko,
Amesti, Jose Julian,
Zuazo Juan Jose,
Mallukiza, Juan Antonio,
Olano, Juan Mari,
Mendiolea, Iñazio,
Aldaolea, Jose Bizente,
Cenika-Onaindia, Juan Cruz,
Olano, Franzisko,
Intxaurraga, Manuel,
Arriaga, Jose Mari,
Abaitua, Kristobal,
Agirre, Jose Domingo,
Laspiur, Jose,

Zabalbeazkoa, Pedro Juan,
Solozabal, Segundo,
Zabala, Domingo,
Mallea, Jose,
Urionaguena, Joakin,
Egurrola, Manuel,
Uriarte, Juan Tomas,
Batiz, Jose,
Irusta, Franzisko,
Eguren, Pedro,
Lejardi, Benantzio,
Intxaurraga, Migel Mari,
Maguna-Zelaia Juan Antonio,
Mendiolea, Juan Antonio,
Onaindia, Jose Antonio,
Jaio, Migel,

Zuzaeta, Jose Domingo,
Abaitua, Joakin,
Olabarriaga, Jose Domingo,
Azpiazu, Jose Mari,
XX Iñazio,

Ansotegi, Juan Tomas,
Irazabal, Jose Franzisko,
Mintegia, Antonio,
Larrinaga, Manuel,
Olaetxea, Dionisio,
Etxabarrieta, Luis,

Eta beste ainbat, diño paperak, euren izenik aitatu barik.

Eta batzarra amaitu zanean, izenpetzen (firmatu) ekienak egin ebela, eta besteekaitik erri bietako idazkariak ziurtatu.

Orra, ikusten danez, erri bien batasuna lortzeko egindako batzar orokorra, eta esan lei, alkartzeko gogoa bizia zala, geroago laster egin eta bete ziralako bearrezko batzar, agiri eta abar.



**ELEIZA**



TXORIXENA



GERRIKAITZ



**EUSKAL FEDEAREN AGIRI BAT**



**ABADETXE**



BARRENEAGOA



GERRIKA GOITIA

# BI BAT EGIN ONDORENGO LENENGO BATZAR AGIRIA

1883 urteko Apirillaren 13 garren eguneko eguerdiko amabietan ospatu zan alkartu ondorengo lenengo batzar ofiziala, Arbazegi eta Gerrikaitz erri bakar lez ezagutuaz, bertako lenengo Udala aukeratu eta izentatu zan batzarra.

Euskeratuta agertzen dogun batzar agirian irakurten dira bertako izentapen eta alkate makillaren jaubetasuna emote eta orrelakoetan oi diran bete-bearren goraberak,

Agiria irakurriaz irakurlea erraz konturatuko da egun aretako kontuekaz.

FJATZAR AGIRIA

Erri alkartuen arteko lenengo udal batzarreko agiria, Bízkaiko Aldundiak Azilla'ren 25'ko batzarrean erabagitakoaren araberan.

Arbazegi eta Gerrikaitz'eko Batzar-etxeko aretoan, 1883ko Apirillaren 13-ko eguerdiko amabietan, Bizkaiko Gobernadore Zibilla dan Antonio Pirala jaunak il onen amarrean bialdutako mezuko agindua beteaz, Gobernadore berbera lendakari zala oraiñarte Arbazegi eta Gerrikaitz'eko udaleko alkate eta ziñegotzi izanak batu ziran.

Batzarra zabaldu eta Batzar buruak, esaldi laburretan azaldu eban batzar onen zegaitia, au da, Bizkaiko Aldundiak azkenengo Azillaren 25'an artutako erabagia betetzea, udalerri biak alkartu eta Arbazegi eta Gerrikaitz erri lez jardun al izateko lenengo udal batzarra osotzea, Udal-legeak agintzen daben arabera.

Idazkariak irakurri zitun lege orretako atalak, bai eta Bizkaiko Aldundiaren erabagia be.

Era berean irakurri zitun galtzen ziran udal bietatik udal bakarrean sartzeko deitutako gizonen izenak eta euren artean zozketa egin ondoren, bederatzi geratu bearziranak udal barriko batzarra osotzeko, era onetan geratu zíran: Jose Domingo Martitegi, Domingo Iñazio Uberuaga, Iñazio Olano, Manuel Urriolabeitia, Eusebio Gonzalez, Jose Manuel Gandarias, Agustin Mendiguren, Pedro Urionabarrenetxea eta Manuel Anton Zarragoikoetxea.

Ondoren Gobernadoreak agindu eutsen esandaKo ziñegotziei alkatea aukeratzeko, legeko 49 atalaren eta ondorengoen araberan.

Kutxa atara eta ziñegotziak euren txartelak sartzen joan ziran eta zenbatu ondoren onela geratu ziran: Jose D. Martitegi'k bost autarki (botu) eta Domingo I. Uberuaga'k lau. Ori orrela alkatetzat Jose Dorningo Martitegi geratu zan eta alkate ezaugarriak emon jakozan.

Ondoren gobernadoreak agurtu eta zoriondu eban, bere lan eta zeregiñerako aolku batzuk emonaz, erritarrei eskatuz alkartu eitezala, bakoitzaren gurari eta ondasunen gain erriarenak ipiniaz, ori zalata erriaren ona lortzeko bide bakarra.

Jarraian, legeko 56 atalean esaten dana beteaz, Alkate ordekoaren aukeraketa egin zan eta ao batez, lenengo ordezkotzat, Domingo Iñazio Uberuaga izentatu zan eta bigarrentzat Manuel Anton Zarragoikoetxea. Eta bi oneik alkatearen albo banatan jezarri ziran.

Legeko atal berbertan agintzen dana beteaz mai buruak esan eban sindikoa aukeratu bear zala eta legeak baimena emoten ebala bat edo ala gura ezkero, sindiku bi aukeratzeko. Danak esan eben naiko zala bakarra eta orretarako Manuel Urriolabeitia aukeratu zan ao batez.

Ondoren, 1872 urteko Bagilla'ren 27'ko Errege aginduak esaten ebana bateaz, ziñegotzien (kontzejalen) aginte ordena zeaztu zan, eta ortarako Pedro Urionabarrenetxea geratu zan lenengotzat, Eusebio Gonzalez bigarren, Jose Manuel Gandarias irugarren, Iñazio Olano laugarren eta Agustin Mendiguren bostgarren.

Aukeraketa orrein ondorenez, Udal barria, Arbazegi eta Gerrikaitz alkartu ondorengo lenengo udal batzarra onela geratu zan:

Alkate lendakari: Jose Dgo Martitegi.

Lenengo ordeko: Iñazio Uberuaga.

Bigarren ordeko: Manuel Anton Zarragoikoetxea.

Ziñegotziak: 1.- Pedro Urionabarrenetxea.
2 - Eusebio Gonzalez.
3 - Jose Manuel Gandarias.
4 - Iñazio Olano.
5.-Agustin Mendiguren.

Sindikoa: Manuel Urriolabeitia.

Gero, legeko 59 atala beteaz, udal batzarrak noiz egin erabagi bear zan eta ortarako martizenak eta barikuak izentatu ziran.

Geiagoko barik batzarra amaitutzat emon zan.

Batzar agiria, danen ondoren, Pedro Gerrikagoitia bein-beingo idazkariak izenpetu eban,

Esan bearreko da lenengo Antonio Pirala gobernadoreak eta

alkateak eta beste laurek izenpetuta dagola. Baiña Zarragoikoetxea, Gandarias, Olano, eta Mendiguren'en firmak falta dira. Ez da esaten zegaitik.

## BATZAR AGIRIKO AKATSAK ETA ZALANTZAK

Gauzak orrela, zalantzan geratzen da bat batzar agiri au Arbazegi -Gerrikaitz'eko idazkari berberak jasota dagonik, edo arek jasotakoa danik.

Zegaitik?

Batzar onetako agiri bi dagoz Batzar Agirietako liburuan, bata bestearen ondoren.

Bardintsuak dira zati batzutan; bardiñak ez osotasunean.

Baten, bertako idazkariaren eskua igarten da, aurretiko batzar agirien idazkera eta tajua ikusita. Bestea, beste norbaitek egiña edo idatzia da.

Baten, alkatearen aukeraketa egin ondoren, Gobernadoreak alkateari agintea emon ondoren, alkateak eskerrak emon eutsezala aukeratu ebenei, eta bere aldetik erri bientzako laguntza eta babes osoa emongo ebazala agindu ebala, eta batzartuak benetan ondo ikusi ta artu ebezala eskintza orreik esaten da.

Bestean, bigarrenean, itzulita emen agertu dogunean igarten dan lez, ez da ezer esaten alkatearen agerpen onei buruz, eta ordez baí Gobernadoreak esanak eta bere itzak eta aolkuak bereiztu.

Gañera, lenengo agiriak orri bi beteten dauz eta amaitu barik geratzen da ta igarten da Aktetako liburuan urrengo orria ebagita, kenduta dagola, eta ondoren guk itzuli dogun beste agiria sartu. Eta au bai, bear lez amaitu eta izenpetuta geratzen da.

Jarraian agertzen doguz agiri bien fotokopi zatiak eta argi ikusten da idazle ezbardiñak egiñak dirala.

Zer gertatuko zan?

Bear ba da gobernadoreari atsegin jausi ez lenengo egin zan agiria eta beste barrien bat bere esanetara Bilbon egin edo orrelakoren bat ziurretik, orduko politikako txikikerien barriak orretara pentsatera eroaten gaituelako.

Ori uste bat da. Gaurkoz, aidean geratzen da beintzat, bestelako ziurtapenik ez dalako aurkitzen.



TXOKO



ALDOBERRIAGA JOSE BITORRENA

# JUAN DELMAS ETA ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ

(Delmastarrak Italiatik etorri ziran Bizkaira. Juan'en aitak "El Vascongado" egunkaria sortu eban Bilbao'n. Gaur euskeratuta agertzen dogun lan au Juan Eustakio'rena da, Bilbao'n 1820 urtean jaioa. Onek, beste gauzen artean 1864 urtean argitaratu eban "Guía Histórico Descriptivo del viajero en el Señorío de Vizcaya". Liburu orretakoak dira jakingarri oneik).

ARBAZEGI

Busturia merindadeko eleiz atea. Iparralde eta Sorkaldetik mugak daukaz Ziortza eta Murelaga'gaz, eta Ego eta Sarkaldetik Gerrikaitz uriagaz eta Mendata eleiz-ateagaz. Bere mugak iru leguako inguru dauka, aldapatsu eta menditsu, eta bertan sartzen diran mendartetan, ia erdi aldean, Oiz'en jaioten dan erreka bat igaroten da, Lekeitio ibaiaren sortzaille dana, arrizko sei zubien azpitik igaroten dala.

Aberatsa da larrezoro, baso, zelai eta iturrietan. Onein artean Urueta eta Uribai deiturakoak, miñeral-mitriola-garbiak dira.

Bilbao'tik sei leguatara dago, eta Lekeitio'tik irura. Bere basetxeak Gerrika-Uriona, Arbazegi, Munditibar, Totorika, Aldaka eta Berreño'n zabaltzen dira. Zazpireun eta irurogeitamar (770) arima bizi dira bertan, eta Gernikako Batzar Nagusietan XXVI garren boto eta jarlekua eukan.

Arbazegi'ko mendi-besanga eta mendi-bizkarretako Iparraldeko maldan oraindik igarten dira bere lenengo eleizako ondorenak. San Bixente martiriaren izenekoa zan, uste danez, X garren gizaldikoa, eta oargarri da arri landuaz egindako bere alboko ate gotikoaren edertasuna.

Izen bereko beste parrokia dago, 1545 urtean jasoa, Motrollo mendiko eguerdi alderako maldan. Eun (100) oin daukaz luzeran eta 30 zabalean, iru aldara eta illobi bat, baiña zeru barik. Torrea 1725 urtean egiña da eta kanposantua dauka ego aldera. Eta bere barrutian bederatzi ermita daukaz, euretariko batzuk, Munditibar'eko San Pedro lez oargarriak.

Errekak burdiñola biri eta bederatzi errotei emoten dautse indarra; igeltsu obi bat dago Barreño-Bengoetxearen lurretan, eta etxe entzutetsu ta andikiak, euretariko batzuk 1376 urtean Gerrikaitz'egaz alkartu ziranak eta gero 1630 urtean bertatik urtendakoak. Etxe onein izenak: Munditibar izendunak, Jauregi, Zubialdea, Zubikua, Totorika, Aldaolea biak, euretariko bat Santxo Mandalbeak 1100 urtean irazia eta bestea Aldaolea'ko Gonzalo'k 1246 urtean, Goikolea, Garro eta Bengolea, Santxo berberak 1080 urte inguruan jasoak.

Castilla'ko Alonso eta Gaspar de la Peña'k diñoe (biak Juan Iñiguez Ibarguen'ek bere Crónica general española y Sumario de la Casa Vizcaina'n, Santxo Mandalbea au Castilla'ko Santxo II garrenaren kapitan alegintsu bat izan zala, Fardomina bere senide bategaz ezkondu eta bere jarraitzailiekaz Bizkai'ra etorri zala, emengoak frantzetarren aurka gerran ebiltzalako, eta euren gudalburu zan Arnaldo Papin menperatu ebala Ilundona'n, Zubibarriaga'ren inguruan, Gastiburu eta Motrella mendien barrenean.

Bilbao'tik Lekeitio'ra duan errepidea Arbazegi'tik igaroten da; beragaz lotzen da Durango'koa Etxano'n, eta Zugaztieta'n batzen diran era onetako bidean sare bitartez, Jaurerriko uririk aindienekaz alkartzen da.

## GERRIKAITZ

Oiz mendi barreneko ipar alderako ibar estu baten, Oiz mendi besangan jaioten dan Lekeitio ibaiaren ezkerraldean irasi eban don Tello kondeak 1366 urtean Miranda de Ebro'n izenpetutako mesede bitartez uri bat, Munditíbar izenez, lurralde zabalak emonaz, ipar eta sorkaldetik Arbazegi'ko eleiz-ateagaz mugatzen ebenak, sarkaldetik Mendatagaz eta ego aldetik Durango'ko merindadeko Berriz eta Garai'gaz.

Uri onetako bizi lagunei emon eutsezan baita zortzi baserrietxe, Arbazegi'ko San Bixente Monastegiaren menpeko ziranak, Uriona-Ormaetxea, Uriona-Etxebarria, Otaolea, Aldaieta, Loitia, Barrenengoa, Askarreta eta Totorika-Burpidea deituak, eta beste mesede batzuk, lur lauetako bizilagunak uri barriak emoten eutsezan aurrerakuntzekaz baliatzera suspertu naian.

Orrelaxe egin eben euretatiko askok, Bolibar eta Arbazegi'ko zentzutako ziran batzuk lez, 1402 urteko Uztailla'ren 25'an egindako idazki baten agertzen dan lez, baiña euren oiñordekoak damututa, ia

gizaldi bi igaro eben itun ori apurtu naian, eta Arbazegikoak ziranak lortu eben uritik banatzea 1630 urtean Endika IV'k emondako agiri bidez, aurrez 50 dukat zidarrezko ordaindu ondoren, barriro lenagoko eleiz-atera biurtuaz.

1654 urtean banatu ziran Gerrikaitz uri eta Arbazegi, Ziortza eta Bolibar'eko eleiztarren artean, uria sortu zanetik besteekaz osotara baliatzen zan larre-zoroak, eta konponketa bat egin zan lau erriena zan Oiz'ko San Kristobal ermitan.

Oneitako abadeak txandaka mezak eskeiñi arren, alkate eta agintariak makillak tente daroezala agintari nausi lez joaten dira bertara santuaren jai egunean.

Alderantzi eta banaketa oneik lagunak banatu baiño lentxuago uriak eukitako zoritxarren ondorenez etorri ziran. 1628 urteko Urtarrillaren 1 'an sute ikaragarri bat egon zan, kale oso bat erreta geratuaz, eta besteak ez ziran erre orma luze eta gogor bat egoalako bere inguruan; 173Tko Irailla'ren 6'an barriro sua eta aurreko gizaldian baiño gogorrago oraindik. Ez zan arrigarri orrelakoak gertatzea, Gerrikaitz industri askodun uria zalako, bertan 30 errementari baiño geiago egozala tresna, ultze eta perrak egiten zituenak, Castílla'tik eskabide andia eukenak, eta alaz eta be etxerik geienak egur utzezkoak ziralako.

Arrezkero bere industria beratzen joan zan, eta bere biztanlegoa eten barik gitxitzen igarri, 27 etxetan geratuaz, eta etxetarako geratzen ziran orubeak be ortuetan biurtu ziran.

Gaur uri au Bizkaitik pobreena da eta 432 bizilagun daukaz bakarrik.

Andra Mari izeneko parrokia dauka, oso on eta egokia, barrienbarri egiña bertako seme esku-zabal batzuen kontura; Jesus Gurutzetuari eskeiñitako otoiztegi bat ospital etxean; eskoletxe ona; janari denda, errota bat, ostatu bi eta ur ederdun iturri bat.

Bertako egal batetik Bilbao'tik Lekeitio'rako bidea igaroten da. Bílbao'tik 6 leguatara dago eta Gernika'ko Batzar Nagusietan 16 garren jezarlekua dauka.

Bere ingurua aberatsa da, ganaduentzako mota guztietako janaritan; ondar arri-ola on onak daukaz etxe eraikintzarako, eta arto, gari, gaztaiña, intxaur eta indiarrak artzen dira bertan.



GUNENGOA'KO ZUTABEA



MENDIOLA'KO ZUTABEA



ZURUETAKO ZUTABEA



GERRIKAITZ OROITARRIAK

# ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ, MADOZ'EN IKUSPEGIAN

Pascual Madoz naparra zan, Iruña'n jaíoa 1806 urtean eta Genova'n il zan 1870 urtean.

Politikaria. Alderdi progresistakoen tarteko izan zan eta España'ko gobernuetan kargu garrantzitsuak euki zitun.

Bere lanen artean Diccionario-Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus Posesiones de Ultramar izenekoa gertu eban. Onetan ogei lagun erabilten zitun lanean.

Liburu ori amasei tomotan banatuta agertu zan. Bizkaiari buruz 11.688 orrialde bete zitun (amaika milla seireun eta larogei ta zortzi orrialde).

Guk Arbazegi'ri buruzkoa eta Gerrikaiz'eri dagokiona argitaratu-ko doguz emen.

Bere zeaztasunak eta esaerak irakurtean, kontuan eukí 150/160 urte inguru batuak dirala.

## ARBAZEGI

ARBAZEGI, (Munitivar edo Munditibar be deitzen da). Eleiz-atea, udaletxeagaz, Bizkai'ko probintzian (Bilbao'ra 6 legua), Calahorra'ko gotzaindegira (30 legua), Burgos'ko Lurralde Auzitegi menpeko (30 legua), Euskalerriko Kapitani nagusira (10 legua), inguruko auzitegiz, Markiña'kora, (legua bi).

Oiz, Atxagana, Motrollo, Gaztiburu eta Gautiribil mendien arteko lautada baten dago. Giroa: Otza eta osasuntsua. Eun (100) etxe daukaz auzoetan zabalduta. Oneik dira: Aldaka, Arbazegi, Berreño, Goxenola, Munitibar, Totorika, Zuzaeta eta abar; udaletxea dago eta eskola, bi milla errialez ordaindua. Eskolara 60 (irurogei) ume joaten dira.

San Bixenteko eleiza Arbazegi'ko tontor baten egoan, gaur San Migel'en ermita dagon tokian, baiña noiz jausiko egoalako Munditibar auzora aldatu eben, orretarako auzotarren asarre eta ezin ikusiak gainditu ondoren; gaur eleiza au zati batekoa da, 100 oin luzeko eta 39 zabal; gaiñera, kanposantuaren gain, 52 illobi dau-kaz barruan eta Munitibar jauregiaren obitegi bat. Iru abadek serbi-duten dabe, euretako bík arimen ardura daukela, eta sakristaua be abadea da, eta betiko izentapena dauke, eta Eulogio Ramon

Larrínaga patroiak eskatuta izentatzen dira. Beste 8 ermita dagoz, esandako auzoetan banatuta. Erriak, kilometro batera, iparraldetik, legua batera, Murelaga dauka mugatzat; Sorkaldetik, eta bitarte bardiñera, Ziarrotza eta Bolibar'egaz mugatzen da; Iparraldetik, legua erdira Gerrikaitz'egaz eta sarkaldetik, legua batera, Mendatagaz. Bertan dagoz emengo etxe-oin diran Aldaolea goiko eta bekoa, Garro, Goikolea, Gojeazkoa, Totorika, Jauregi, Zubialdea, Zubikoa eta Bengolea, azken au 1080'n sortua. Lurra latza da, aldapatsua erdizkaka emonkorra eta lanerako beti be gogorra. Marraya erreka igaraten da bertatík zear, Marraxo zubian sortzen dana, eta Gerrikaitz'en eskumatik zear dua, Arbazegi'ren erditik igaro, eta Murelaga'n eskumatik zear, Gizaburuaga igaro eta Lekeitio'n itxasoan sartzen da, aurrez Goikolea, Garro, Olaetxea, Zubialdea eta Zubibarriaga'ko zubien azpitik igarota Arbazegi eta Gerrikaitz'eko lurretan, Zelokiz eta Auzidor Murelaga'n eta Ingunza Lekeitio'n.

Gernika'tik Markiñarako bideak erdizkakoak dira eta ointxe dabiltz egiten Munieta'tik Lekeitio'rako bat; emendik artzen da korreoa, Durango'ra joaten dan bidazkari baten bitartez. Garia artzen da bertan, eta artua, sagarrak, gaztaiñak eta ortuari batzuk; abelgorriak asten dira, ardikiak eta zaldiak; erbi, ollagor eta zozoen eiza dago, bai eta amuarrain, aingira, ugadera eta eskalluen arrantza be; zazpi urun errota dagoz. Abelgorriak gizendu eta loditzen dira.

Eun eta amairu (113) auzolagun; 700 arima; eta datu ofizialen araberan 700 arima ofizialki 488 bizilagun aiña dira.

## GERRIKAITZ

Gerrikaitz Udaletxea, Bizkaiko probintzian. (Bilbao'ra 6 legua); inguruko auzitegia Markiña'n, legua bi; Burgos'ko Lurralde auzitegi menpeko, (30 legua); Euskalerriko Kapitani nagusiko (Gasteiz'era 10 legua), Calahorra'ko gotzaindegiko; Gernikako Batzar nagusietan, urien artean, amasei garren jezarlekua dauka eta botoa, eta 40 1/2 sutegi lez ordaintzen dauz bere zergak. Oiz mendiaren Iparraldera dago, errekaren ego aldera. Giroa: Otza eta katarro eta bularreko gaixoen arriskutsu.

Bizilagunak banatuta dagoz, erri gunean 28 etxe eta Totorika, Uriona, Okiz eta Berreño auzoetan beste 40 etxe; ba dago gaiñera udaletxea, espetxea, Arbazegigaz batera daukan eskola, bi milla errialez ornidua, eta 53 mutiltxo eta 12 neskato joaten dirana. Parroki-eleiza Andra Mari izenekoa da, eta arima zaintzala duinta-

sundun abade bi, eta beste abade sakristau bat dira bertako zerbitzari; ermita bat dago, Kristobal deunaren izenekoa, Oiz mendian, eta edan nai beste edozetarako, ur iturri bi dagoz.

Lurraldearen mugak oneik dira: Iparralde eta Sorkaldera, Arbazegi; Ego aldera Berriz eta Garai; Sarkaldera Mendata, eta bere ingurua ia 3 leguakoa da, eta bere barruan dagoz Oiz eta Gaztiburu mendiak, arbola gitxidunak.

Lurra naiko latza da; bertatik zear iru erreka igaroten dira, esandako mendietatik datozanak eta laster Lekeitio'n itxasoratzen diranak.

Errepideak; Bertarako egiten diarduen errepidearen gain, Durango'ra eroaten daben beste bat dago, erdiz-erdizko egoeran. Bideko ostatu bat be ba dago. Korreoa azkenez esan dan erritik artzen da domeka, eguazten eta barikuetan, eta urrengo egunetan urten, au da, astelen, eguen eta zapatuetan.

Garia artzen da bertan, eta artua, patatak, indiarrak, gaztaiñak, baiñak eta edozein fruitu mota; abelgorri, lanadun eta txarrikiak asten dira; erbi, eper eta galeperrak artzen dira, bai eta aingira, amuarrainak arrantzatu be. Industria: Urun errota bat.

Biztanlegoa: 68 auzotar, 320 arima.

Aberastasuna eta kostua: Udalerriko aurre kontua 3.962 errialetan zeaztuten da. Iru milla eta bederatzireun eta bi bertan artzen danaren zergetatik ordaintzen da eta ortik gorakoa erritarren artean banatuta.

Kondaira: Errialde au, Munditibar izenez, Bizkaiko jaun zan don Tello kondeak irazia da, Gerrikaitz deitzen zan aranean, 1366ko Urrilla'ren 4'an Miranda de Ebro'n emondako mesedetik jakiten dan lez. Mesede ori ziurtatu eben Castilla'ko beste errege batzuk. 1372 urtean don Juan erregetzakoak Burgos'en izenpetutako kartatik igarten da, Ziarrotzako eleiz arduradunak irazpen edo fundaziño au galerazo nai izan ebela Munditibar'en eta Durango'ko Juan'en Ajorabide'n eukan lurraldean etxeak egin ziralako. Emengo bizilagun irazleei don Tello'k zortzi etxe lurgiñenak emon eutsezan eta beste 10 il-toki, eta Andra Mari izenean eleiza bat jasoteko baimena, bertan illobiak ipiniaz, Durango'ko Tabira nire errian oitura dauken lez. Andra Madri izen ori dauka parrokiak.



**OLALDEA**



**MIXPILETA ZARRA**

# ARBAZEGI ITURRIZA'REN KONDAIRAN

Arbazegi'ko eleiz-atea, Bilbao'tik 6 leguatara dago eta Gernika'tik bira. Sorkaldetik Ziortza'ko errepublikaren lurretan mugatzen da, Ego aldetik Gerrikaitz uriarenetan, Sarkaldetik Mendata eleizategaz eta Iparrara Murelaga'n.

Oiz'ko mendibesanga andiaren ipar aldean dago, lurralde menditsu eta aldapatsuan, ia iru leguako ingurua dauala, ainbateko ibai eta zortzi errekak buztita. Oneitan aingira, amu-arrain eta eskalluak arrantzaten dira eta mendietan abereentzako alapide onak dagoz, ur mearen iturri ugari, batez be Motrellu'n eta Uribar eta Orueta'koak Aulesti'ko uren gaitasun bardiñeko dira.

Zelai, baso, txaraka eta larre-sariak lantegietarako gaikiak eta burdiñolak erabili al izateko ikatza sortu erazten dabe. Onein zabalera milloi bat sei milla eta zortzireun eta amalau estadu eta iruren bat lautudun lur-gaiñekoa da, onetan aituak diran Juan Iturburu eta Gabriel Kapelastegi lur neurtzailleak 177Tko Iraillaren 17'an agertu eben lez. Zeaztasun ori eleizate onena da, Gerrikaitz'egaz batera osotasun baten eukazan iru milloe, ogei milla eta laureun eta berrogei ta iru estaduren inguruaren zati lez, eta Gerrikaitz'eri beste biak, Valladolid'eko Txanzilleriak erabagi eban lez.

Arbazeti'ko auzotegiak 48 su-etxe (fogera) daukaz, zazpi auzoetan zabalduta, au da, Gerrika, Uriona, Arbazegi, Munditibar, Totorika, Aldaka eta Berreño. Bere erri gobernurako "piel" bat dauka Gernika'ko Batzar orokorretan 26 garren jarrileku eta botua daukazala.

Eleizate onen lenengo parrokia, Bixente martiri deunaren izeneko da, X garren gizaldian sortu eben Bizkai'ko jaunen menpeko lurgiñak Arbazegi tontorrean; gaur ermita da, zatirik geiena jausita, ondo egindako ate eder bat daukala bere eguzki aldera. Bere patroitza, amarren eta zergakin batean, saldu egin eutsen 1478'ko Urrilla'ren 15'an Muxika'ko Alfontso eta Billela'ko Teresa Gomez bere emazteak, 328.000 marautan, Markiña'ko bizilagun zan Kareaga'ko Garzia Martinez Batxillerrari. Eta onen loba zan Arteaga'ko Martin Ruiz, Munditibar etxe-oiñeko jaun zanak eta Totorika, Aldaka eta Berreño kofradietakoak 1550 urtean erabagi eben parroki ori Munditibar auzora aldatzea, (Munditibar'ek muño eta zelaia esan gura dau) toki ori egiten zalako eleiztarrentzat erdigune. Eta Arbazegi, Uriona eta Gerrikatarrak aurka agertu ba ziran be, zentzu ona nausitu zan eta geiengoen borondatea; orrela Martin

Ruiz'ek patroi lez, "Olajauna" deituraz ezagutzen zan Pedro Zubikoari erositako soloan, jasoaz.

Arbazegi'tik irudiak eta eleiz tresnak beratu ebezanean, nastea sortu zan eta erasoaldi gogorra Munditibar eta eureganatuen artean eta aurka eukezan Arbazegi, Uriona eta Gerrikakoen artean, Bengolea'ko Sagastiluze deiturako tokian.

Parroki onetan lenengo bateoa artu eban umea Maria Aldazabal izan zan 1554 urtean, Garilla'ren 8'an, bertan bateatutako libururik zarrenean ikusten dan lez. Liburu au 1554 urtean asia da Berreñogoitia'ko Katalina'ren partideagaz.

Bixente deunaren eleiz au Motrellu mendi penditsuaren sarkaldeko gibelean jasoa da, Gerrikaitz uriko Andra Maria'renetik 600 oiñen neurrietara. Zati bakarrekoa da, zeru barik, eta 100 oin luze eta 39 zabalean daukaz, iru altara, 52 illobi eta patroiaren berezi bat, eleizpea eguzki aldera eta aurrean 1725'n jasotako torrea. Bertako zerbitzurako irabazi bardiñeko iru abade dagoz. Munditibar oin-etxeko jaunak aurkeztuta, amarrenak artzeko eskubideagaz, eta liburu onetako beste alde baten esaten danagaitik, zergaen patroi duintasuna dauka.

Eleiz onek bere eleiztarren artean 78 daukaz, euretatik 23 azken berrogei ta bi urtatatik gerora egiñak; jaunartzeko gai diran 350 pertsona 104 familietan, eta beste 147 pertsona txiki; bederatzi errota, sei arlandu eta arlangaitzez egindako zubi, taberna bat, igeltsu obi bi Berreñogoenetxea eta Berreñozelaia etxeen lurretan, eta burdiñola bi 1289'n egozanetako seirik geratuak, salmentako eskribu baten irakurten danez, eta euretako burdin lertzoak geratzen dira Olabarri, Bengolea, Garro eta Goikolea'n. Antxiñako denboretan egon ziran beste burdiñola bi Agorria'ko errotaren ondoan eta Igarrola'ko aitzaren azpian, baiña ez dakigu noiz beratuak izan ziran, ez eta Zuzaetako arma ola be, naí ta jakin au 1531 urtean ba egoala.

Bertan dagozan ermitak bederatzi dira: Santa Luzia, Gerrika'n; antxiña parroki izana; Mikel deuna, Arbazegi'n, au be parroki izana eta Bixente deunaren izenpean 1554 urte arte; Totorika'ko Jon Bateatzaillearena; Jaunaren Asentsio'koa Berrerño'n; Santa Eufemi Goonolea'n, Santiago, Aldaka'n; San Lontzo martiria Aspaiz'en; San Esteban lenengo martiria Zuzaeta'n, Esteba'n Zuzaeta'k bere etxeko lurretan jasoa 1580 inguruan eta Munditibar'eko San Pedro Apostoluarena, barrien barri jasoa 1794 urtean. Emen abere nausien feria ospatzen da Garilla'ko iru zapatutan, 1775 urtetik asita.

Arbazegi'ko eleiztarren arteko 78 etxeean artean, ba dagoz ogei Bizkai'ko jaunen zentzuko izan ziranak, eta eurekin eta beste Gerrikaitz'eko sortzaille ziran beste zortzirekin euki eban asiera

Arbazegi'ko errepublikak; 20 etxe orreik 1376 urtean geitu ziran esandako urira, bertako biztanlego eta epaikaritzara, Juan Infantearen aginduz.

1630 urtean euretako 17'k urten eben agindupide orretatik eta Gernika'ko teniente nausiaren agindupean sartu eta Arbazegi'ko su-etxeen artekotzat geratu, etxe bakoitzak zidarrezko 50 dukat emotearen ordez IV Felipe erregeak emondako mesedeei esker.

Arbazegi'ko antxiñako etxe jator eta armadunak oneik dira: Munditibar, Jauregi, Zubikoa, Zubialdea, Totorika-jauregi, Garro, Goikolea, Aldaolea biak, bekoa Santxo Mandalbearen seme batek sortua 1100 urte inguruan eta goikoa Aldaolea'ko Gonzalo'k 1246 urtean; eta Bengolea, Santxo Madalbea len aipatuak sortua 1080 urte inguruan. Au Castilla'ko Santxo II garrenaren kapitan alegintsua zan eta esandako erregearen senidekin egiten zan Fardonina andreagaz ezkondua; Bizkai'ra etorrita egoan bertakoen aldezpenera, frantzerrarakaz etenbako gerratan ebiltzalako; eta areik eta euren kapitan zan Papin' mendetzea lortu eban llundona'n (Gaztiburu'ko oiñetan, Zubibarriaga'ren alboan). Orrela autortzen dabe Alfontso Castilla'koak eta Gaspar Peña eta Galdotxa'k, Ibarguen'go Juan Iñigez'ek bere Crónica General Española y Sumaria de la Casa Vizcaina bigarren liburuko 115 liburuxka eta 52 atalean izentatzen dauzan lez.



**MUNITIBAR'KO ELEIZA**

# GERRIKAITZ ITURRIZA'REN KONDAIRAN

Oiz, mendi zerra andiaren aldatz baten iparraldean, bertatík beratzen dan ibaiaren ezker aldean dago Gerrikaitz uria (mendi bizkar legorra esan gura dauana). Bilbotik sei legua ta erdira eta Gernika'tik bi ondo joetara.

Sorkalde eta Iparraldetik Arbazegi'ko mugaetan batzen da; onen erdikalde eta lurretan irasia izan zan. Sarkaldetik Mendata'gaz eta Ego aldetik Durango'ko Merindadeko diran Berriz eta Garai'gaz. Oiz'en goialde guztia eta bere alderdi eguzkitsuko zatiak uri onen menpetasun eta jaubetasunean geratzen dirala, orrela bere inguruan iru legua artuaz, mota guztietako abereentzako larra-bedar askogaz, bai eta erreka, iturri, txara, zelai eta abeltsari ugarigaz, lurretan 2.013.628 estaduren iruren bi daukazala, 1771 urtean Juan Iturburu eta Gabriel Kapelastegi lur neurketan maisu diranak neurtuta. Dirutan 692.555 errial eta 2 marau Gerrikaitz'entzat, bere irutik bigaitik, eta beste irutik batekoa Arbazegirena dala, onegaz batasun baten artzen ebalako aurten arte, kopuru oneitan sartu barik baserriak euren muga barruetan artzen dabena.

Uri onek barruko legerako alkate bat dauka, errexidore bi, sindiku bat, aguazil bat eta preboste bat, azken onek gaizkillientzako kartzela bere kontura eukiteko ardureagaz; biztanlegoan 35 su-etxe (fogera) daukaz eta Gernika'ko Batzar orokorretan, urien arteko 16 garren boto eta jarrilekua daukaz.

Munditibar izenagaz irasía (fundatua) izan zan, Gerrikaitz'eko ibarrean, Miranda de Ebro'n 1366 urteko Urrilla'ren 4'an don Tello konde Bizkaiko jaunak, jaurerri onetako eskabide eta aolkuak beteaz emondako mesede baten biatartez; eta Ziortzako zerga-batzailleak galerazo ba eben be Munditibar'en etxeak egítea, Ajorabide'n egin zan lenengo bizitokia, Durango'ko Juan'en lurretan. Orrela ikusten da 1377 urtean Bizkaiko Jaun zan Juan'ek Burgos'tik Kontzejuari bialdutako babes-mezuan, bere osaba don Tello'ren mesedea egiaztatu eta bostgarren egunera.

Eta mesede ori ziurtatu eban baita be Valladolid'en 1401 urteko Martiaren 25'an III Enrike'k, eta geroago be Valladolid bertan 1409'ko Martiaren 2'an Juan H'garrenak bere zaintzaille eta arduradunen bidez eta geroago adiñera eldu zanean 1420 urteko

Martiaren 15'an, eta IV garren Enrike erregeak Medina del Campo'n 1462'ko Ekainíllaren 19'an.

Don Tello'k, uri oneri, bertako biztanlegotzarako Arbazegi'ko Bixente deunaren Monastegian errolduta egozan zortzi (8) etxe emon eutsazan eta orretarako aukeratuak oneik izan ziran: Uriona-Ormaetxea, Uriona-Etxebarria, Otaolea, Aldaieta, Loitia, Barrenengoa, Askarreta eta Totorika Burdibidea; eta beste amar lurralde-iltegi, eta baimena emon eutsan Andra Mari izeneko parrokia jasoteko. Au lau aldetakoa da, luzean 65 oin eta zabalera 64 daukazala, tellatuari eusteko sei egurrezko píllaregaz; sei aldara, 84 illobi, eleiz aurrea eta torrea atzeko aldean, lau sutabeen gaiñean, kanpai andi bi, eskíloia eta orduariagaz.

Parroki onen zerbitzurako iru abade ogibide bardiñeko dagoz, Kalahorrako Pedro Gonzalez gotzaiñak Santo Domingo de la Calzada'n 1459'ko Urtarrillaren 30'n erabagita eukan lez, eta euren aukeratzeko eskabidea egitea uriari dagokio, patroi lez, eta bertako Abade taldeari, amarrenen irutik biren eskubidea dabela euren alikaturarako, eta beste irugarren zatia Arredondo etxe jaubeari, preboste izatearren IV garren Felipe erregeak 1640 urtean betirako emondako eskerragaitik.

Gerrikaitz'ek, armarritzat, arbola bat dauka otso bigaz.

Sute ikaragarri bi euki zitun, 1628'ko Urrilla'ren batean eta 1731 'ko Irailla'ren 6'an. Origaitik eta bertan egozan ogeitik gora burdiñolak Castilla'rako egiten zituen ultze, perra eta tresnerien salmentak makaldu ziralako, bertako biztanlegoa beratu eta pobretu egin da.

Uri gunean, ormaen zati eta ate bat Sorkalde eta Egoaldera daukazala, kale bi dagoz eta plaza bat, 28 etxe eta beste amabost orube, ortu biurtuta, esandako suakaitik, eta ormetatik kanpo eta mendian beste 38 etxe; guztira 66 etxe batzen dirala eleizaren menpeko lez, jaunartzeko 216 pertsonekaz. Ospital etxeajoten otoi-leku bat dago, Kristo Kurutzetuari eskeiñita, mezak esateko baimen eta guzti, gotzaiñaren ordezkari dan Juan Sepulveda jaunak 1562'ko Urria'ren 2'ean emonda; orrez gain laba bat, janari denda, taberna bi, errota bat eta iturri bat Arbisketa'n.

Uri onek auzokidetzat eta bertako Alkatearen epaikaritzakotzat 46 baserri-etxe euki zitun, Bizkai'ko jaunen zerga-zordun ziranak. Bolibar'eko Tomas eta Arbazegi'ko Bixente deunen eleiztarrak, 1376 geituak, Mungia, Larrabetzu eta Errigoitiko mesedeen artean don Juan Infanteak iragarri eban lez. Eta 1402'ko Uztailla'ren 25'an

beste alkartasun idazki bat siñatu ba eben be, Arbazegitarrak berta-ko auzokide artetik aldendu ziran, lau ezik, 1630 urtean bakoitzak 50 dukat ordainduta IV garren Felipe'gandik lortutako baimen bidez, eta bolibartarrak Errege berberaren urte bereko Urtarrilla'ren 25'ko baimen bidez, orretarako 1.200 zidarrezko dukat danen artean emonda, len urten eben bakoitzaren auzoetara biurtuaz eta Gernikako Teniente orokorraren auzitegipera makurtuaz.

Mendiko larradiekaz Gerrikaiz uria baliatzen zan antxiñatik Ziortza eta Arbazegi eleiz-ate eta Bolibar'ko auzotegiagaz batean eta 1654 urtean egin zan banaketa eta euren artean zeaztutea, erdia Ziortza eta Bolibar'eri itxita Juan Zeberio Gezala eta Martin Otxoa Ortuzar'en testigantzaz eta geratu zan beste erdia uriak eta Arbazegi'k banatu eben 1771 urtean, Oiz'ko san Kristobal ermita esandako eleizate, uri eta auzoaren jaubetasunean geratuta, bere sortzean parte artu ebelako 1309 urte ínguruan, eta goroago bere barriztatze eta zabaltzean 1600 urtean, eta 1782'en egin zan kon-ponketan. Ori dala ta agintari eta alkateak euren makillak zutik daro-ezala joaten dira eta meza txandaka esaten dabe lau errietako parrokietako abadeak.



# KARMELO ETXEGARAI
# eta
# ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ

(Karmelo Etxegarai, azpeitiarra zan eta Gernika'n il zan 1.925 urtean.
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko Aldundiak Euskal erriko kronikalaritzat aukeratu eben 1.896 urtean.
Bere Geografia General del Pais Vasco Navarro liburuko Bizkaia zatian Arbazegi eta Gerrikaitz'eri buruz idatzitakoa euske-ratuta agertzen dogu.)

Toki bi oneik Busturia'ko merindadeko izan ziran, lenengoa elei-zatea eta bigarrea uria.

Mugak: Iparraldera, Murelaga; Sorkaldera Ziortza; Ego aldera Berriz eta Garai eta Sarkaldera Mendata.

Esandako eleizate eta uriagaz, udal au osotzen dabe Munditibar diturako tokiak, Berreñi eta Gerrika auzoak eta Totorika'ko etxadiak.

1.806 urtean bere biztanlegoa 1.202 arimak osotzen eben eta 1.920 urtean 1.056 bizilagun izatez eta 1.224 legez. Bizilagunok guztira 245 etxe edo aterpetan bizi ziran.

Gernika'tik Markiña'ra duan bidea igaroten da bertatik zear, Oiz, Atxagana, Motrollu, Gastiburu eta Gautiribel mendiak inguratzen dabe. Aldapatsu eta maldarra da.

Gerrikaitz, itxas meurrien araberan, 214 metro goian kokatzen da eta Arbazegi 178 metrotan.

Bere ibarrak Lea ibaiak buztiten dauz. Ibai au Gerrikaitz'en eskuma aldetik eta Arbazegi'ren erditik igaroten da.

Erriko iturri bi daukaz eta ur emokuntza aldakorra da urteko aro-etan.

Ibaiak burdiñola biri eta bederatzi errotei indarra emoten eutsen, euretako bi gaur elektra indartegi biurtuak.

Gerrikaitz'ek ez dau aurrerapenik euki, sute andi bi euki zitulako, bat 1.628-ko Urtarrilla'ren l'an eta bestea 1.731 'ko Iraillaren 6'an.

Zoritxar oneik uri au industri ugariduna izan zalako gertatu zirala uste da, bertan lanean gelditu barik, Castilla bietatik eskabide andia euken tresna, ultze eta perrak egiten 30 errementari lantegi egozalako, eta orrez gain bertako etxeak egur utsezkoak ziralako.

Origaitik bertanbera jausi ziran bertako langintza eta biztanlegoa eta 27 etxe bakarrik geratu ziran eta inguruko beste amabi lurralde, ortutzat geratu ziran.

Arbazegi, mugaz zabal eta toki aldapatsua, aberats izan zan mendi, zelai eta iturrietan, eta onein artean Urueta eta Uribai deiturako meazki mitrioladunak dira.

Bere baserriak Gerrika, Uriona, Arbazegi, Munditibar, Totorika, Aldaka eta Berreño auzoeta bananduten dira.

Arbazegi, Gerrikaitz, Ziortza eta Bolibar'eko eleiztarrak, antxiñetatik osotasunean edo alkartasunean eukezan larre-zor aberatsak eta euren erdigunea Oiz'ko san Kristobal ermita zan, lau errien jaubetasuneko. Baiña mendi oneik banatu egin ziran 1.654 urtean.

Gerrikaitz eta Arbazegi, luzaro ondasun bardintsu eta kideko lez erabiliak eukezanak, gero, lan onetako istori atalean zeaztuko dogun lez, **1**.882 urtean alkartu egin ziran erri bakar bat osotzeko.

Gerrikaitz'eko Andra Mari parrokia ona da eta zabala.

Arbazegi'ko Bixente deunarena, esaten danez, X garren gizaldian jaso zan, baiña ez da geratzen denbora aretakoaren kutsurik. Bere agintepean bederatzi ermita dagoz, euren artean Munditibar'ko Pedro deunarena.

Bertako emaitzik berezienak artua, garia, indiarrak eta intxaurrak dira; bedar onak, ondar-arrizko arriola (kantera) onak eta igeltsu obi bat Berreño goenetxea'ren lurretan.

Kondaira (istoria). Don Tello Kondeak, Miranda de Ebro'n **1**.366 urtean ziñatutako mesede bitartez, urí bat sortu eban, Oiz'ko mendi lerroaren azpikaldea asi eta Lea ibaiaren ezker aldera duan Lea ibaiaren egaleko ibar estu baten, Mundítibar izena emonaz, bizi lekuak Arbazegi'ko lurraldean jasota.

Uri onetako bizi lagunei emon eutsezan, baita, Arbazegi'ko Bixente deunaren parrokiko zira zortzi baserri-etxe, au da: Uriona Ormaetxea, Uriona Etxebarri, Otaolea, Aldaieta, Loitia, Barrenengoa, Azkarreta eta Totorika-Burdibidea, euren bizitzak urira aldatzen ba zituen, bestelako mesede batsuk eskeiniaz, geienbat lur-laneko baserriak uriko ontasunera eta mesedetara zaletzeko asmotan.

Askok egin eben ori, Bolibar eta Arbazegin sartuta egozanen artean, **1**.402 urteko alkartasun idazki baten ikusten danez; baiña

euren oíñordekuak, damututa, alegiñez eskatu eben, gizaldi bi gero-ago, aurretikoak artutako lotuera ori kentzea, eta Arbazegitarrak lortu eben, 1,630 urtean, Felipe IV'k emondako baimen bidez, bakoitzak Erregeari zidarrezko 50 dukat ordaindu onderen eta erre-ge berberaren erabagiz ala egin eben bolibartarrak be, oneik 1.200 zadarrezko dukat ordainduta, eta une aretatik barriro Zoirtza'n sar-tuaz.

Aldebanatze oneik eta iñoiz aitatu doguzan suteen ondorenez, uria beia jota geratu zan eta Arbazegi'gaz alkartasunean jarri.

# GERRIKATARREN ERRIA

Ikusten da Gerríka deíturak bere indarra eta eragiña euki izan dauala Arbazegi'n.

Gerrikagoitia, Gerrikabeitia, Gerrika-Etxebarria eta abar, bertan agintzen ezagutu izan dira.

Ara: 1865 urtean, eskoletxe baten premiña egoan. Eta Arrabal kaleko lenengo zenbakiko etxea konpontzea eta orretarako egokitzea pentsatu zan.

Bere be aldean neska eta mutillentzako gela bana eta lenengo etxe oiñean maisuarentzat etxe bizitza bat ataratea pentsatu zan. Egin ziran bearreko alegiñak, baimenak eskatu ziran Aldundira, eta erremata be egin zan.

Baiña iñor ez zan ausartu izentatzen ziran prezioetan lanak bere kontura artzera.

Orretan atzerapen bat egon zan.

Eskoletxea iruditu eta ango zeregiñen salneurriak errematerako ipini ebazana. J.A. Eguren durangarra izan zan. Ba dirudi oker emon eutsezala areri Oiz mendiko arrioletatik (kanteretatík) atara eta landutako arriak eukan balioa eta iñor ez zan agertu lenengo errematera.

Ori ikusita Kontzejua batzarrean batu zan eta azterketa barria egin. Irureun eta amabost kana arlandu bear ziran gaiñerako, azalerako eta beste amasei kana bidarritan, lozatan. Arlandua kanako sei errialen zeaztuta egoan eta bidarritakoa bostean. Baiña bata eta bestea iru errial kanako goratu bear izan zan erremate barrira ataratéko. Orrela konpondu al izan zan.

Orduan, 1865 urtean, Arbazegi'ko kontzejua osotzen ebenak oneik ziran:

Domíngo Mari Urionabarrenetxea, alkatea.

Jose Domingo Gerríkabeitia, alkate ordeko.

Jose Gerrikaetxebarria, Juan Mari Gerrikagoitia, Jose Mari Gerrikagoitia eta Juan Jose Belaustegi, ziñegotziak. Eta ídazkaria be Franzisko Antonio Gerrikagoitia zan.

# ZUZA TOKI

Munitibar'ek, ingurutan, perretxiku toki aberats entzutea euki izan dau.

Motrollu gaiñea eta abar, Aulesti'ko mugar arte. Aldaka, eta... zetarako esan?

Egunak artu bear bertatik ibilteko.

Erri txikietako medikuak ez dira makalak izaten orretan. Tokiak jakiten onenak, medikuei ez dautselako iñok ukatzen. Etajaten.

Onelako bat ezagutu neban.

Ezin berari esan berak beste bateri erakutsi ta gu arengandik ikasiak giñanik.

Gauza au da.

Lagun artean ba gendun gure errira ezkondutako kanpotar bat. Eukiko zitun bere akziño edo bestelako ondasunak. Baiña eguna libre eukan edozetarako. Eta ingurutatik zear lagunekin ibílteko gertu egoten zan, nai ta kotxean, bera soiñez lodi zalako. Munitibar'eko osagillearen ezaupidea artzeko aukera euki eban. Ziurretik eroango eutsan gure itxas ertzeko arraiñen bat zurigarri.

Dana dala arek bein erakutsi eutsan gure adiskideari zuza orien toki on-on eta aberats bat.

Baiña nik esango neuke emengo medikuak sarritan ez joateko erako bideak erakutsi eutsazala. Uribai'ko solo egaletik sartu eta lenengo arbolartea eldu orduko, ezkerretara bide pendiz bat artu eragin mendiz gora, eta goraiño joan eragin eutsan, putzka eta arnas estuka, izerdi likiñetan, eta andik beraka asi piñadi oker eta lakar baten ia beko errekarteraiño. Eta batzekoak batu ta barriro gora igo, lengo bideetatik zear, errepide ondora egaetu arte. Gure adiskideari perretxikuak atsegin jakozan, baiña ez alako nekaldiaren truke.

Perretxikuak, zalea zirikatu egiten dabe ta geiago ez joateko promesa egiñarren, ezin egon joan barik. Eta asmatu eban zelan konpondu. Batzen ebana erdi bana egitekotan, batzaille bat samurtu eban eta beragaz eroan. Baiña bera, baserriari begira zelaian etzanda geratu zan ta besteari nundik ibili agindu, esandako bidetik ez urteteko eskatuaz, mendiarte aretan galduta ibili nai ez ba eban.

Bestea be bitsetan, ainbeste batu al izateagaz.

Arek niri, sarri alkarregaz ibilten giñan lez, erakutsi bearrik ez. Eta bera ta ni osagílleak erakutsitako bidetik ibili giñan.

Baiña ara eldu, goitik ia errekaraiño beratu eta barriro gora?

Orrelako mendietan alkarrez ikusmena laster galtzen dan lez, ausartu nitzan bidexka bateri errekondoko arbola artean jarraitzen ta berreun metro egin orduko, nun igarten dot laster errepidea berta-bertan.

Ez neutsan lagunari ezer esan.

Urrengo astean joan giñanean, berak aurrea artzea nai izaten eban lez, ezer esan barik tapa-tapa asi zan aurretik bidean, ni baiño bizkoarrak zan izan be ta ariñago eltzeko asmotan. Orixe nai neban nik. Bera eskutatu ordurako, "nire bidetik" sartu nitzan ta berak goiak goiak artu orduko, an nebillan ni ia boltsa beteta.

Eta azkenean be esan egin bear.

Urte batzuk dira piñua jo ebela bertan. Eta bardin Aldaka'n. An be toki oríak.

Eta Totorika'tik aurrera San Juan ermitaren aurretik jota... urteak urte, gerriko edo guntzurrunetako miñari eutsi ezinda, belauniko ziza ori batzen ikusten gendun agureak, zer?

Gu be zaartu gara, baiña orrelako oroitza onak beti izaten dira atsegin. Ibiliaren damurik ez beintzat.




**ARBATZEGI-GERRIKAITZ**

1 - San Salvador
2 - San Esteban (desaparecida)
3 - Santiago
4 - San Juan
5 - San Lorenzo
6 - San Miguel Arcángel
7 - Sta. Lucía
8 - San Cristóljal
9 - Sta. Eufemia
A - Parroquia: San Vicente Martir (Arbatzegi)
B - » : Natividad de Ntra. Sra.

ÍIÍ **INSTITUTO LABAYRU**
DEPARTAMENTO DE **ETNOGRAFIA**

# ELEIZAK ETA ERMITAK

# ELEIZAK ETA ERMITAK

Arbazegi eta Gerrikaitz lako erri txikietan, esan lei, bertako bizibideko inguruaren ardatza, eleiza eta ermitetan agertzen dala.

Santuen egunei buruz datorkiez jaiak, erromeriak, eta baita lotuerak be.

Santuen egunen inguruetan sortu eta loratzen dira bertakoen maitasunak eta ametsak eta santuekaz lotuta datoz gerorako etxeetako estuntzak be.

Etxeko eta berezko dira gogoratzen doguzan antzeko esaerak eta autorpenak:

Santa Luzia'ko erromeriaren ezagutu giñan...

San Kristobal'eko neska laguntzan emon neutsan baietza...

Madalen illean jaio zan gure lenengo frutua...

Edo ta,

San Markosetan erein gendun artoa...

San Martiñez il bearko dogu txarria, nai ta zortzi arrutara eldu ez...

Aurten San Lorentzo'k erreta laga dauskuz soloak...

Edo,

Kandelari egunez bedeinkatutako kandelen eta argizariaren bearra izan dogu aurten...

Ai gure errentak! Santo Tomas'etako kapoiak gizenduko ete diran bildur...

Domuru Santuetan amaren mankala jasoteko gendun eta urte baltza izan dogu aurtengoa...

Bai eta,

Ezkontzeko eleiza libre gendula ta pentsatu gendun San Juan illa ez zala il txarra ta...

Ara ba, San Txilibristo eldu da ta datorren urtean be elduko al da...

Gure ume ziztrin au San Gergorio'ra eroan bearko dogu belarriak orioz igortzitera...

Aurten Santa Eufemira argizari ta guzti joan bear, ia gerri au berotu eta berera etortzen ete dan...

Beste erri txikietan lez, Arbatzegi eta Gerrikaitz'en be.

Emen be orduak ordu lanean, gerria makur sarri, baiña jai bezperak, jai erdiak, jai biaramonak, letani egunak, pasku iru urrenak, eta otabak eta bederatziurrenak zainduta, edo beste era baten esanda jai ospatuta.



Emen be laneko izerdiak, biarretako nekeak, fedeagaz eta eleizeagaz lotuta.

Eta kaleko lotsa, eta etxearen izena, kanpaien bildur.

Eta familien azi-ereintza eta ernetze eta loratzea, beti ur bedeinkatu eske.

Erri batzutan patroi batzuk; bestetan besteak, baiña ezin ukatu eleizak eta ermitak gure errien bizitzan euki daben eragiñik.

**ARBATZEGI'KO PARROKIA**



**GERRIKAITZ PARROKIA**

# ARBATZEGI BIXENTE DEUNA PARROKIAK

Noizkoak dira Arbazegi eta Gerrikaitz'eko parroki biak?

Jakiña da zarrena Bixente deunaren omenez jasoa dala. San Bixenti.

San Bixenti'ren aurreko parrokia San Migel ermita izan zala esaten da 1554 arte. Ala diño Iturriza'k.

Eleiza onen goraberan ba dagoz aztertu bearreko batzuk.

Parroki onetako patroiak 1478 urtearte, Juan Alfontso Muxika, Aremaio'ko jauna eta Teresa Billela bere emaztea izan ziran. Urte orretan, 1478'n, saldu eutsen patroitzako eskubide ori Markiña'ko Kareaga batxillerrari. Onen loba bat Martin Arteaga zan, Munditibar etxeko jauna.

1550 urtean Aldaka, Berreño eta Totorika'ko kofradietakoak erabagi eben parroki ori Munditibar auzora aldatzea, antxe egiten zalako eleiztarren erdigunea.

Ukatu egin ziran orretara Arbazegi, Gerrika eta Uriona'ko bizilagunak, baiña arein ixiltasun edo gogo-on nai txarrez, Arteaga'ko Martin'ek, eleizako patroi lez, "Olajauna" deituraz ezagutzen zan Pedro Zubikona'ri erosi eutsan soloan egiten asiak ziran eleiz barrira aldatzea lortu eben.

Baiña ermitako irudiak eta jantziak parroki barrira aldatzeko unea eldu zanean, auzotarren artean sekulako naste eta asarreak sortu ziran Bengolea'ko Sagastiluze inguruan.

Iturriza'k bere istorian ori esanarren, ba dirudi Estanislao Labayru ez dala eritxi bardiñeko.

Labayru'k au esaten dau: 1550 urtean Españian Aita Santuaren ordezkari zan Joanes Pogia nuntzioak baimena emon eutsan Arteaga'ko San Bixenti Munitibar lurraldera aldatzeko, emen egoalako erriko ingurunea. Baimenaren eskabidea Aldaka, Berreño eta Totorikatarrak egin eben, baiña Arbazegi, Gerrika eta Urionatarrak asarreak sortu zituen.

Iturriza'k diño eleiza au 1554 urtean amaituta egoala eta eleiz liburuetan, bateotakoan, an agertzen dala 1554'ko Uztailla'ren 8'an bertan lenengo bateatu zanaren izena: Mari Aldakazabal'ena.

Ori orrela izanarren, Labayru'k diño: Nik ikusi dodaz paperak agertzen dabenak eleiza ori aldi aretan oraindik egin barik egoala,

1558 urteko Uztaílla'ren 13'an Munditibar'eko san Pedro eleizan Martin Zelaia batxillerrak eta Rodrigo Albiz eta Elgezabal'ek "epaika-ri" edo "arbitru" lez erabagita, Arbazegi'ko san Bixente'ko Juan Arteaga'ri agintzen, iru urte barru jaso egiala bere kontura eleiza barria Munditibar Barrena'n Pedro "Olajauna"ren lurretan, Munitibar burdiñolaren egalean: Munditibar Barrena baserriaren erdia, bertako jaube zan "Olajauna"k Juan Arteaga'ren etxeko zan Martin Arteaga'ri saldu eutsala 100 (eun) dukatetan, 1565'ko Apirilla'ren 30-an, eta 1574'ko Maiatzaren bian barriro saldu eutsala esandako Martin'ek, esandako baserriaren erdi ori, Munditibar'eko Frantziska eta Martin Mendiola'ri lengo eun dukatetan, bertan, Olaostea'ko soloa gordeta, 1574 urte orretan san Bixente'ko parrokia jasoten ebiltzalako.

Ori esan eta Labayru'k oar au ipinten dau: Iturriza'k esaten dauan 1564 urtea ala ba da, esan leialdiz-aldirako ermiten bat izan eikeala, bertan parrokiko zeregiña beteteko, esandako zeaztasunik ikusten ez dalako oraindik parrokia jaso barik egoala.

Parroki au, geituten dau Labayru'k, Erdi Arotik dator eta gorago esandako patroien truke gogoratzean, zeaztuten dau gaztelar dirutan, orduan emen erabili eta oituten zan gaztelar marabedietan egin zala, 328.000 marauetan, truke ori, eta tratu orren bitarteko lez Juan Ugarte abadea izan zala, saltzailleen arduradun lez.

Eleiza onek 100 oin daukaz luzeran eta 39 zabalean. Iru aldare daukaz. Eleiz barruan berrogeitamabi (52) illobi egin ziran eta patroiaren illobi berezi bat.

Kanpai torrea 1725 urtean egiña da.

## ELEIZAKO OTEUNDEGIA, SAGRARIOA

Iturriza'k kaku bat gogoratzen dau oneri buruz. Bere esanetan, Zubialdeko Pedro Ibañez'en etxean, eskribadu aurrean, Juan M. Albiz aurkeztu zan, eta esan eban San Bixente'ko oteundegi (sagra-rio) bat egiña eukala, gero bere balioa baliatzen zan dirutan artzeko, eta oraindik artzeko egoala.

Diru artu bitartean, zor bat egin ebala, eta zor ori ordaintzeko eukala, ta beragaz eukala Martin Beitia, zor ori eutsana.

Zer zor zan?

Idi bat erosi eutsala, il eta zeziña egin ebala, eta bere balioa, amalau dukatetan berbatu ebela. Eta balio ori berak Arbazegiko eleizatik artzeko eukenetik aren izenera aldatu nai ebala.

Eta itxuraz eskribaduaren aurrean egin nai izan eban aldaketa ori.

Gertaera au 1615 urteko Dagonillaren (Abustuaren) 15'ekoa da.

ELEIZTARRAK

Iturriza'ren denboretan, XVIII garren gizaldiaren azkenetan, parroki onetako eleiztar lez irurogei ta amazortzi (78) etxe sartzen ziran, euretariko ogei ta iru (23) azken berrogei urtetan egiñak; Eun eta lau famili danetara, euretatik irureun eta berrogetamar (350) jaunartzeko adiñean egozanak eta beste eun eta berrogei ta amazortzi ume (147) jaunartzeko adiñera eltzen ez ziranak.

ELEIZ-LIBURUAK

Parroki onetako artxiboa, au da, eleiz liburuak, azken denboretakuak kenduta, Derio'ko "Bizkaiko Eleizaren Histori Arkibia" deiturakoan gordeten da.

An dagoz:

| | | |
|---|---|---|
| Bateotakuak | 1545-1892 | urte bitartekoak |
| Ezkontzak | 1560-1870 | " |
| Eriotzak | 1560-1926 | " |
| Sendotzak | 1786-1878 | " |
| EleizFabrika | 1646-1969 | " |

Era Kofradi eta Anaidietakoak eta abar.

PARROKIAREN BARRIZTAPENA

Ba dakigu parroki au XIX garren gizaldiaren lenengo erdialdean barriztu zala.

Eta Mariano Jose Laskurain, bergararra, bere denboran arkitektu entzutetsua izan zana, ibili zala bertako lanen zuzendari.

95.943 errial kostatu ziran lanak, era onetan banatuta:

Argin lanak, Juan Malaxetxebarria markiñarrak egin zitun. Arotz eta burdinkiak, Pedro Jose Loiola, au be markiñarra. Igeltzeria, Bitoriano Altuna, bergararrak.

40.967,25 kostatu ziran argin lanak.

43.807,11 Arotz eta burdin lanak.

11.168 igeltzerikuak.

Diru eskabide bat egin zan, eta liburuetan zerrenda bat agertzen da dirua interesik barik aurreratu ebenena. Orduko oituraz, errialetan agertzen dira kontuak:

| | |
|---|---|
| Juan Jose Gerrikabeitia'k | 600 errial |
| Franzisko Urionabarrenetxeak | 320 |
| Jose D. Urionabarrenetxeak | 400 |
| Jose Mari Gerrikagoitia'k | 320 |
| Madalena Gerrikagoitia'k | 320 |
| Juan Jose Gerrikagotia Jaio'k | 320 |
| Domingo Irusta'k | 1.000 |
| Jose A. Astorkia'k | 320 |
| Juan Jaio Garate'k | 160 |
| Juan Martitegi'k | 200 |
| Guztira | 3.960 |

Kontu oneik 1846'ko Martia'ren 22'ko agirian sartuta dagoz.

## GURE DENBORETAN

1937 urteko Apírilla'ren 25'an, arratsaldeko ordu bíetan, egazkiñak lerkariak jaurti zituen errepideko bide-kurutzean. Eta parroki au bertan dagonez, parroki oneri kalteak egin jakozan. Lerkari (bonba) bat tellatuko gallurrean jausi zan, gaiñaga apurtu eta barruan ler egin.

Eleiztarrak konpondu zituen bein-beingoz kalterik andienak.

Gero "nazionalak" sartu ziranean, euren aurka jaurtitako obus batek egoaldeko orman zulo bat egin eta bertan egoan aldarea zatitu eban eta beste batek eleizpea.

Bertan "gorriak" egon ziralako, Eleizaren ber-adiskidetzeko bedeinkapena egin zala, irakurri dogu oar baten.

Geroago, "Regiones devastadas" erakundea gerrako eragiña euki ebenen konponketak egiten asi zanean, Kasimíro Meabe jaunak konponketa zabalago bat egitea lortu eban, esandako erakundearen eta erritar eta gaiñerakoen laguntzaz.



PARROKIA



ARBATZEGI ELEIZA



ALDARE NAGUSIA



ARBATZEGIKO PARROKIA



ARBATZEGI'KO
PARROKIA



BIXENTE
DEUNA



UR BEDEINKATU ONTZIA

# GERRIKAITZ

ANDRA MARI PARROKIA

Errí iraspen (fundaziño)eko agiritik datorkio Gerrikaitz'eri parroki bat sortzeko agindua edo baimena.

Ala diño Don Tello'ren agiriak:

"Eta agintzen dot, gaur emen bizi diranak eta biziko diranak, martzalak izan nai lurgiñak, Eleiz-etxe bat jaso dagiela uri onetan Andra Maria'ren izenean, eta agintzen dot eleiza onetan illobiak zabaldu daitezala eta erabili dagiezala gaur nire uri dan Durango'ko Tabira'ko eleizan erabilten diran lez".

Eta, aginduta lez, eleiza egin zan, ia lautua, 66 oin luze eta 64 oin zabal, sei aldara, tellatuari eusteko sei pillare, 84 illobi barruan, eta bere torre eta kanpaiekaz.

Denbora baten iru abade egoten ziran bertan.

Gaur, bai parroki au eta baita San Bixentekoa, Lekeitio'tik joaten dan abaderen batek serbidu bear izaten dau.

NOIZ EGIN ZAN?

Labayru'k 1402 urteko goraberetan, Gerrikaitz'eko ordezkariak eta Arbazegi'ko baserritar gizon onak eta Bolibar'eko batzuen arteko batzarrak gogoratzen dauz, Gerrikaitz irasiteko agindu ezkeroztik euren artean sortzen ziran asarreak edo ta alderantziak konpondu naian.

Eta diño orduntxe ebiltzala gerrikaiztarrak eleiza barria jasoten; orretarako gogoratzen dau iñoz alondika edo merkatua alokatzeko asmorik artzen ba zan (orduan azola deitzen eutsen erriak aleak eta janariak eta arategia eukan tokiari) an artzen zan dirua egiten iñarduen eleiza barrirako izango zala.

Kalahorra'ko gotzaiñak 1459 urteko Urtarrillean erabagi ebanez, iru abade egoten ziran parroki onen zerbitzurako.

ELEIZ LIBURUAK

Parroki onetako eleiz-liburuak, Arbezegikoen antzera, Derio'ko "Bizkaiko Eleizaren Histori Arkibia'Ya eroanda dagoz, an obeto zaintzeko.

Oiturazko eleiz-fabrika, kapellani, Kofradi eta abarretako liburuen gain, era eroan ziran liburuak bitarteko oneitakoak dira:

| | | |
|---|---|---|
| Bateotakuak | 1518-1865 | bitartekuak |
| Ezkontzak | 1516-1885 | |
| Illenak | 1580-1901 | |
| Sendotzak | 1552-1968 | |
| Oiz' ko San Kristobal | 1638-1969 | |

Artxibategi onetan dago baita parroki onen mendean egon zan Gerrikaitz'eko ospitaleko liburua, 1655-1819 bitartekoa.

## JAKINGARRI BATZUK

Ba dakigu parroki onetako lenengo jaiotzako agiria 1518 urtekoa dala.

Gero, 1550 urtean, bertako patroia zan Arteaga etxekoak eta eleiztarrak erabagi eben parroki barri bat egitea komeni zala.

Asmo onen aurka agertu ziran Arbazegitarrak, baiña paperetan irakurten danez azkenean "zentzu ona eta egokitasuna" nausitu ziran eta orrela egin zan.

Geroago, 1847 urte ingurutan barriztatu eta zabaldu zan ordurarteakoa.

Ori jakiñarren ezin emon zeaztasun geiagorik, ain zuzen Parroki onetako artxibuko kontu liburuetan, denboraldi orretako liburua falta dalako.

Au da, III garren kontu liburu lez agertzen dana, 1715'tik 1808 artekoa da eta Bostgarren liburua 1882'tik 1969 bitartekoa eta euren artan IV garrena falta da, ain zuzen be 1809-tik 1882 bitartekoa.

Nun dagon? Egon bear litzaken tokian ez dago ta or gure akatsa.

Aurreragoko liburuan, 1780 urte ingurutik asita, ia urtero agertzen da kanpai torrean egiten ziran lanei buruzko gastuen bat, eta badakigu 1785 urtean egurrezko jarrilekuak ipini zirala "en el salón de la Torre de las campañas" diñoe, an egiten ziralako Udal Batzarra.

Ordurarte toki a itxusia zala esaten da, eta errian a zala tokirik egokiena batzarrak egiteko.



GERRIKAITZ APAINGARRI BAT





GERRIKAITZ - PARROKIA





GERRIKAITZ - PARROKIA

# GARAI'KO SANTA LUZIA

Arbazegi eta Gerrikaitz'ko ermitetan, istoririk luzeena daukan ermita, bere alboko etxe eta padar edo ermitañu ta guztikoa, bere denboretan. Ala ikusten da beintzat Iturriza'ren eskuz idatziriko paper baten.

Bizkai'ko lenengo parrokia izan eta zan berau?

Atakotzat dauka Iturriza istori idazleak eta gaiñera Ziortza'ko eleiza baiño leenagokoa.

Siniste zarrak ori esaten dabe eta gaurkoak be gogoratu:

Meza nagusi ostean, bertan egon ziranak arrano bat ikusi ebela inguruan. Arranoa ermita ingurutako azurtegi baten gaiñean beratu zala, toki aretan kalabera bat artu bere erpetan, eta egaz joan zala Ziortza gaiñerarte eta an soltatu ebala.

Ermita ondoan ori ikusten egozanak arrituta geratu zirala, eta adierazgarri miragarri berezitzat lez artu ebela ori.

Berak J. Meabebasterretxea'k 1920 urtean berari esandako au gertatzen dau bere liburu baten:

"Jentillek euren elixie Gerrikan eben, da gero jentillek eta kristiñauek gerrie asi eben, eta orrek jentillek euken lekuen bertan kristiñauek euren elixie eiñ eben. Oiñ be elixie an dao: Santa Luzia de Garay.

Jentillek enterrariyue Santa Luzian eben; gero or agiliek jentillen kalaberie erpietan artu eban eta Ziortzan bota eban. Da gero jentiek, an baño leku obie egola ta, Gontzegarai'n elixie eitie nai izeben. Baño egunez eitte ebezan bierrak gabaz Ziortzara norbaitek erueten zituela esaten dabe. Gau batien zaintzale bat ipiñi eben, nok erueten zitun jakiteko, da zaintzale ori itxututa geldittu zan, eta ez eban ikusi nok erueten zittun bierrak.

Gero Gontzagarai itxi ta Ziortzan elisie eittie erabaki eben.

Gogoratu gertaera au gogoratzeko Ziortzako Abate etxean arrano bat ikusten dala, bertako armarrian, erpaetan buru-azur bat darioiala.

(Barandiaran, Eusko Folklore 11-165 orrialdean).

Gurutze Arregi'k, beste au agertzen dau ermita onetako goraberak agertzeko egin eban ikertaldian, Santa Lutzi baserriko Alejandro Gerrikaetxebarria'k edestuta lez:

"Diskusiño edo aitueziñe egoala, edo Ziortzan egin edo Gontzo garai-tontorrean egin, Ziortzako eleizea. Eta mezetan egoziela Santa

Luzian, tzaparrada aundie entzun ebela, eta urten ebela kanpora eta arranue kalaberea artute andiko Zigortzan bota ebala...

Argitasunez artu eben au eta antxe amaitu zan diskusiñoa".

Gurutze Arregi. Ermitas de Bizkaia, I, 27 orr.).

Itxuraz ermita onetan eta inguruan, antxiñetan, arrizko illobi ederrak egoten ziran. Iturriza'k diño: Bere sarkaldean sei íllobi dagoz ondar arrian egiñak eta beste amabi gaiñeko, izen barik. Eta antxiña askoz geiago egon ziran, baiña gaur gitxitu egin dira baserritarrak eta errementariak eroan zituelako euren etxetako iturri eta zeregiñetarako, eta Markiñako Karmeldar fraileak be bi eroan zituen makallua beratzen eukiteko.

Eta Iturriza'k gogoratzen dau Juan Iñiguez Ibarguen'ek idatzitako "Crónica General Española y Sumario de la Casa Vizcayna"'n agertzen dala, illobi oneitako batzuk zabaldu zituenean, an agertzen zirala gorpu-azurrak bota, orkatz eta antxiñako lantzakaz.

Ermita au Gontzogarai'n dago, Bolibar'tik Arbatzegi'ra goazala, errepideko tontorrera elduaz batera, eskumarako auzo-bidea artu eta Gerrika auzora sartuaz, errepietik kilometro ta erdira.

Luze ta zabalez bardintsua da: 12,50 x 12,15.

Orma-lakatzezko egitura, arlanduzko egalekaz.

Kanpai bakarra.

1960 urtean barriztatu eben. Ordurarte eukazan beko artzabalak lur egosiz egiñak ziran eta gaur "terrazo"zkoak.

Domeketan meza esaten da eta ermitako jaia be, Gabonillaren 13'an izanarren, urrengo domekan ospatzen da.

Egun orretan, jaí egunean, len bertaratzen ziranei ardaua eta ogia Udaletxearen kontura eskintzen jakoen.

Atsentziñoko letanietako ibillaldiak oituten ziran denboretan, ibillaldi bat ermita onetara egiten zan.

Ermitan iru irudi dagoz: Luzia deuna, Antonio deuna eta Sortzez Garbiarenak.



**SANTA LUZIA ERMITA ETA ALBOAN PADARRAREN ETXEA**



**ALDAREA**





ANTXIÑAKO ILLOBIAK

SANTA LUZIA



SANTA LUZIA ERMITAKO APAINGARRI BAT

# OIZ'KO SAN KRISTOBAL

Izen orregaz ezagutzen da ermíta au: Oiz'ko San Kristobal.

Zazpireun eta larogei ta amaika metrotara dago, itxas-neurritik.

Etxe neurriak: 12,90 x 7,30.

Alde bitarako tellatua.

Barruan, burdin sare bat, aldarea eta gaiñontzekoak aldebanatzeko.

Ego sarkaldera gaindun atea, an ugari ibilten diran abereei barrura sartzeko oztopotzat.

Mendi-zaletuentzako aterpetxu bat dago alboan, eta eleiza berbera ortarako erabilten dabenik ezin ukatu.

Ipar aldera, ur garden ugaria emoten dauan iturria dago. Nestor Goikoetxea'k "Mendigoizale"'n esaten daben lez Berriz'ko sodei ospe andia emon izan dautsen uraren iturria.

Ermita au eleizaz Gerrikaitz'eko Andra Mari parrokiaren mendeko da. Lurrez egon izan dira bertan asarre ugari. Mendi oneik, aldi baten, Ziortza, Bolibar, eta Gerrikaitz eta Arbatzegi'ren jaubetasuneko ziran.

Jaubetasun banaketan egin ziran 1654 urtean eta beste berrogetamalau urte geroago, 1708'n. Baiña itxuraz asarre biderik argitzen ez edo ta konpontzen ez.

Geroago be egon izan dira asarre eta nasteak.

1895 urtean, Arbatzegi Gerrikaitz'eko liburuetan, onetako agiria irakurten da:

"Udal onetako eta Ziortza'koaren artean asarreak. Ziortzatarrak San Kristobal egunean, euren jaubetasuneko tokia ba litzaken lez, zergarik ordaindu barik janari eta edariak eroan zituen, eta azkenean Arbazegi-Gerrikaitz'eko alkateak gaiki orreik indarrez baitu eutsezan, erri onen eskubidea zaindu naian".

San Kristobal belarriko miñen osagarri-laguntzailletzat dauke toki askotan eta emen be San Gregorio egunean meza eskeintzen zan urtero eta letaniak errezaten igoten ziran bertara Ibarruri'tik.

1978 urtean barriztu eben.

Itxuraz, sarri apurtzen eben ermita onetako giltza ta kandaua eta Gotzaiñen ordezkariak parrokietara egiten zituen ikustaldietan, irulau bidar gogoratzen dabe indarrez ateak apurtuta sartzen ziranen aurkako asarrea eta iñoiz eleizatik kanporatuak izango ziran zemaia emon be bai.



## S. KRISTOBAL ERMITA





OIZ



S. KRISTOBAL

# MIKEL DEUNA

San Migel goiaingeruaren ermita, izen bereko auzunean dago.

Gaur, auzune au, gero ta uztuago ezagutzen dan auzoa da.

Ermita onek 8,95 x 7,10 daukaz neurritzat.

Ormak, arlangaitzez egiñak; egalak arlanduz. Beea, arlosaz estaldua.

Bere aurre-aldean, ur-bedeinkatu-ontziaren alboan, orman sartuta, buru bat eta gaíñean kurutzearen irudia daukazan ondar-arri luzenga bat.

Eleizpean, sakon sakonean, ogia erreteko laba.

Ermita zarra ta zaartuta da.

Astegun zurian joan ezkero, irudirik ez da ikusten barruan, auzoko baserri baten gordeten dabelako.

Asentzio jaiko letanietako egun baten, Gerrikaitz'eko parrokitik bertarako ibillaldia egiten zan.

Bertako jaia Irailla'ren 29'an edo urrengo jaian ospatzen da.

Oitura da jai egun orretan bazkaria eta erromeria bertan ospatu eta egitea.

Ermita au iñoiz parroki izan ete zan?

Jakiña da parrokietako eleizkizun asko ospatzen zirala bertan. Illobiak be egon zirala irakurten da.

Iturriza'k diñonez, 1554 urte arte parrokitzat egoan.

Parroki edo ermita au izan zan bertako patroi ziran Juan A. Muxika eta Teresa G. Billela'k Markiña'ko Kareaga Batxillerrari bere eskubideak trukatu eutsezana 1478'ko Urrilla'n, irureun eta ogei ta zortzi milla (328.000) marauen ordez.

Eta Kareaga batxiller orren loba batek, 1550 urtean, Munditibar auzora aldatzea erabagi ebana, bertako eleiztarrentzat erdigune lez auzo ori egiten zalako.

Orren aurka jarri ziran Arbazegi, Uriona eta Gerrikatarrak, baiña azkenean zentzu onak irabazi. Eleiza barria Martin Ruiz patroiak Pedro Zubikona "Olajauna"ri erositako soloan egin zan, baiña irudiak eta jantzi sagaratuak Arbazegitik ekarri ziranean, asarreak lenengo eta gero astiñaldiak egon ziran Munditibar'ko Kofradikoen artean eta Arbazegi, Uriona eta Gerrikatarren artean, Bengolea'ko Sagastiluze deiturako tokian.



MIKEL DEUNA



MIKEL DEUNA



MIKEL DEUNA



MIKEL DEUNAREN ERMITA



KAPITEL BAT

# SANTA EUFEMI

Santa Eufemi'ren omenezko ermitak lau beintzat ba dagoz Bizkaia'n.

Urregarai edo Atxgarai tontorrekoa, Aulesti'n.

Arauna auzoan, Elorrio'n.

Irazola auzoan, Abadiño'n

eta Goenola'koa, Arbazegi-Gerrikaitz onetan.

Azken au Arbatzegi eta Albiz-Mendata arteko lurren mugan dago, piñu artean.

Gola auzoa deitzen dautse. Nik Markiña'ko Karmeldar fraileen konbentuan gordeten.daben Iturriza'k eskuz idatzitako liburuan Goenala edo Goicola izena geiago irakurten dot. Gola baiño luzeago beintzat, nai ta gaur Gola erabili.

Arbatzegi'tik Gernika'rako bidean, 41 zenbakidun kilometro inguruan, ezkerretara, eta ibaiko zubia baiño lentxuago dagon auzo bidea artu bear da bertarako.

Ermita txikia da, 8,64 x 6,40 metrotakoa.

Arlankaitzez egiñiko, alboak arlanduz txukunduta.

Eleiz atadian, ormari josita, antxiñako aldare bat, arrizkoa. Eta inguruan arrizko illobi zar andi batzuk.

Gerriko mindunen kutuna da santa au. Gerriko mindunak ba dakie ermita onetara miñen arintzea eskatzera etorten.

Beste aldetik, aize zakarrtan ba dakie baserritarrak santaoneri erregu egiten. Intxaur, gaztain, sagar eta frutuen zaintzalle ontzat dauke.

Urteak dira jairik ospatzen ez dala bere egunean.

Len Mendata'ko parrokitik egiten zan, letanietako denboretan, erreguzko ostera bat eta ura badeinkatu eta etxera eroaten eben eleiztarrak. Eta Udaletxearen kontura ogi eta pattarra emoten eutsen.

Sorgin kontuetan jakin eta entzuten dan lez, sorgin leku izan zan iñoiz toki au eta ermita egin zanean eskutatu edo bertatik iges egin ei eben eta arrezkero bertakoak baketsuago bizi.

Gaur ermita au Gola baserriaren jaubetasunekotzat ezagutzen da. Eskriturak Juan Gerrikagoitia Gandarias'en izenean dagoz.



**SANTA EUFEMI**



# SAN SALBADOR

Edo Salbatore.

Iturriza'k, bere istorian, bear ba da Kristo'ren zeruetara igoera iruditzen dalako, Asentzio deitura emoten dautsa.

Berreño Kofradian dago.

Arbatzegi-Gerrikaitz'etik Gernika'ra goazala, 44 km. inguruan, eskumalderako bidea artu eta esateko bertan aurkitzen da ermita.

Ermitaren neurriak: 8,80 x 6,30 dira.

Arlangaitzez egiñiko ormak, egalak arlanduz artuta.

Alde bitarako tellatua. Kanpai torrerik ez. Kanpaitxoa ermita barruan dago, abe batetik dindilizka.

Aldareko irudiak: Salbatore (Asentzio) eta aldara olean, Pedro eta Paulo deunen irudiak.

Bertako jaia Dagonillean, Abustuan ospatzen da, íllaren 6'an, Kristo'ren irudi aldaketa Eleizak gogoratzen dauan egunean, baiña urrengo domekan ospatu.

Auzotarrak alegintzen dira ermita zar au alik ondoen zaintzen.

Inguruan daukazan etxeak: Etxebarri, Goikoetxe, Intxaurra eta Zelaikoa, laurak Berreñogoitikoak eta Agerre, Bengoetxe, Goitia, Ieltzeria eta Uriarte, Berreñebeitikoak.

Ermitatik laster, ieltzu obi (kantera) bat, gaur erabilten ez dana.

Esan bear ermita au Kanpona mendiaren saietsean dagola, itxas neurritík 215 metrotara.





**SALBATORE ERMITA**



SALBATORE ERMITA



SALBATORE
(ASENTZIO)
ERMITA

# SAN LONTZO

Orrela deitzen dautse ermita oneri.

Piñu artean dago ermita au, itxasoko neurritik 220 metrotara.

Parrokiz Gerrikaitz'eko Andra Marikoa da, eleizaz. Jaubea Antorrena etxea da.

Ermita txikia da, 5,50 x 4,45 metro. Arbatzegi-Gerrikaitz'eko txikiena.

Ba dirudi ermita au, bere egitura ikusita, oraintsukoa dala eta bear ba da inguru onetan egon zan beste San Lorentzo'ren ordez egiña izan leike.

Beste a Sanlleunte lez ezagutzen zan.

A bai, ba egoan beintzat 1690 urterako, bertako liburuak orduntxe asten diralako.

Kalahorra'ko gotzaiñak agindu eban ermita a adesegin eta barri bat egitera 1793 urtean.

Baiña 1842 urte inguruan, gobernua jaubetu zan bere ondasunekin. Jakiña da beintzat ba eukala bere inguruan bear lez mugatutako aritz-mendi bat.

Bere inguruan egoan "Sanlleunte" baserria be, orma zarretan geratu zan.

Emen gogoratzen dogun oraingo au adrilluz egiña da. Ondo zainduta dago.

Dagonillean (abustuan) izaten da San Lorentzo eguna, eta egun orren urrengo domekan eskintzen da bertan meza santua, baiña erromeririk ez da ospatzen.



**S. LONTZO**





# SANTIAGO APOSTOLUA

Aldaka auzoan dago.

Arbazegiti'k Gerrikaitz'erako bidean, 44 kilometro inguruan, ezkerretarako pista bat artu bear da eta andik kilometro bira dago ermita au.

Santiagorako erromeses atseden lekua izaten zala esaten da. Kurutze'ko baserri aurretik igaroten zala, esaten da, antxiñako galtzara bat, erromesan igaroten ekiena.

Ermitak 8,60 x 6,20 daukaz neurrietan, kanpotik arlanduzko iru eutsigarri lodi ego aldetik eta beste bi iparraldetik daukazala.

Ermitaren tellatua, urak alde bietara zabaltzen dauzana.

Barruan, auzoko zaindari dan Santiago eta Andra Mariaren irudiak.

Beea arrizko losakaz estaldua.

Amasei urte inguru dira eleiza au barriztatu zala.

Urteko jaia Santiago egunez ospatzen da, meza ta guzti, baiña erromeririk ez. Egun orretan bertaratzen diranei ardau eta galletak eskeintzen yakoez.



**SANTIAGO ERMITA**



SANTIAGO



SANTIAGO ERMITA



SANTIAGO ERMITA

# SAN JUAN

Totorika auzoan, pista bide egaleko tontortxu baten, piñu artean, erritik kilometro ta erdira dago, auzoko baserririk geienen egalean.

Arlangaitzezko ormak daukaz, arlanduzko egalekaz.

Alde bietara urak jaurtiten dauzan tellatua.

Beia, barruan, zementozkua. Aldare nausiaren aurrea, lurrezko baldosekaz.

Irudiak, imajíñak: Andra Maria eta San Juan.

1966 urtean barriztatua da.

San Juan egunaren urrengo domekan ospatzen da bertako jaia.

Oitura danez, san-juan lora txortak bedeinkatzen dira, bai eta arto, sagar eta bestelako frutuak.

Ermita egalean egiten da San Juan sua jaiaren bezperan, Ermitondo deituraz ezagutzen daben tokian.

Ermitaren neurria 10,20 x 6,95 neurrikoa da.

Itxas neurritik 379 metrotara gorago dago.

Gerrikaitz'eko Andra Mari parrokiko diran San Lorentzo eta Oiz'ko San Kristobal kenduta, beste ermita guztiak lez au be San Bixente parrokiaren mendeko da.



SAN JUAN





**SAN JUAN**



# ERMITA IZATEA GALDUTAKOAK

## SAN ESTEBAN

Ermita izan zan.

Ezin esan gaur emita danik, beste zeregiñetarako, kortatzako erabilten dalako.

Ermita au Zuzaeta baserriko jaubeak jasoa da, 1580 urte inguruan.

Berea eban ermita onek, bere inguruan, bera erdian geratzen zala, lau estadiko lurralde bat.

Dirudianez eleiza eta jaubearen arteko zerbait gertatu zan. Bertako Kontuetako Liburuak parrokian egozan, baiña kandaduaren kandaduaren giltza jaubeak.

1768 urtean gotzaiñak egindako ikustaldian agindu eban, noiz jausita egoala eta bere ormetako bat goitik berako etenekaz egoalako, arriskutsu ikusten ebala bertan egotea eta konpondu ezik, bertan mezarik ez esateko.

Ango maiordomu eta Zuzaeta'ko jaunak esan eban, bere kontura konpondu eta zaintzeko gertu egoala, bertako kontu liburua berari emon ezkero, eleiza bere lurretan jasota egoalako eta bere etxearen alboan.

Bost urte geroago, 1773 urtean, oar bardiña egin eutsen eta bear zan garbitasunez itxi arte ez zala mezarik bertan geiago esango. Eta oar au erriko alkateari eta Zuzaeta'ko etxe jaunari jakin erasi eutsan San Bixente parrokiko abadeak.

Itxuraz eztabaidak jarraitu eben eleiza eta jaubearen artean. Beintzat ogei urte geroago, ba dago liburuan adierazpen bat jakin eragiteko ermitaren inguruko mendia saldu egin zala, gobernuak ezarritako zerga (kontribuziñoa) ordaindu al izateko.

Baña geroago, 1836 urtean ikusten da ogetamar kintal kare ordaindu zirala jausita egozan ormak jaso eta zuzentzeko.

Ermita onetako kontu liburua 1726 urtean asi eta 1836 urtean amaitzen da.

## SAN PEDRO

Zin egiteko ermiten artean agertzen da.

Iru irudi egoten ei ziran ermita onetan: San Pedro erdian eta egal banatan Andra Maria eta San Martin.

Itxuraz ondasun ugarídun ermita izan zan. Bere jaubetasuneko zan patroiaren etxetik burdiñola arteko eta errekatik burdiñolaren baltsa arteko arboladia.

Independientzi gerratea deitzen zan aldian aldarak eta pulpitoa desegin eutsezan, eta konpontzeko dirurik ez eta arbolak saldu ziran.

Orretarako baimena lortu zan.

Jose Jabier Larrinaga San Bixenti'ko abade zala, alegindu zan gotzaitegiak aginduta lez, ordurako beratuta egozan San Lorenzo'ren Aspiz'ko ermita eta beste onen ordez ermita barri bat bien izenean jasotera. Baiña oraindik ermita barria orma uts eta tellatuagaz bakarrik egoala il zan.

Itxuraz ermita au egon zan tokia San Bixente parrokiko eleizta-rrentzako kanposantu lez erabili izan zan.

## KRISTO GURUTZETUA

Txikia ei zan ermitatxo au, Gerrikaitz'en egoan ospitalaren orma joten. Otoileku txiki bat.

Agiri bidez ikusten danez, 1562 urtean baimena emon eban gotzainak bear zanean bertan meza emoteko.

Gerrikaitz'ek eukitako sute andi baten erreta geratu zan.



**SAN ESTEBAN**

# ERIOTZAK ARBATZEGI ETA GERRIKAITZ'EN

Urte bat artuta, lengo gizaldiko 1812 urtea artu dot, ain zuzen Iturriza istori idazlearen il-agiria ezagutu naia euki dodalako.

Eta eriotzei buruz, parroki bietako agirietan, bereiztasun bat billatu dot.

Andra Mari'ko abadeak etxeen barri agertzen ekian, agiriaren ertzean, eta orrek erriaren ezaupidea agertzen dau. Esateko lez, norbere abizenez baiño obeto ezagutzen dala jendea etxeko deituraz.

Parroki bietako arduradunak bardintsu jokatzen dabe bestelako zeaztasunetan. Bietatik iñok ez dau agertzen zelako gaixoz II zanik.

Igarten da umeak erraz ilten zirala, baiña zartzarora be ugari eltzen zirala.

Esateko, 1812 urtean, Andra Mari parrokiko oneik il ziran:

Urtarrilla'k 11.- Mari Madalen Anitua, 57 urteduna.

Apirilla'k, 12.- Juan F. Mendiola, lau illebetekoa, Zabaliturriaga'koa.

Maiatza'k 10 - Jose Zuzaeta, 70 urte.

Bagilla'k 11.- Benito Urionagoena, 80 urte.

Oraiñarteko guztiak kanposantuan obiratu (enterratu) ziran. Emendik aurrerakoak eleiz barruan.

Urrilla'k 7.-Jose P. Urriolabeitia, ille bikoa. Aritxarroaga'koa.

Urrilla'k 22.- Jose Bilbao, amabost egunetakoa. Zuberoeta Benta'n.

Azilla'k 6.- Mari Tere Egia, urte bikoa. Zubibarriaga'n.

Abendua'k 19 - Maria Ana Zelaia, 85 urte, Maitresena etxean.

Abendua'k 22 - Juan Gorroñogoitia, 77 urte, Elejalde'n.

Beraz bederatzi lagun il urte guztian parroki onetakoak, euretatik lau urte bitik berakoak, beste bat 50/60 bitartekoa eta besteak 70 urtetik gorakoak.

SAM BIXENTE PARROKIAN

Emengoen artean amairu lagun il ziran. Ara zeaztasunak:

Otsaílla'k 4 - Filipe Larruzea, 19 urteduna.

Otsailla'k 8 - Josefa Gorrotxategi, 62 urteduna.

Apirilla'k 9.- D. Bernabe Arteatx 63 urteduna.

Apirilla'k 20 - Juan Arostegi 62 urteduna.

Maiatza'k 3 - Jose Uriona 67 urteduna.

Maiatza'k 20.- Jose Mugira 17 illabete.

Bagilla'k 3- Katalina Arteatx 5 illabete.

Oraiñartekoak kanposantuan lurperatuak. Emendik aurrerakoak eleiz-barruan.

Irailla'k 10-Juan Ramon Iturriza, 71 urte.

Urrilla'k 6 - Juliana Usaola, jaiobarria.

Urrilla'k 27- Madalen Jaio 67 urte.

Azilla'k 14 - Ines Mallea, 20 urte.

Abendua'k 14.- Madalena Gerrikabeitia, 40 urte.

Abendua'k 29 - Ana Jaio. 86 urte.

Guztira amairu:

Urte bitik berakoak, iru.

1/20 urtetako, bi.

40 urtedun bat.

60/70 bitarteko, bost.

70'tik gorako bat.



**IL - ERRIA**

# ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ 1928 URTEAN

1.061 bizilagun eukazan izatez.

Eskubidezkoak sartuta 1.242.

Alkatea: Jose Atxaerandio.

Idazkari: Erramon Gerrigagoitia,

Epaikari: Karlos Urionabarrenetxea.

Fiskala: Zipriano Uberuaga.

Parrokietan:

Parrokoak: Buenabentura Larruzea eta Jose Mari Zuzaeta.

Laguntzailleak: Markos Aboitiz, Eugenio Aranaz eta Antonio Astorkia.

*Denda eta zerbitzuak:*

*Bizartegiak:* Amesti, Ponziano; Arrate, Elias eta Azpiazu, Santiago.

*Aroztegiak:* Azpiazu, Agustin; Azurmendi, Jose Mari; Bernedo, Joakin; Irazabal, Jose eta Irusta, Domingo.

*Jatetxeak:* Gerrikabeitia, Teodoro.

*Otzarak:* Artiatx, Markos.

*Janari dendak:* Atxaerandio, Jose; Mugika, Jose; Solozabal, Tomas; Uribe, Juan Jose; Urioaguena (Anselmo).

*Elektra-indarra:* Irurak-bat.

*Errementariak:* Lizundia, Martin.

*Inkiñeruak:* Gerrikabeitia, Franzisko.

*Egurrak:* Atxaerandio, Jose; Gerrikagoitia, Teodoro; Jayo, Isidro; Uriarte (Bonifazio).

*Osagilleak:* Gerrikabeitia, Pedro.

*Kinkalla:* Gerrikagoitia, Erramun.

*Zerrak:* Atxaerandio, Bonifazio.

*Tabernak:* Intxausti, Juan Jose eta Aranguena, Juan.

*Eunak (telak):* Urionaguena, Anselmo.

*Igeltzua:* Martitegi, Erremigio.

*Komunikabideak:* Urrutizkiña, telefonoa ba egoan. Eta ibíllaldietarako Murelagatik Gernika'rako kotxeak.



ITURRIA



IGELTZUTEGIA

# ARBAZEGI ETA GERRIKAITZ, GORA ALA BERA?

BIZIU\GUNAK

Eten eziña dirudi Arbazegi eta Gerrikaitz'en berakadak bizi-lagunetan.

Begiratu eta aztertu bertako adierazgarriak,

| | | |
|---|---|---|
| 1900 urtean, | 1.172 | lagun bizi ziran bertan. |
| 1920 urtean | 1.053. | |
| 1940 urtean | 1.075. | |
| 1960 urtean | 972. | |

Eta ortik aurrera, gaur, 41 urte geroago, 1960 urteko erdirik be ez.

Urterik urte bera ta bera.

Ara azken sei urtetako kopuruak.

1986 urtean498 bizi-lagun.

| | |
|---|---|
| 1987urtean | 487. |
| 1988urtean | 488. |

Lagun bakarra geitzea be itxaropentsu zan. Besterik ezean berakadari eutsi. Baiña ezin ametsik egin. Urrengo urtean.

| | |
|---|---|
| 1989urtean | 480. |
| **1**990 urtean | 455. |
| 1991 urtean | 447. |

ERRIKO AURRE-KONTUAK (PRESUPUESTOAK)

Bizi-lagunen kopuruak alde batean ikusi eta bestean Udaletxeko aurre-kontuak ikusita, edonok esango leuke bizi barria artzen duan erria dala. Aurre-kontuak (presupuestoak) erriaren bizi-ezaugarri eta adierazgarri ba dira, gaitz ori sinistutea,

Ikusi 1980 urte ezkeroztik, zelako udal edo erriko presupuestoak euki dauzan erri onek:

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1981 | urtean | 3.357,060 | peseta. |
| 1982 | " | 3.600.000 | |
| 1983 | " | 4.300.000 | |
| 1984 | " | 5.939.428 | |
| 1985 | " | 6.100.000 | |

Eta azken sei urteotan, euneko ainbestekotan aztertuta, erri askok euki izan ez daben gorakada:

| | | |
|---|---|---|
| 1986urtean | 7.400.000 | pesetakoa. |
| 1987 urtean | 44.845.233 | |
| 1988urtean | 31.938.039 | |
| 1989urtean | 49.295.000 | |
| 1990urtean | 54.340.000 | |
| 1991 urtean | 83.060.000 | |



**GERNIKAKO ARBOLA**



**LIREZ BAHAZ EGARRI**
**HONAXE BEHAR DOK SARRI**
**SAN PEDRO ENPARANTZA**
**1979-6-29**



SINDIKATOA



LERTXUNDI'REN EDER LANA



TXORINEKOA



MUNITIBAR'KO PARKEA

# PELOTA TOKIA ETA PROBA LEKUA

Arbazegi eta Gerrikaitz'ek bere jokoen zainketa maite izan dau beti eta eurei eusteko gogoa.

Orrelako baserri-erri baten, pelotea eta probak lako jokorik ez. Tokia bear. Plazak gertu eta egokitu bear. Nun jokatu egon ezkero ziurrak dira probak eta pelota jokoak. Erriko jendea batu eta auzoe-takoak be erakarteko erarik ziurrena.

Udaleko líburuak irakurriaz, 1955'ko Bagilla'ren 25'an egindako batzar agirian au irakurten da:

Udal batzarrak ao batez onartzen ebala erri enkantea (subastea) Udaletxearen barriztatze eta pelota leku bat, frontoi bat jaso al izate-ko, Kastor Uriarte arkitektoaren diru eta teknika baldintzapean.

Eta enkantearen oñarria 379.486,14 pesetakoa izango zala, euretatik 297.826,59 Udaletxearen barriztapenerako eta 81.659,55 pelota lekurako.

Batzar aretan, alkate lez, Franzisko Zenikaonaindia Martitegi agertzen zan eta ziñegotzi lez, kontzejal lez, Biktorio Belaustegi, Jose Mallea, Antonio Eguen, Bonifazio Zenikaonaindia, Biktoriano Astorkia eta Santiago Rementeria

Ori irakurrita, enkanteko deia Bizkaiko Boletiñean agertu ondo-ren, ogei egunetara egiteko zan enkantea (subastea).

Gero zer gertatu zan?

1956 urteko Apirilla'ren 17'an izenpetuta, Kastor Uriarte arkitek-toaren irizpide bat billatzen dogu.

"Jauregi" etxeari buruzko argipide txostena da.

Bertan esaten da, kanpoko ormak, batez be errekara joten eban atzeko aldea, eta egurrezko barruko egitura noiz jausiko egozala, eta ainbat ariñen beratutea komeni zala.

Tellatuko abedi (armazoi) eta barruko egiturako gaikiak, eta batez be gaztañazko zurrunak (solibak) eta goiko tellak, arlanduzko egalak, ateak, leio eta abar beste toki batzutarako baliagarri zirala eta origaitik etxe beratzea kontu andiz egin bear zala, bertako zati eta zakarrak atzeko aldea bardintzeko erabiliaz, atze alde au berago egoalako beste lurraldearen neurrian.

Eta komeni zala beratuteko lanak ardura andiz egitea; orretara-ko argin eta arotz ofizial bi erabiliaz eta beste sei pioi, danak bear lez arriskutarako babestuta.

Lan ori 25.000 peseta kostatuko zala uste zan.

Zetarako "Jauregi zarra", Arbazegi'ko istorian etxerik jatorrena zana, deseginduta itxi?

Itxura baten, ille batzuk aurrerago, pelota tokia zala ta egin ziran ametsak, aldatu egin ziran.

Urte beste geroago, 1957'ko Apirillean, Kastor Uriarte jaun berberaren egitasmu bat agertzen da: "Proyecto de Frontón y probadero de Bueyes" en Arbazegui y Guerricaiz.

Eta egitasmu onetan zeaztasun oneik emoten ziran pelota tokiari buruz:

Luzeran, 50 metro.

Zabaleran, 10 metro.

Kantxa-aurrea, 5 metro.

Krontis (aurrean) luzera, 10 metro.

Frontis (aurrean) zabalera, 11 metro.

Frontis gaiñean, luzera azkea, 3 metro.

Zolan, lur gaiñean, zementuzko kapa eta asfaltoa.

Pobra-lekua kontra-kantxaren ondoren.

Aurre-kontua, presupuestoa, 1.860.734,50 peseta.

Agerpidean esaten danez, bearrezko zan pelotatoki andi bat egitea, bertako mutillak ikastera Markiña'ra osteraka ibili barik, orrek eukazan gastu, denbora galtze eta abar kontuan eukita, errian bertan ikasi egien eta gero emen be gaztien arteko jokoak egin al izateko eran.

Orretarako bearrezko zan "Jauregia", etxe zar a, desegín eta bera jaurtitea eta alaxe egin zan.

Ango zutoi eta itxuragarri batzuk san Bixente'ko eleiz ingurua txukuntzeko erabili ziran.

Gero, 1957'ko Uztailla'ren 31-ko batzarrean jakin eragin zan, pelota tokia eta proba-lekua egitearen enkantera, egille bat bakarra agertu zala, Juan Elorza eta Apraiz Lekeitio'ko bizilaguna eta bere eskintza 1.692.500 pesetakoa izan zala.

1958'ko Apirilla'ren 18'an egin zan Udal Batzarrean onartu zan lan orreik egin al izateko aurrekontu berezia. Batzar aretan Franzisko Zenikaonaindia alkateagaz batera, Biktorio Belaustegi, Bikotoriano Astorkia, Santiago Rementeria, Nikolas Lejarregi, Jesus Zabala eta Jose Ibaibarriaga ziñegotziak batu ziran eta ontzat artu eben 2.200.093,66 pesetako aurrekontu berezi bat. Or sartzen ziran udaletxeko arduradunaren geigarri bat, pelota toki eta proba-lekuaren egitura, San Pedro plazako orma eta bardinketa lanak eta lan orreitan gerta leikean premiñaren baterako dirutza.

Orrela pelota-tokia eta proba leku barria egin al izan ziran eta 1959 urtean zabaldu.

Eta bertaratzen diranak arrituta geratzen dira erri txiki baten ainbesteko tokiak ikusi eta euki al izateagaz.



PELOTATOKIA




PELOTA
TOKIKO
ORMAN



ENPARANTZA



PROBATOKIA

# AZKEN URTETAKO DEMOGRAFIA

**Jaiotzak**

1981.- Joseba Uberuaga Natxiondo.
Eneko Ibaibarriaga Varela.
Alexander Bingen Ibaibarriaga Varela,
Joseba Olea Zabala,
Maider Olasolo Urionabarrenetxea.
1982,- Lorea Belaustegi Goitiz,
Endika Zuazo Balenziaga,
Jon Ormaolea Garitagoitia,
Eneritz Belaustegi Oar.
1983- Iratxe Belaustegi Oar.
1984- KepaZaldibar Bilbao,
Yon Arrate Urionabarrenetxea,
Zorion Barinagarementeria Korta,
Amaia Zugadi Mallea.
1985- Unai Zabala Olabe,
Andoni Olea Baraiazarra.
1987- Ander Uberuaga Larruskain,
Mikel Rezusta Onaindia,
Itsaso Zugadi Mallea,
Ander Azurmendi Intxausti,
Joane Lapresa Martínez.
1988- Itsaso Zabala Olabe,
Matxalen Etxebarria Mallea.
1989- Leire MeabeAgirre,
Uzuri Albizu Mallea,
Mikel Uberuaga Aginaga,
Josu Zaldibar-Gerrikagoitia Bilbao.
1990- Aritz Zenigaonaindia Armaolea,
Adei Basterretxea Rementeria,
Díana Ibaibarriaga Varela.
1991.- Ander Malax-etxebarria Ibaibarriaga,
Peru Mintegia Mendieta,
Josu Barinagarementeria Arriaga.

Ikusten danez amaika urteetan guztira 33 lagun jaio izan dira. Euretatik 21 gizonezkoak eta 12 emakumezkoak.

## Eriotzak

1984- Sebastiana Ondria Astorkia,
Juana Belar Goiriena,
Juana Bilbao Mendibe,
Rosario Gerrikabeitia Arriaga,
Juana Zaldibar Gerríkagoitia.

1985- M.ª Karmen Olaza Urizar,
Pedro Urionaguena Etxebarria,
Bonifacio Zenigaonaindia Martitegi,
Joseba Ipinza Onaindia.

1986- Anastasia Urizar Urizar,
Emeterio Ituarte Aranaz,
Maria Malaxetxebarria Arrate,
Alejandro Ibaibarriaga Mendibe,
Martin Urriolabeitia Bilbao,
Jose M.ª Uberuaga Astorkia,
Felisa Arriaga Jaio,
Bitoria Urionabarrenetxea Urionaguena,
Bonifazio Gerrikabeitia Longarte,
Galo Ipinza Onaindia,
Trinidad Goitia Garai,
Pascuala Badiola Urionabarrenetxea.

1987- Sabino.Armaolea Barinagarementeria.

1988- Jose Maria Magunagoikoetxea Martitegi,
Pedro Osa Rekalde,
Angela Etxarte Atxurra,
Juan Jose Mallea Bilbao,
Emilia Andriñua Etxebarria.

1989- Bitoria Meabebasterretxea Jaka,
Jose M.ª Gerrikabeitia Gerrikagoitia,
Marcos Ibaibarriaga.

1990- Jose Antonio Urionaguena Urionaguena,
Juan Antonio Muniozguren Zenigaonaindia,
Alejandra Lizundia Jaio,
Benito Irazabal Mendiola,

Maria Zabaia Martiartu,
Jesus Muniozguren Bernedo.
1991.- Tomas Armaolea Zuzaeta,
Irene Urresti Urresti,
Jose Manuel Zarragoikoetxea Larruskain,
Juan Irazabal Ituarte,
Gabriel Lapresa Bilbao,
Andres Barinagarementeria Egiguren,
Franzisko Atxaerandio Gonzalez,
Concepcion Gerrikabeitia Martitegi,
Isidora Etxearte Atxurra,
Felix Arrate Armaolea.

Oartu zortzi urte erabili doguzala eriotzetan eta illak 46 dirala. Euretatik 23 gizon eta beste 23 andrazko.

Eriotzetatik jaiotzetara dagon aldia nabarmena danik ezin ukatu.

| | |
|---|---|
| Eriotzak, azken zortzi urtetan, | 46 |
| Jaiotzak, azken amaika urtetan | 33 |
| Alderantzia, gitxiago | 13 |





BERREÑOKO IKASTOLA



IKASTOLA

# ZAINTZEA MEREZI DABEN ETXE ETA INGURUAK

Ba dira amar-amabi urte Arbatzegi-Gerrikaitz'en bertako etxe, zubi, agerpen eta egiturei buruzko sailkapen bat egin zala, batez be euren zer ikusi, egitura, antxiñatasun, kondaira eta abarretan eragiña euken edo euki ebenei eta euki leikenei buruz.

Erraz galdu dira erri askotan bertako jatortasuna erakutsi edo zainduten eben egitura asko. Erriari izena, nortasuna eta duintasuna emon eutsen asko. Eta neurriak artuta be, erri txiki askoren gaurko aultasuna eta euretako baserrien uztutzea ikusita, gaitz lortuko da erriaren izatea eta osotasuna zaintzea.

Istoria be pobretu egiten da, bere ziñaldari edo lekukotzat geratzen ziran etxe eta tokiak, edo zubiak, eleizak eta abar, eta bestetik ezean ormak eurak be jausi, zapaldu edo lurperatu, edo ta euren izateari egitura eta itxura jatorra galdu eragin ezkero.

Edozetara be munitibartarren ardura eta kezka txalogarria izan zan eta erri-maitasuna erakusten eban.

Jakiña da askotan onelako erabagiak, euren askatasuna kentzen dautsela jaubeei edozein eraikuntzarako, askotan traba izaten dirala bakoitzaren jaubetasunean, baiña azken baten uste da erriak eta etxe -jaunak, erri-maitasunak ikututen dauzala, eta beti egoten dala konponketarako eta ulermenerako bitarte bat. Gauza da erri-arduradunen kezka agertu eta erakusten dala orrelako erabagietan.

Etxe eta toki guztien azterketa egin zan, argazkiak be atara ziran eta gain-gaiñeko sailkapen erraz bat egin zan erriko ondasunen artean.

Sail bitan sartu ziran Udalaren ardura eskatzen eben etxeak eta tokiak.

Batzuk, **zaintza berezia, ardura berezia,** merezi ebenak.

Besteak **zainketa soil**

Ardura premiñarik eskatzen ez dabenak be ainbat geratzen dira.

**Zaintza berezia** eskatzen dabenak, Udaleko kondaira eta arteko ondareak dira. (Erriko arte eta istoriako monumentuak) Sail onetan irurogei ta zazpi (67) etxe eta toki sartu ziran.

Zainketa soillean, irurogei ta amalau (74).

Ara **zaintza berezian** sartu ziranak, auzoz auzo:

Gerrikaitz'en

Abadetxea.
Andra Mari eleiza.
Bostekone.
Kallejakoa edo Txaparro zarra.
Mari-Zarrena (jausia) Barrenkalean.
Pontxianona.
Txoriena.

Uriona'n

Uriona Barrenetxea.
Uriona Etxebarria,
Uriona Goena,
Uriona Ormaetxea.

Garro'n

Otaolea

San Mikel'en

Agorria.
Altamira.
Arbatzegi.
Arbatzegi Potzueta.
Goikolea.
Mendiolea.
San Mikel.

Kaltzada'n

Abaituena.
Urtia (Urtiaga).

Okiz'en

San Kristobal.

Arbatzegi'n

Andutza bekoa.

Aransolo.
Azkarreta.
Errementarinekoa.
Kontsejukoa (Eskola zarra).
Mixpilleta zarra.
Olaldea-Errotako etxea.
San Bixente.
Zarrabe (Gillestegi).
Zubialdea.

Zubiaurre (abadetxe).

Totorika'n

San Juan.ermita.
Totorika Gojeaskoetxea (Gosketxe).
Totorika Goinena (Junena Etxebarri).
Totorika gurpidea (Gurpide).
Totorika Larrinaga (Larrinaga zarra).
Totorika Jauregi (Jolapitxine).

Aldaka'n

Aldaieta.
Aldaka Aurtenetxea.
Aldaka barrenengoa.
Aldaka goiena.
Aldaka zabal.
Aldola azpi.
Aldola gane.
Arrospide.
Berreño Aurtenetxe.
Berreño Bengoetxea.
Berreño Etxaburu.
Berreño Goienetxea.
Berreño Goitia.
Berreño Intxaurraga.
Berreño Uriarte.
Berreño Zelaia.
Loitia.
Olabarria.
Orueta.
San Salbador.
Santiago.

Santa Eufemia.
Zuzaeta.

Gerrika'n

Gerrika Beitia.
Gerrika Etxebarria.
Gerrika Gaztañeta.
Gerrika Goitia.
Santa Luzia.

Zaintzea bakarrik, au da, zaintze soilla eskatzen daben tokiak, beste oneik dira:

Gerrikaitz'en

Arotzana (Itxuraz len Errementarikoa egon zan emen).
Auzpengoa, (antxiñako "Barkinero" izan ete zan?)
Bengolea.
Goiko eskoletxe, (Edo Antoliñena).
Jose-kale (Jose Maríkalena/Kalekoetxea).
Manzarrerune (Sakristauena).
Paradisukoa.
Taberna zarra (Elbirena?).
Torrekoa.
Zabalatxona.

Uriona'n

Txarrogarate.

Garro'n

Garro etxetxu. Garro.
Garroko zubia.
Olatxu errota.
Motaburu (Motaune).

San Mikel'en

Agorri errota,
Barrutieta.
Mendiola.

Kaltzada'n

Ajorabide.
Antontorrena.
Larrondo.

Ganbe'n

Beresiena-Bezikoa.
Ganbe.
Zabale.
Zuberoeta (Zuberuta).

Okiz'en

Iparrola (Iporla).
Mikola.
Okiz.

Arbatzegi'n

Barrenengoa.
Basterrekoa.
Elejalde.
Elortza-errota.
Errota-ola.
Iturrikoa.
Josebitorrena edo Aldoberiaga.
Leonena edo Abarketeruena.
Leonena edo Beti jai.
Mintegi.
Oloste.
Serra zarra.
Txoriñe, Elejalde.
Uribai.
Zubikoa.

Totorika'n

Ajenda.
Arrizabalaga.
Etxetxu.
Gardena.

Junena.
Larrínaga barria.
Lezeeta.
Mallena (Lallie-Jauregibekoa).
Montezuri.
Urrutieta.

Aldaka'n

Abaituena goiko.
Aldola Etxebarri.
Astorki.
Astorki Bengoetxea.
Astorki Goikoetxea.
Buluku.
Iturrondo.
Kurutzeko.
Malaxena.
Matxinena.
Otxandategi.
Sallobite (Sallunte).
Torre Etxebarri.
Unzilla.
Zubibarriaga.

Gerrika'n

Gorostieta.
Jaio gane.
Jaio Etxebarria.
Pagoleorraga (Pagoliorra).
Perratokia.
Santa Luzia'ko etxea.




**OLALDEA'KO ETXE DUINTASUNA**

**MIXPILETA ZAHARRA**



# ERRI DEITURA

1980 inguruan asi zan Arbacegui-Guerricaiz udala bere deitura egoki eta euskal grafiaz bereskuratu naian, eta bein orretan asi ezkero erri alkartu bientzat izen ofizial bat zeaztu naían.

Ala diño Estíbaliz Armaolea Arriaga, "Munitibarko Udaleko Idazkari habilitatuak" bere egiaztapen baten:

**MUNITIBARKO UDALA**
**ARBATZEGI -GERRIKAITZ**
*(BIZKAIA)*

ESTIBALITZ ARMAOLEA ARRIAGA, MJNITIBARKO UDALEKO IDAZKARI •HABILITATUAK,

EGIAZTATZEtT PU'T: Udal Batzar Osoak, Mila bederatzi-rehun eta larogeita laugarrengo Otsailaren lOean ospatutako Ba-tzar Arruntean, eta beste batzuen artean, erabaki hau hartu zue-La:

"6.- HERRIAREN *XZENA* ALDATZSA.- Batzarretaz kanpo hainbat al'diz aipatua izan den arazoa aztertzera jotzen da. Udal Batzaŕ Osoak, denen ahobatez erabakitzen *áu,* hontarako orain dela ea bost ur-te hasi eta bertan behara utzitako expedientea berriz aztertzea eta oraingoan, herriaren izen aldafcze hori azken punturaino era-matea, kulturako ordezkariak izen egokia MUNITIBAR (Arbatzegi-Gerrikaitz) litzakela azaltzen duelarik, zera *ezanaz,* iritzi hau ez dela berarena pertsonala, baizik eta Euskaltzaindiarena ere ba; .

*Udal* Batzarrak aldakuntza honi ongi deritxo'larik, gestioetan aurrera jotea erabakitzen du."

Hala ager dadin eta egoki diren ondorioak izan ditzan, egiaz-tapen hau eçiten dut, Alkate anderearen oneritziz, MJNITIBARREN (Arbatzegi-Gerrikaitz), nrila bederatzirehun eta larogeita bost-' garrengo Ekainaren Hamaikan.

ONERITZZA
ALKATEAK

Itxuraz ziurtapen au baiño lentxuago eskatu jakon Euskaltzaindiari bere irizpidea, erakunde orren erantzuna urte bereko Ekainaren bostean emona dalako:

Onela diño:

EKIN ETA JARRAI

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

**EUSKAITZAINDÍA**

**ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE**

Arbisto, 3 - Telífono 415 81 55

BILBAO-8

Joeo Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Toponimia Batzordeko Idazkari denak, ondoko

DIKTAMEN hau ematen du:

Elkargo akademiko honek prestaturiko ota onartutako Euskal Herriko Udalan Izendegian, bere 63 zenbakiaz datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: "Arbacegui y Guerricaiz"deitzen dena, euskal bertsio ofizial akademikoant MUNITIBAR da.

Bestalde, MUNTTIBAR elizatearen hirigunea tokiz aldatzetik dator, zeren eta bere enplazamendu edo kokagune zaharra Arbatzegi bai zen, hain zuzen gaur Arbatzei deitzen dena. Gertatu dena da, euskaldunak kokagunea aldatukeran, herriaren izena ere aldatu zutela, baina ez zutela aldaketa berbera egin historikoki instituzioekŕT^.

Bestalde, Gerrikaitz hiriaren, alegia- Bizkai eta euskal mendebalde guztiko formanjuriaren izena da, nahiz eta kasu honetan ere, Monditibar, concejo Monditibar, villa de Monditibar, iglesia de la Villanueva de Monditibar de Guerricaiz, etab. agertu. Beraz, orduko Monditibar ibarrean, gaur Munitibar deitzen denekoan kokatzen zen Gerrikaitz uria ere.

Guzti horregatik eta hiru izenok Munitibar, Arbatzegi eta Gerrikaitz, euskal toponomastiko izanik, zilegi da Batzorde honen ustez, hiru izenak gorde nahi izatea, eta Udalak administral tramitapenari hasiera emanaz eta Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen 10, artikuluaren arabera legeztapen ofiziala burutzeko, Beraz, MUNITIBAR/Arbatzegi-Gerrikaitz izena egokia da Udal horrentzat.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen dut Bilbon mila bederatziehun eta larogetabostgarreneko Ekainaren bostean.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Bízkaí'ko Aldundiak 1985 urteko Uztaillaren 23'an artu eban bere erabagia aldaketa orreri on ikusia emoten.

On ikusia erderaz dago eta onela diño: "Informar favorablemente el cambio de la denominación actual del Municipio de Munitibar-Gerrikaitz".

Eta Eusko Jaurlaritzako "Administrazio Lokaleko Sailburuordetza"k 1986'ko Urtarrillaren 22'an emon eban aldaketarako baimena, MUNITIBAR -Arbatzegi-Gerrikaitz" izan dedin.

Garbi ikusten da emen sartzen dogun fotokopian.

Eusko Jaurlaritza
Lehendakaritza - Saila
Administrazio Lokaleko Sailburuordetza

Gobierno Vasco
Departamento de la Presidencia
Viceconsejería de Administración Local

LEHENDAKARITZA - DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA
IRTEERA - SALIDA
23 ENE. 1986
Zka. 56 Nº
ADMINISTRAZIO LOKALEKO SAILBURUORDETZA
VICECONSEJERIA DE ADMINISTRACION LOCAL

MUNITIBARko Udala
Sarrera Zka. 54 N.º Entrada
Data 86-02-07 Fecha
BIZKAIA

Eueko Jaurlaritzaran Abenduaren 12ko 271/1983 Dekretoko hirugorren atalean jsrritokoorekin bat etorriz, Foru-Diputozioaren erixpenak eta Eunko1txo indiok amandoak ikusita, Lehendakaritza-Sailburuaren 1986.eko Urtorrilaren 1Oeko Aginduak aitortxen dizkidan agintepideezbaliatuz,

Toki-Arduralaritzarako Sailordetza honei zera ERABAKITZEN DU:

Arbacegui Guetricaiz uda1-izena aldatu «ta aurrerantzean MONITIBAR -Arbatzegi Gerrikoitz- Ízan dadinaren baimena enaten da.

Jakin dezazun eta dagozkion ondoriotarako diotaut hori jaun horri.

Gasteiz, 1986.eko Urtarrilak 22.

JAURLARITZAKO TEKNIKA-IDAZKARITZA NAGUSIKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ARTEZKARIA,
Horren ordez

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MONTIBAR -Arbatzegi Gerrikaitz- Udaletxeko Alkate Jauna

# KANTU ZARRAK

Gure erri askok daukez bakoitzak beretzat daukazan kantu zarrak. Ezin esan errian bertan sortuak díranik. Batzuk bai. Beste batzuk sortuak barik sartuak eta gero bertan geratuak.

Ala Azkue'ren "Cancionero Popular Vasco" dalakoan, Arbazegi edo arbazegitarrengandik batutakotzak agertzen dira kantu polit bi.

Bat "Eguen zuri" izenekoa. Kantu au beste erri batzutan be ezaguna da. Baiña sarri eukiten dau erri batetik bestera itzetan ez ba da musikan bere alderantziren bat.

"Eguen Zuri" kantu onek Arbazegi'n bertan doñu ez bardin bi daukaz eta letrak be bi.

Azkue'k diño bat Bilbo'ko "Hermanitas de los Pobres"ek euken zar eta gaixoentzako egoitzan bizi zan arbazegitar andratxu itsu batek erakutsi eutsala. Aratuste aurrean, eguen zuri egunetik zapatura bitartean abestuten ei eben, mutiltxoak, eskean.

Au da letra:

Eguen zuri, eguen baltz,
txakurra arrautza gañean datz,
baltz-baltztxoa maisuentzat,
zuri zuritxoa guretzat.

Egun bereko beste kantua Ursula Solozabal'ek erakutsi eutsan. Musika eta letra ez bardiñak dira lenengo aitatu dogunagandik.

Ara:

Eguen zuri, eguen baltz,
Oizko edurra baizen zuri,
kortako edeak baizen zal,
zal da zal, zal da zal

Zal berbari buruz esan bear dogu zail esanera bardiña daukala, au da giartsu, gogor. Azkue'ren esanetan, Bizkaian zail baiño geiago erabilten da zal. Ba dago beste berba bat toki askotan jakingo ez dabena: edeak, kortako edeak. Orretan ziurretik baserritarra izan bear. Guk kaletarrok erdal izena emongo geuntzakio, baiña esan bear edeak beien narruakin egiten diran lokarriak dirala uztarriak lortzeko. Arbazegitarrak barre egin leikie azalpen onegaz, baiña konturatu begie liburu au kaletarren batzuek be irakurri leikela ta eurentzat dua oar antzeko au, edo obeto esanda, argibide au.

# 937.-EGUEN ZURI




De Arbazegi (B.). Me la enseñó una cieguecita, natural de este pueblo, asilada en las Hermanitas de los pobres de Bilbao. Hasta hace unos 50 años, los niños de esta comarca acostumbraban a postular desde la víspera del día de Jueves gordo *(Egucn zuri)* hasta el sábado siguiente. No he podido recoger más letra, sino la media estroía que figura en la segunda variante.

Var. 2.ª de Arbazegi (B.), de Ursula Solozabal.




Beste kantu bat, Azkue'k atsegiñez batu ebana, "Gertu Españatarrak" izenekoa da.

Madalena Uriarte gandik jaso eban Arbazegi'n.

Azkue'k diño kantu au asko abestu izan zala karlisten azken gerratean.

Berbak, letra, zeiñena dan? Azkue'ek ez dau uste bertsolari edo erri poetaren batek egiña danik. Bere esanetan, darabillan euskera garbia da eta gaiñera era batzuk ez dira erriak erabiltzen dituanak. Esateko, erriak espaiñiarrak esaten dau eta Espaiñia, eta ez kantu onetan lez españatarrak eta España.

Bere ustez beste jakintsuago batek egiña dala, esan nai dau.

Dana dala auxe da kantua bere sei estrofakaz:

## 631.-GERTU, ESPAÑATAŔAK




DE MARÍA MAGDALENA URIARTE, DE ARBAZEGI (B).

ES UN POEMITA QUE MERECE SER PUBLICADO TODO ENTERO.

I. ***Gertu Españatařak*** (BIS)
***ez lo egin, geriu,***
***geure eŕeiftu maite au***
***eztaiten ondatu,***

II. ***óieonik galduenak*** (BIS)
***ditugus gaur buru,***
***España nal dabenak***
***betiko zapaldu.***

HL. ***Adi Españatařak*** (BIS)
***adi belařiak,***
***entzun nortzuk diraden***
***gure agintariak.***

IV. ***Esango deutsuedaz*** (BIS)
***egia garbiah,***
***edegi dakiezan***
***itsuai begiak.***

V. ***Ez uste direald*** (BIS)
***gaurko jaun bařiak***
***jauregi zabaletan***
***jaio la aziak.***

VI. ***Geienak orainarte*** (BIS)
***arlote jantziak,***
***itian dituez lagun***
***ugari zořiak.***

# BATEKO TA BESTEKO

## Gerrikaitz'eko siniste bat

Sekula ez dala aposturik egin bear bat gabean toki batera elduko dan edo ez urrunekoa ba da, orretara jokatzen dauanak uste izaten daualako ez dala elduko.

(Barandiaran, "El Mundo en la mente popular vasca. II. Tomoa. 95 orrialdea).

## Eskribaduak

Beti egoten ziran erri-eskribaduak, baiña 1762 urtean eskribadurik ez zala bear eta iñor barik geratu zan erria. Alaz eta 1800 urtean barriro eskatu eban eskribadu aukera eukitea.

## Misiolari ospetsua

"Euskalerria" izeneko aldizkarian, 1886 urteko bigarren sei illabetekoan (XV garren tomoan) au irakurten da:

(Gazteleniatik euskerara biurtuta). "Carolina ugartetan (isletan) Ebanjelioa erakustera joan ziran Aita Kaputxinoak egindako karta baten esaten da Euskaria'k onore aundia lortu dauala Yap islan lenengoz Meza esan dauana Arbazegi eleizateko Munitíbar'en jaiotako euskaldun batek esana izan dalako".

## Suteak

173Tn 21 etxe erre ziran Gerrikaitz'en. Bizkai'ko Aldundian Bilbao'n egindako batzarrean erabagi au artu eban: Ogeita bost urteko parkamena emotea Gerrikaitz'eri Bizkai'ko gastu orokorretako diru bialtzetik. Bagilla'ren 29'an artu zan erabagi ori eta Bizkai'ko Batzar Nagusian, Gernika'n Garilla'ren 25'an egindako batzarreran, erabagi ori onartzea ziurtatu eben.

## Sorgiñak

Gerrikaitz'eko Andra Mari parrokian, ango abadeak gogor egin eutsen bein bertako andrei sorgiñetan sinitu eta ikaratuta bizi ziralako.

Gau aretan abadeari etxera joan ei jakozan sorgiñak "Ba gaituk", "Ba gaituk" esaten. Eta diñuenez geiago ez da Gerrikaitz'eko pulpitotik sorgiñen sinisteari buruz ezer esan.

(J.M. Barandiaran. "El Mundo en la Mente Populat Vasca, T. II, 79 orrialdean)

## Osasun bedarrak

Oiz mendia aberatsa da osasun bedarretan, euren artean arnika (usin bedarra

betrato zuria,

senicula montana (zauri bedarra).

Oiz mendiaren inguruak, be aldetatik neurtuta, bederatzi legua daukaz.

(Labayru, H.G. de Bizcaya, I, 444 orrialdean).

## Andren buruko apaingarriak

Eibar, Elorrio eta Ziortza eta beste tokietan buruko itxusiak erabílten dabez andrak, barregarrizko irudiak itxuratzen dabezala, eta gaitz egiten zan antxiñako oitura zarrak kentzea.

(Labayru, H.G. de B. I, 637 orrialdean).

Ezkonduak, orain 24 urte arte, gerokoak be jakin dagien komeni da-ta gogoratzea, buruko apaingarri bat ekarten eben, nai ta batzutan tafetan urdiñeko mantoi klasikoa be erabili. Oraingoak, banakak ezik, orrelako burukorik ez dabe ekarten eta laster iñok ez dau erabiliko. Gauza bakan lez gogoratu nai dot, igaz 1783 urtean, Ziortzako Andra Mari eguneko eleizkizunean, Arbazegi'ko alkatearen andreak ekarri ebala orrelako buruko bat.

(Labayru, H.G. de B., I tomoa, 633 or. Fray Migel Alonsotegiren Crónica de Vizcaya eta besteen esanak tartekatzen)

## Santiago'rako erromesak

Santiago'rako erromesak, Ziarrotzara etorten ziranean, bertan atseden egin ondoren, Lea'ren ingurutik Arbazegi'ra sartzen zan bidetik jarraitzen eben, Arbazegi'tik Gerníka'ra Arratzu'tik edo ta Ajangiz'tik zear, Marmiz igaroaz.

(Vazquez de Parga, Lacarra eta Uria. "Las peregrinaciones a Santiago de Compostela" 507 orrialdean).

## Olagizonak

Bolibar'ko Tomas deunaren eleizak eukazan jaubetasunak parrokiko meza-liburu andi baten agertzen ziran. 1398 urteko Urtarrilla'ren 23'an liburu ori Foru-alkate ziran bostetako bateri erakutsi eutsen eta Martin Marnex eta Martin Ortuzar Gerrikaiz'eko agintariei.

Eta eurekin batean Gerrikaiz'ko Aranola, Bengolea, Munditibar eta Olabarria'ko burdiñoletako jaunei).

(Labayru, H.G. de Bizcaya II, 456 orr).

## Jauntxuen denborak

Gerrikaitz'en Urdaibai, Mezeta eta Irazabal etxeetakoak, ganboatarrak ziran.

(Labayru, II-490).

## Prebosteak

XV garren gizaldiko lenengo irutean (1416 urtean) Gerrikaitz'eko prebostea Bizkai'ko Jaun eta erregearen diru zain Rodrigo Martinez Gereka izan zan.

(Labayru, H.G. de B.-II-694).

## Eleizak egiten

1550-1551

Aldi onetan, Bizkaia'n parroki asko jaso eta barriztatzen ebiltzan.

1550 urtean Pogio, Aita Santuaren nuntzioak, Totorika, Aldaka, eta Berreño'koen eskabidez, baimendu eban Arbazegi'ko parrokia Munditibar'era aldatzea, emen egiten zalako eleiztarrentzat erdigunea, baiña Arbazegi, Uriona eta Gerrika familietakoak asarretu ziran eta nasteak sortu ziran.

Iturriza'k diño 1554 urterako eleiza au amaituta egoala... Baiña nik paperak ikusi dodaz eta argi ikusten da oraindik parrokia egin barik egoala, 1558 urtean erabagi bat artu zalako Juan Arteaga patroiari eskatzen eleiz barria bere kontura amaitu egiala iru urte baiño len, Munditibar Barrena'ko Pedro Olajaunaren soloan, Munditibar burdiñolaren alboan; Munditibar Barrena baserriaren erdia salduta eukala Pedro Munditibar Barrena "Olajauna" deiturakoak Arteaga familiko Martin'eri, patroitzako oiñordeko zanari,

Durango'ko Tabira'n, eun dukatetan, 1565 urteko Apirilla'ren 30'n, eta 1574'ko Maiatzaren 2'ean, Martin'ek baserriaren erdi-zatia Franzisko Munditibar eta Martin Mendiola'ri saldu eutsela diru bardiñean, beretzako itxita Olostea'ko soloa, antxe egiten iñarduelako 1574 urtean, Bixente deuna izeneko parrokia.

Labayru'k nota baten geitzen dau: Iturriza'ren 1554 urtean ziurra ba da, ulertu bearko da bein-beingo ermita bat egingo ebela lenengotan eta bertan asi parrokiko zeregiñak beteten, esandako datoen arabera parrokiaren eraikuntza oraindik egin barik egoalako".

(Labayru, H.G. de B. IV-257 orr.).

## Auzietan

1784 urtean Bixente deunaren parrokian ogibideko (benefiziadu) eleizgizon lez, Jose Maria Larrinaga egoan, bilbotarra, oraindik abadetza artu barik, diakonoa.

Bere kapellautza zala ta auzietan ebillan Kapellatuza orretarako dirua ipini eban eta bere senide zan Nikolas LLona'gaz.

("Aportación a la Historia Social y Política de Vizcaya"). Adolfo Lafarga. 336 orrialdean).

## Auzo-eskolak

Bizkai'ko Aldundiak 1925 urtean Agintariekandik auzo eskola batzuk zabaltzeko baimena eskatu ebanean, Errege Agindu baten bidez erantzun eutsen baimen ori ukatzen. Zabaldu nai ziran eskoletxeak Arbaiza (Orozko), Indusi (Dima), Berreño (Arbazegi eta Gerrikaitz) eta Ipiñaburu (Zeanuri) ziran.

Ukapen orrek ustebako atsekabea sortu eban eta alaxe agertu zan Aldundi barruan. Errege Aginduak ez eban esaten zegaitik ukatzen ziran, baiña uste izan zan Madrid'en euskereak sortzen eban errezeluagaítik izango zala. Azalpenak emon bear izan ziran eta lortu zan auzo ikastetxeentzako baimenak emotea.

(Gregorio Arrien, "Educación y Escuelas de Barriada de Bizkaia". 146).

1931'tik aurrera (errepublika denboran) 25 auzo eskola sortu ziran Bizkaia'n eta euren arten Gambe'koa 1932'en.

(Gregorio Arrien. "E y E de Barriada, 147).

1933/34 urtean Berreño'ko auzo eskolan 28 ume egozan erroldutа eta eskolara joatea, batez beste, % 22,68 zan.

Urte berean Gambe'ko auzo eskolan 45 ume egozan erroldutа eta eskolara joatea, batez beste, % 35,84 izan zan.

(Gregorio Arrien. "E y E de Barriada, 238-239 orr.).

## Karlos VII'garrena errege

Bizkai'ko Batzar Nagusiak, Gernika'n batuta, 1875 urteko Bagilla'ren 30 egunean Karlos VII'ri errege ezagupena bialdu eutsen,

Batzar aretara Arbazegi'tik Pedro Jose Urionabarrenetxea joan zan, eta Gerrikaitz'etik Bitor Belastegi.

## Etxeen jaubetasuna eta errenteruak

1704 urtean etxeen gorabera, jaube eta errenteruén artean, era onetan zeaztuten zan:

| | Jaubeak | Errenteruak | Danetara Etxeak |
|---|---|---|---|
| Arbazegi | 37 | 13 | 50 |
| Gerrikaitz | 30 | 11 | 41 |

Zenbaki orreik ikusita, euneko batez bestekoak era onetan geratzen ziran:

Arbazegi. Jaubeak % 74. Errenteruak % 26.

Gerrikaitz. Jaubeak % 73,17. Errenteruak % 26,83.

Ikusten danez erri bietan bardintasuna.

## Etxeetako bizilagunak 1704 eta 1797 urteetan

Etxe eta bizi-lagunen artean aldakuntza oneik igarten dira denboraldi onetan.

Arbazegi - 1704 urtean: 50 etxe, 203 bizilagun, Etxe bakoitzeko 4,06 bizilagun.

1797 urtean: 86 etxe, 609 bizilagun, etxe bakoitzeko 7,08.

Gerrikaitz- 1704 urtean: 41 etxe, 173 bizilagun, etxe bakoitzeko 4,21 bizilagun.

1797 urtean: 63 etxe, 237 bizilagun, etxe bakoitzeko 3,76 lagun.

(Emilio Fernandez Pinedo. "Crecimíento Económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100-1850) 209-256 orrialdetan).

## Errien gorakada bizilagunetan, 1704-1787 artean

Bizkaian gorakada gitxi igarri zan tokiak sarkaldeko lurraldeak izan ziran, Enkarterriak: Ala Karrantza, Turtziotz, Soporta, Zalla eta Galdames. Ordez bizilagunak asko geitu ziran (euneko eun baiño geiago) portuetan -Gaminitz (Plentzi), Bermeo, Mundaka eta

Ondarroa- bai eta baserrí errietan be, -Morga, Foru, Lumo eta ArbazegL.

E. Fernandez Pinedo. "C.E. y T.S. del P.V., 98 orrialdean).



**TXORIÑE**



**ONDAMENDI**



**HERRIKO TABERNA**



TXOKO BAT OIZ'EN



SANTOSENA

# 1795 urtean
# ARBAZEGITARREN ONDASUNAK

Ikusten danez arbazegitarrak oiturazko euken abereak (ganaduak) erdiz banan eukitea errenteruen edo besteen etxeetan.

Jakingarri da orretan 1795 urtean erriko alkate zanak, zinpean (juramentua bitarte) artutako agerpena.

Onela diño:

**Abereak erdiz banan aztekotan zabalduta daukezan Arbazegi eleizateko pertsonen zerrenda, aurrez zin egin eta autortu ebenaren eran bertako alkateak artuta, 1795'ko Martiaren 22'an.**

**Juan Antonio Unzueta.** Autortu eban, etxe ganadutza berezian, Goxeaskoetxea etxean, 106 dukat sartuta eukazala, baiña egun aretan eukezan abereak ez ebela ainbeste balio.

Autortu eban baita, nai ta errementari bi euki, burdiñarik ez ebala landu igarotako 1794'ko Martian alokatuta eukazan burdiñola bietan; origaitik ez eukala irabazirik, bai, ordez, atzerapen eta galbide asko.

Baita autortu eban alokatuta eukazala eleizateko amarrenak, baiña igaz egon zan gari-urte txar ondoren galbide asko euki ebala; eleizako abadeei 26 1/2 anega gari emon bearrean egoala; eta ez ekiala artotan irabazirik eukiko eban, oraindik garandu barik eta saltzeko eukazalako.

**Franzisko Zuzaeta.** Ebaketari (zirujanu) maisua. Autortu eban ez daukala erritik ezelako alogerik, ez eta ondasunik be, eta bere zeregiñean irabazten dauan apurraz estu ibilten zala familia alokatzeko, erritar asko bear-izan larrian dagozalako eta ez eutselako ezer emoten.

**Juan Ramon Iturriza.** (Onen autorpena be ementxe dator, baiña berari dagokion atalean sartu dogu eta irakurleak an billatuko dau bere autorpena osoa).

**Franzisco Gerrikagoitia.** Arrieta'ko bizilagun dan Martin Elorriagarena dan Zubialdea etxeko errenteruak autortu eban sei ganadu buru daukazala, 80 dukatetan baliatuak, Ramona Elorriaga'gaz erdiz banan, eta oraindik ez dauala ezelako irabazirik banatu.

**Antonia Arrozpide.** Martin Elorriaga'ren jaubetasuneko dan Olabarriaga etxeko errenterua. Autortzen dau bost abere buru nausi

daukazala 105 dukatetan baliotuak, eta Martin'eri ez dautsala ezelako irabazirik emon,

**Asentzio Mallukiza.** Berreñogoikoa'ko errenterua. Diño Jose Astorkia'ren bost abere buru daukazala, 65 dukatetan baliotuta, baiña gaur aianbesterik ez dabela balio.

**Pedro Urionabarrenetxea.** Bere abizeneko (apelliduko) etxeko jaube. Diño Arbazegi Nagusian 150 dukat ipinita daukazala etxe-jaubetasun erabidean abere batzuk, eta bere errenterua dan Txomin Sangroniz'ek bederatzi dukat emoten dautsazala urtean irabazi lez.

**Domingo Laspiur.** Gerrikabekoa'ko errenteri lez diño aurten amabi dukaten irabazia daukala etxean daukan Kristobal Gerrikabeitia'ren jaubetasuneko abereekaz.

**Bartolome Aransolo.** Jose Gaztañeta'ren bere abizeneko deitura daukan etxeko errenteruak diño, esandako Jose'ri bost dukat emonda daukazala bere etxean daukazan abereen irabazi lez.

**Juan Jaio-goikoa'koak,** bere abizeneko etxe jaube danak, diño erdiz banako ganadua daukala etxean, baiña ez dauala ezelako irabazirik lortu.

**Jose Jaio.** Maria Antonia Gerrikabeitia'ren jaubetasuneko Lezeta etxean bizi danak autortzen dau zazpi dukat emoten dautsazala urtean erdiz banan daukazan abereekaitik.

**Lorenzo Zarrabeitia.** Aldaolaetxebarri'ren jaube dan Jose Astorkia'ren errenteru lez diño, bost abere buru daukazala erdiz banakoan, eta ez dakiala ziur zer emon leikioen.

**Maria Irusta, alargunak.** Aldaola-azpiku'ko jaubea da. Diño zazpi abere buru daukazala bere errenteru dan Juan Jaio'enean, baiña ez dauala ezelako irabazirik artu.

**Juan Gerrikagoitia.** Berreño Agirre etxeko jaubeak autortzen dau, bei bi euren ume ta guzti daukazala bere errenteru dan Domingo Jaio'nean, irurogei dukatetan baliotuta, eta gaur ez dabela orrenbeste balio.

**Maria Antonia Urionabarrenetxea.** Alarguna da, Kristobal Gerrikabeitia'ren errenterua. Sei abelarri daukazala autortzen dau, iru kumeekaz, eta irabazi lez zazpi dukat eta erdi emon dautsazala.

**Agustin Gorrotxategi.** Markiñako Mertzedariena dan Totorika Jauregi'ko errenteru lez diño 89 dukat daukazala 8 abere burutan, erdiz banan, eta ez dakiala ze irabazi emon leikien.

**Bizente Mallea.** Au be Totorika Jauregiko errenterua. Diño zazpi abere buru daukazala Markiñako Mentzedeko monjaekaz batean, 146 dukatetan baliotuak, eta buru batzuk il ziralako ez egoala irabazirik.

# XX GARREN GIZALDIKO ALKATEAK

Gizaldi onetan Arbatzegi-Gerrikaitz'en alkatetza ogei ta sei lagunen kontura egon izan da. Ogeitalau izan dira gizonezkoak eta bakarra emakumea. Gizonezkoetako bat birritan izan zan alkate.

Euretatik bost ez ziran eldu urte bete egitera. Denborarik gitxien alkatetzan egiña Isidoro Jaio Bideganeta izan zan. Berrogeita bost egun. Beste batek, Domingo Onaindia Urquidi'k iru illabete bost egun gitxiago egin zitun, eta bat egon zan eun egun bete zituna, Iñazío Zabala Martiartu.

Amar urtetik gora agintaritza euki ebenen artean bi dagoz. Batek, Iñazio Arteatx Araguena'k amaika urte eta ille baten euki eban ardura ori eta beste batek, oraiñarte denborarik geien egin ebanak, Bonifazio Gerrikabeitia Longarte'k, amaika urte eta bederatzi illabete.

Au da gizaldi onetako alkateen zerrenda:

1901.- Jose Atxaerandio Lejona.
1906 - Eusebio Idiazabal Madariaga.
TVII-1909-Jose Manuel IntxaurragaTotorikaguena.
7-1-1912.- Luis Bilbao Bilbao.
1-1-1914.-Juan José Mendiolea Urkiola.
1-1-1916.— Luis Isunza Gerrikaetxebarria.
1-1-1918 - Karlos Urionabarrenetxea Irazabal.
IV-1922 - Polikarpo Zabalbeaskoa Aranguena.
XI-1922.- Jose Atxaerandio Gonzalez.
31 -XII-1929.- Isidoro Jaio Bideganeta.
15-11-1930.— Karlos Urionabarrenetxea Irazabal.
16-IV-1931.- Pedro Intxausti Aboitiz.
10-V-1933- Bonifazio Uriarte Bilbao.
23-VIII-1936 - IñazioZabala Martiartu.
4-XII-1936.- Maximo Aranaz.
4-V-1937.- Domingo Onaindia Urkidi.
1-VIII-1937 - Bonifazio Gerrikabeitia Longarte.
7-V-1949 - Franzisko Zenigaonaindia Martitegi.
5-XII-1958- Iñazio Arteatx Aranguena.
7-1-1970 - Jose Alzaa Belaustegui.

20-V-1983 - Yon Zenigaonaindía Azpíazu.
31 -VIII-1984 - Luzia Alzaa Lizundia.
30-VI-1987.-Tomas Uberuaga Urríolabeitía.
15-VI-1991.- Julian Muniozguren Zenigaonaíndia.



**UDALETXEA**



**JULIAN MUNIOZGUREN 1992 URTEAN, ALKATE**

# UDALEKO FITXAK AZAL AZALETIK

Motxaileak

1883 urtean, kezka andia sortu eben errian. Ijito, motxaile asko ebillala ta erria estu. Origaitik udal batzarrak erabagi eban kanpora bialtzen alegintzea, lapurreten bildurra kentzeko.

(1883-XI-16)

Eskaleak

Eskalerik ezin atetatik kendu. Danetarikuak. Jaungoikoaren izenean eskatzen ebenak eta txakurtuta eskatzen ekienak.

Udal batzarrak errirako sarreran zaintzaleak ipintea erabagi. Orretarako kamiñeru pioi bi eta udaleko aguazilla izentatu ziran.

(1889-VIII-13)

Izurritearen bildur

Somorrostro aldean izurritea (kolera) egoala ta jendea bildurtzen asia zan. Batez be bertako semeak an lanean ebiltzalako eta tartean etxera etorten ekielako.

Zaindariak ipini ziran auzoetan, sortera atarata, orrelakorik etorran kontua artzeko.

(1885-XI-1)

Botikak

Erriko beartsuentzako botikak burukomiña sortzen eben. 1898 urtean ba egozan errian amabi famili txirotzat, beartsutzat izentauta. Eta eurak bear eikezan botikak emoteko tratu bat egin zan Felix Portela Gernikako botikarioagaz, famili bakoitzeko illean 22 peseta ordainduta.

(1898-IX-18)

Illabete baiño len, gernikarrak tratu ori bastertu eban eta oraingotan Markiña'ko Juan Korta'gaz egin zan tratua. Baiña amabi famili ordez, zortzi familiri emotekotan, illeko 20 peseta ordainduta.

(1898-XX-2)

Irak

Beti euki izan dabe erri basoetako irak udal gizonen ardura. Oitura zan emen urtero noiz ebagiten asi eikezan eguna izentatzea. Iraílleko egun bat. Ori jakíñarren batzuk aurrez ibilten zíran zeregin orretan eta erriak zigorrak erabagiten zitun.

Urte askotan billatzen dira gai orretazko erabagiak.

Kanposantu barria

Andres Iturriza parrokoak eta Bonifazio Lauziríka osagilleak izenpetuta, kanposantu barri baten eskabidea agertu eta eztabaidatu zan.

(1882-VI-20'n)

Erria lau alderditan banatzea

Bear izan askotarako, erria auzoka barik beste era baten banatzea komenti zala, batez be erraztasuna billatu nairik, etaeztabaidatu ondoren, lau zatitan banatzea erabagi zan: Goiko Galtzara, Beko Galtzara, Uriona eta Berreño.

(1882-VII-26)

Gerrateko zorrak eta lorrak

Itxuraz lengo gizaldiko gerratetan sarri egozan eskeak. Batzutan soldaduentzako erraziñoiak emoteko, bestetan oiñetako eta abar. Baserri asko beartu zituen abere batzuk eta urdaiak emotera.

(1874-1876)

Beste askotan tropaen bateko nausiak kanpoan erositako jantzien txartelak ordaintzera beartuten eben.

Iñoiz eleiz-atea (Arbazegi) eta uria (Gerrikaitz) asarretu egin ziran, Arbazegi'k bien izenean ordaindutako edo emondako zerbait besteak ordaindu nai ezik eukalako. Orrelako auzi bat erabili eben (1880 eta 1881 'ko batzarretan).

Era orretako tengadak urte batzutan ezagutu ziran. Eta gero, erriko aurrekontua zorretan eta erri-banaketa egin bear. Ala erabagi zan, besteen artean, 1884-IX-3'ko udal batzarrean, 48.000 errial ziran oraingotan bear ziranak, karlistadako tropei emondako errazi-ñoakaitik.



# JUAN RAMON ITURRIZA

Arbatzegi eta Gerrikaitz'eri ondo jagoko Juan Ramon Iturriza kondaira (istori) idazle ospetsua bertako semetzat ez ba da be bai bizilagun argitzat artzea.

Ez zan munitibartarra izan.

Jakiña da Berriz'ko Olakuetan jaioa zala 1741'ko Apirilla'ren 29'an.

Amalau urte ordurako eskribadu baten etxean asi zan lanean, idaz-mutil, idaz-morroi lez, Aulesti'n. Baiña urte berean Urduña'ra aldatu zan, ango Aduanetako artekari zan Ximenez Breton'en etxera.

Lau urte egin zitun an. Bear ba da Mexiko'n eukan osaba baten babesa billatuko ebala pentsatuta ara joan zan 1760 urtean.

Gaur baiño itxas ibillera eta osterak neketsuako ziran aldi aretan eta irurogei ta amar egun (70) bear izan zitun Cadiz'tik ara eltzen.

Leorreratu eta ez zan zuzen osabarengana joan. Zazpi urte egin zitun beste lanetan. Osabak okindegi bat eukan. Alako baten ara aldatu zan, baiña osabea urte bira íl zan eta orra Iturriza bizitza aldatu bearrean.

Fede andiko gizona zan bera. Mexiko'n egoala "Lucero celestial" deiturako eleiz liburua idatzi eban eta osaba il eta Euskalerrira etorri zanean fraile sartu nai izan eban Burtzeña'n merzedeko Ordenako fraileak euken konbentuan. Baiña ez eben artu. Ez eta geroago alegiñetan ibili zan Madrid'eko konbentu baten be.

1777 urtean asi zan Kondaira lanak aztertu eta arakatzen eta benetan zaletu zan gai onetan.

Orretarako ainbat liburutegi, artxibu, udalerrietako paper eta abar arakatu, batu, jakingarriak gorde eta amabi liburuxkatan idatzi eban bere "Antigúedades de Vizcaya" izeneko lana.

Gaur liburuxka orreitako seiren barri jakiña da, baiña besteenik ez da ezagutzen.

Beretzat toki egokia, itxuraz, Arbazegi'n aurkitu eban.

Berak idatzen ebana, orduko oituretan, eskuz kopiatzen eban eta kopia orreik batzutan saldu, bestetan doan emon, or ibili zan gizona lanean.

Batzutan berberak kopiatzen ba eban be, ba eukan iñoiz zeregin ori egiten laguntzen eutsanen bat.

Berak Munditibar saltzeko ez eukan, eta ixillean lagateko be ez. Lan bakoitzari noiz asi eta noiz amaitzen eban zeatz jartzen ekian

# HISTORIA GENERAL

## DE VIZCAYA.

Comprovada con autoridades, y copias de escrituras y privilegios fee hacientes.

*En la qual se trata de su estension, etimologia y confines: origen y curso delos rios, calidad del terreno y frutos que produce: poblacion y posesion perpetua por sus naturales, conservando su primitiba lengua, fueros, franquezas, y libertades. Origen y numero de Merindades, y su govierno antiguo: Catalogo delos Señores que tubo: Serie de Corregidores: noticia de barones ilustres, escritores publicos, batallas, incendios, e inundaciones de agua: numero de Ante Yglesias, Aldeas y Parroquias, reliquias de Santos que enellas se Veneran, Patronatos, Beneficios, personas de comunion, fogueras, Casas, ferrerias, molinos, hermitas, Villas, y Combentos consus fundac.^s*

FORMADA,

*Por Juan Ramon de Yturiza y Zabala*

EN MUNDITIBAR, AÑO DE 1793.

Facsimil de la Portada del manuscrito

liburu bakoitzean eta an agertzen da beti Munditibar erriaren izena bertako biztanle lez.

## Zelan bízi zan?

Bere autorpena irakurrikio dogu. 1795 urtekoa da. Arbazegi'ko alkate zanak urte aretan batu eta egindako zerrendan agertzen da.

Au diño:

"Juan Ramon Iturriza'k autortzen dau 174 dukat daukazala aberetan ipinita. "En ganado de domo principal" esaten da.

Erdiz-banan eukan, Barrutieta etxeko errenteru zan Jose Urriolabeitia'gaz erdi banan eta 1794'ko Urtarrillaren 16'an dirutza ori ipini ebanetik ez dauala ezer artu.

Autortzen dau baita be Naziñoko San Carlos Banketxean ogei ta amabi milla errial ipiñita eukazala amasei akziñotan, euneko lau ta erdian (% 4,5) eta Dagonil eta Iraílla bitartean irabazietako 1397 errial jaso zitula.

Autortzen dau baita be iru zentzu idatzietan 560 dukat ipinita eukazala euneko iruan (% 3) eta urtean 184 errial eta 27 marau emoten eutsezala, eta lengoak eta oraingoak batuta danetara 1581 errial eta 27 marau zirala eta orregaz osta osta eukala biziteko, bere irabazi eta mozkin guztiak egun bakoitzeko lau errial eta amaika marau joten eutselako.

Ikusten danez ez dau agertzen bere lanen irabazirik, eta bere Istoriako 28 kopia gitxienez zabaldu zitula jakiñarren, ziurretik ez eban euretatik onura andirik atarako.

## Iturriza'ren eriotz agiria.

Gerrikaitz'en bizi zala iñoiz irakurrita, ango Andra Mari parrokian bere eriotza agertuko zalakoan, an uts eta san Bixentikoan dago agiria eta eleiz berbertan illobiratuta lez gaiñera.

Ara, euskeratuta, agiriak diñona:

"Milla zortzireun eta amabigarren urteko Irailla'ren amarrean, gau erditik laster II zan Juan Ramon Iturriza jauna, irurogei eta amaika urte beteta, ezkongaia, jaiotzez Berriztarra eta parroki onetako eleiztarra, bere azken gaixotasunean Penitentzi, Jaunartze eta Azken Igortzako sakramentuak artuta, eta Fisikoaren (medikuaren) aginduz egun berean lurra emon eutsen parroki onetan, españar Troparen aginduz, onek galeraso ebalako kanpo santuan lur-emoteak egitea, Españar Gobernuak beste erabagien bat artu arte; bere azken naia

# EPITOME HISTORIAL

## Y DESCRIPCION

delas Nobles Encartaciones del Señorio de Vizcaya en general; y en particular desus 49 Feligresias.

*Formado por Juan Ramon de Yturriza, y Zavala, natural dela N. Anteyglesia de Bérriz, y residente en*

Munditibar. Año de 1793.

gertu eukan, itxita, eta alaxe dalako izenpetzen ciot parroki onetako abade eta ogibideko lez.

**Manuel Gerrikabeitia.**

Ain zuzen urteko zortzigarren eriotza da parroki onetako eleiztarren artean eta beste zazpirei kanposantuan emon eutsen lurra eta Iturrizagaz asten da ordena barria betetea. Bere atzetik urte azkenerarte beste bost il ziran eta oneik be parrokian illobiratu zituen.

Andra Mari parrokian be bardintsu gertatu zan. Urte asieratik Urrilla artean lau il ziran eta laurak kanposantuan obiratu, eta Urrilla'n asi eta azkenerarte bost il ziran eta danak eleiza barruan obiratu zituen. Emengo liburuak ez dabe agertzen zegaitik eta nok aginduta asi ziran illak eleiz barruan obiratzen.

*JLAVS DEO.*


Deseando sea a mayor alabanza, honra y gloria dela adorable, y Sacro-santa TRINIDAD, y dela Sagrada Reyna MARIA inmaculada, concevida sin pecado original, acabe de copiar este Volumen dela Historia General de Vizcaya que contiene 822 paginas, y es el Vigesimo quinto, en Mundibar dela N. Ante yglesia de Arbacegui en 30 de Julio de 1795. a los 54 años y tres meses de mi edad, haviendo empezado en 18 de Marzo de 1793. governando la nabe de San Pedro nuestro mui santo Padre PIO. VI. y reinando en España el Catolico Monarca Sn Carlos quarto; y por la verdad firmé.

Juan Ramon de Yturriza

# AITA BATIZ

Bidagiñaren (kamiñeruaren) seme izanik, bera ere ipur-dantzari biurtu zitzaigun umetatik, ainbat bidar Atlantik itxasoa zori-billa zear-katuaz.

Olaxe agertzen dau bere bizia kritikalari batek.

Batiz anaiak karmeldar fraile izan dira.

Bat, Bingen Nikola (Bixente) Gerríkaitz'en jaioa,

Bestea Ordenako General izatera eldu zana, Markiña'n jaio zan.

Bingen au, 1907-XII-23'ean jaio zan.

Markiña, Gazteiz eta Begoña'n karmeldar lenengo urteak egin ondoren, Kolonbia'ko Leiva'n emon eban lenengo meza. Eta urte batzuk Kolonbia eta Panama'n misiolari.

1936'ko gure gerratea baiño lentxuago ona etorrita egoala, gerra-asierak bertan arrapatu eban, eta ondorenak be bai. Gudarien kapillau ibili ondoren, gailtzapean be gogarte ugari egiteko aukera euki eban, Karmelo, Nanklares, Dueñas eta Karmona'n, bere lagu-nak diñoenez, beti adeitsu eta baíkor.

Andik urten eta barriro Ameriketako garra. Barriro misiolari. Eta Kolombia'ko gotzain baten idazkari be bai.

Baiña erbestea ta sorterria... beti bere barruko burruka.

Emen egoanetan, misiñoetako egarriari ezin eutsita.

Misiolari ebillala, Euskal erri bedeinkatuko arimak gogoan.

Ala Kolombiatik etorri, Eibar eta Markiñan urte batzuk igaro ta barriro Ameriketara, oraingotan Panama'ra.

Baiña urteak ez dabe parkatzen. Eta azken urtetan Donostiko konbentuan bizi da, adiñaren eta gorputzaren lotueraz, gor, baiña beti bere luma eskuetan, batzutan olerkiak, bestetan ipuiñak, iñoiz sariketetarako lanak aztertzen, edo ta euskerarako itzulpenak egi-ten.

Ameriketan egoala, an agertzen ziran euskal aldizkarietan beti ikusten zan bere lanen bat. Eta emen, nai ta konbentuko ixiltasuna maite, Markiñaldera datorrenetan gaitz itxiko dau bere jaioterrira osterarik egin barik.

"Xalokin" deitura eta "Barbin" ezagunak dira euskal idazleen artean.

"Argia", "Eguna", "Euzko Gogua", "Olerti", "Karmel" eta abarre-tan asko idatzia da. Berea da baita Aita Jose Domingo'k Simon Bolibarren aintzaz egindako imnoaren euskal letra.

# JOSE LUIS MUÑOYERRO

Bilbao'n jaio 1925 urtean. Alaz eta Munitibar maite daben gizona da. Emen loratu zitun maitasunak eta esker onez "Munítibar" izena zabaldu izan dau bere lanak deitura orregaz erabilí eta ízenpetzean.

Kazetari alai eta bizia. Erri oituren maitalea. Bere kazetari lanak, erri joko, kirol eta abarretakoak, arrakasta andia euki izan dabe.

Bere "Lartaun, eguzki semea" eta "lllargian ere euskeraz" atsegiñez irakurritako liburuak dira, bere asmakizun bizi eta aberatsagaitik eta aukeratu izan dauzan euskeratzailleak be euskera jatorrean biurtu dautsezalako. Bereak dira baita "Pasoso sobre el Fuego", "Cuentos y leyendas del País Vasco", tomo bitan, gaur agortua.

Zar-sarituta Bilbon bizi da, Munitibar bastertu barik.




**ILLARGIAN ERE EUSKERAZ**

# PETE T. CENARRUSA

Orrela ezagutzen dabe Ipar Ameriketako Estatu Batuetan.

Guretzat Zenarriza.

74 urte aurten beteta. Ameriketan biziarren, Munitibar barru-barruan daroa.

Aita Munitibar'en jaioa zan 1.890 urtean.

Ama Gernika'n, 1.892-en.

Aita Munitibar'eko Azkarreta baserrian.

Ama Gernika'ko Dondiz baserrian.

Aita 1.907 urtean joan zar Ipar Ameriketara, 17 urte eukazala.

Ama 1.914 urtean, 22 urtedun zala.

Aita eta ama ez ziran aurrez ezagutzen. Ameriketan ezagutu ziran Shoshone errian.

Zenarruza'k 29 urte bete dauz Idaho'ko Estatuko idazkari lez, eta aurrez amazazpi urtetan egon zan ango lege biltzarrean.

Benetan maite dau arek Euskalerria eta gure alderdi onetara 1.982 urtean egin eban azken ostera bere odolekuak agurtzen, baiña Idahon eta beste edonun euskaldunak jairik dauken lekuetan, tartean agertuko da eta euskeraz jarduten, berak euskera erabilten dabelako, nai ta Ameriketan jaoia izan.

Idaho'ko Liburu urdiñean (Idaho Blue Book) eta 1992 urteko The Idaho Political Alemanac'etik onelako jakingarri batzuk batu al izan doguz:

Carey'en jaioa (Idaho'n) 1.917'ko Abenduaren 16'an, Joe eta Ramona'ren semea, Idaho'ko Unibersidadean Nekazaritza arloko ikasketak egiña eta burutua.

Batxiller'eko ikasketak Cambridge, Carey eta Glenns Ferry ikastetan egin zitun eta nekazaritza arlokoak be bertan asi.

Bigarren Munduko garran Itsas Mariñu artean ibili zan egazkiñetak gidari lez. Guda amaitzean "major" izatera eldu zan.

Estatuko ordezkari lez 1.950 urtean asi eta 1.967 Maiatzaren 1'an idazkari nagusi aukeratu arte ibili zan. Arrezkero auteskunde gustietan autatua izan da, azkenengoz 1.990 urtean.

Idazkari lez ondo beartua egonarren, bere denbora librean nekazari arrantxeru, abeltzain eta gobernu maillan nekazal arloetan sari ugarien irabazle da.

Sinismenez Eleiza katolikoaren jarraitzaillea da (Elks eta Euzkaldunak). Lau asmo nagusitan oiñarritzen hau bere elburua: Nekazaritza, Athletic talde, Errepublika eta Euskera.

Idaho'ko idazkari hau Reagan eta Bush'en Estatu Batuetako 84 erritarra da, 49 urtetan zear egazkin gidaria (ez-bearrik barik). Legebiltzarrean exekutibo arloko zerbitzu bikoitza beteteko aukeratua. Kargu onetan beste Idaho'ko idazkarien artean geien irauten dauana da, 41 urtetan zeregin orretan etenbarik diardulako.

Bere emaztea Freda Coates da eta seme bakarra dauke: Joe.

Jakingarri geiago.

Kontutan artzekoa da Pete Zenarruza'ren iraupena Idaho'ko idazkari lez. Barriro autatua izan zanarren 1.966 urtetik ona kargu bardiñean jarraitzen dau, eta berak orretan daroazan urteak paretzera ez da iñor eldu Estatu Batuetan.

Bere urtetan politika arloan lagunak gitxitu eta arerioak geitu egiten diranarren, 1.990 urteko auteskundetan aurreko urteetako kopurua gainditzea arrigarri izan da (ziurretik estadistíka arloan "rekord" tzat artzekoa).

Estatuko lurrarte eta Inspezioñoko batzargoaren partaide da (gau egun buru). Ala ta Zenarruza ez da sukula, nai ta bera errupublikanoa izan demokrata alderdiaren ideia aurrerazaleak atzera botatzakoa, erritarrentzako onura lortzeko orduan.

Pertsona lez.

Zenarruza'ren familia ardi azkuntza eta merkataritzan ibili izan da beti. Origaitik Zenarruza'k benetan gogoko dau al dauan guztietan bere Garey'ko arrantxora urreratzea. Lanbide orregaitik Zenarruza izan da Estatu maillan Zelanda Barriko ardi okelaren inportazioñoaren areriorik andiena.

Bere bigarren maitemiña euskal ondarea aldeztutea da. Euskal ardizain baten seme lez. Euskal elburua zainduten dau, eta euskal nazionalidade eta independentziaren aldeko jarrera beti aurkeztu izan dau. Politika kontserbatzailearen jarraipena beti aurkeztu izan dau. Politika kontserbatzailearen jarraipena be ezaguna dau. Une latzetan be (don Samuelson ziñegotziagaz izandako tira-bíra-etan eta abar) bere politikarako duintasuna denak goratu izan dabe.

Ordutik ona Zenarruza'k ez dau aldakuntza andirik ezagutu.

Demokrata alderdiko arerioei arpegia emoten jerraitzen dau.

Etorkizuna.

Estaduko Idazkaritzak Zenarruza'rena izaten jarraituko dauala dirudi berak orrela nai dauan bitartean. Oraingo legealdi-denbora

amaitzen danean Zenarruza'k 76 urte eukiko dauz eta politika uzte-aren ideia or dago. Besterik, Joe VVilliams auditoreak bere lanaren zama artu leike berak 84 urte bete arte. Zenarruza'ren jezarlekua utzik aurkitzen dan unean tira-birak sortzeko arriskua izango da, Isurza (une onetan idazkaritza lanetan dabillana) ardua orregaz jau-betzeko borrokan egiteko prest dagolako.

Zenarruza politiku leial eta fiña izan da. Beti be estatuko buru lanetan dabiltzen pertsonen diru-aloger eta txortak moztea izan da bere ardura sutsua, besteenekaz batean bereak be kontrolpean ipi-niaz.



AZKARRETA ZARRA



# ORDUARIAK

Munitibar'en, zenbat parroki ainbat orduari dagoz. Baiña ibilten eta dira batera?

Gauza bat da arrigarri Muntibar'en. Eguzki orduaridun orma, kantoi edo etxerik ez dala ikusten. Ez jakin iñoiz egon ziran edo ez.

Gaur gadozan orduari biak lengo gizaldian egiñak dira eta ipiniak.

Arbatzegi'koa zarrago da. 1.819 urtean ipinia. Bere egillea Juan Zugasti, Arrasatekoa. Esfera batmmekanikoa, landua eta tren bi daukaz.

Neurriak. 112 x 58 z 85 zm.

Gerrikaitz'koa 1.853 urtean ipinia da. Egillea, Manu Zugasti, Bilbao. Esfera bat, mekanikoa, tren bi eta ozkintza be ba dauka.

Neurriak 100 x 55 x 85 zm.

**ARBATZEGI** **GERRIKAITZ**

# LIBURU ONETAN AGERTZEN DIRAN ETXE ETA ARGAZKIEN ZERRENDA ALFABETA ARABERAN

| | |
|---|---|
| Abaituena | Berreño Aldaka |
| Agarre Bekua | Berreño Aldaka |
| Agorria | San Mikel |
| Agorria Errota | San Mikel |
| Ajorabide | Kaltzada |
| Ajorabide San Juanena | Kaltzada |
| Aldaieta | Berreño Aldaka |
| Aldaka Aurtenetxea | Berreño Aldaka |
| Aldaka Barrenengoa | Berreño Aldaka |
| Aldaka Goenengoa | Berreño Aldaka |
| Aldaka Zabal | Berreño Aldaka |
| Aldaolea Azpi | Berreño Aldaka |
| Aldaolea Etxebarri | Berreño Aldaka |
| Aldaolea Gane | Berreño Aldaka |
| Anduiza Goiko | |
| Altamira | Kaltzada |
| Aransolo | Munitibar Arbatzegi |
| Arbazegi | Kaltzada |
| Aretxarroaga | Kaltzada |
| Arizti | Ganbe |
| Arotzena | Gerrikaitz |
| Arrizabalaga | Totorika |
| Arrospide | Berreño Aldaka |
| Artebai | San Mikel |
| Astorki Bengoetxea | Berreño Aldaka |
| Astorki Goikoetxea | Berreño Aldaka |
| Axenda Goikoa | Munitibar Arbatzegi |
| Azkarreta Barri | Munitibar Arbatzegi |
| Azkarreta Zarra | Munitibar Arbatzegi |
| Barrutieta | San Mikel |
| Baztarretxea | Munítibar Arbatzegi |
| Beko Errota | Berreño Aldaka |

| | |
|---|---|
| Bengolea | Gerrikaitz |
| Bereziko | Ganbe |
| Berreño Agirre | Berreño Aldaka |
| (Agarre goiko) | |
| Berreño Aurtenetxea | Berreño Aldaka |
| Berreño Bengoetxea | Berreño Aldaka |
| Berreño Etxebarria | Berreño Aldaka |
| Berreño Goitia | Berreño Aldaka |
| Berreño Intxaurraga | Berreño Aldaka |
| Berreño Uriarte | Berreño Aldaka |
| Berreño Urrunategi | Berreño Aldaka |
| Berreño Zelaia | Berreño Aldaka |
| Bolukua | Berreño Aldaka |
| Bostekona | Gerrikaitz |
| Burpidea | Totorika |
| Dendarikua | Gerrikaitz |
| Egurrena | San Mikel |
| Erregaizti | Totorika |
| Elorza Errota | Gerrikaitz |
| Errementari Barri | M. Arbatzegi |
| Errementarikoa | M. Arbatzegi |
| Ganbe | Ganbe |
| Ganbeko Eskola | Ganbe |
| Gardena | Totorika |
| Garro | San Mikel |
| Garro Zabala | San Mikel |
| Gaztañeta | Gerrika-Uriona |
| Gerrika Beitia | Gerrika-Uriona |
| Gerrika Etxebarri | Gerrika Uriona |
| Gerrika Goikua | Gerrika-Uriona |
| Goiko Etxebarri | Gerrika-Uriona |
| Goiko Etxebarri | Berreño Aldaka |
| Goikolea | San Mikel |
| Goikolea Errota | San Mikel |
| Gontze | Berreño Aldaka |
| Gorostieta Mendibil | Gerrika |
| Gosia | Ganbe |
| Iparrola | Okiz |
| Iturrondo | Berreño Aldaka |
| Jaio Ganekoa | Gerrika |
| Jaio barri | |

| | |
|---|---|
| Kaltzada Barrena | Gerrikaitz |
| Kanpaingoa | Berreño Aldaka |
| Kantera zarra | M. Arbatzegi |
| Kubo Errota | Berreño Aldaka |
| Larrinaga Barri | Totorika |
| Larrinaga Zarra | Totorika |
| Larrondo | Kaltzada |
| Loitia | Berreño Aldaka |
| Madarieta | Berreño Aldaka |
| Malaxena | Berreño Aldaka |
| Matxin Etxebarri | Berreño Aldaka |
| Matxinena | Berreño Aldaka |
| Mendiola Azpikoa | San Mikel |
| Mendiola Goikoa | San Mikel |
| Mikola | Okiz |
| Mintegi | M. Arbatzegi |
| Montezuri Antoniona | Totorika |
| Montezuri Eugeniona | Totorika |
| Motaburu | San Mikel |
| Murtzixe | Totorika |
| Okiz | Okiz |
| Okiz Ibarra | Okiz |
| Olabarria | Berreño Aldaka |
| Olaetxea | San Mikel |
| Oloste | Munitibar Arbatzegi |
| Orueta | Berreño Aldaka |
| Ortuzar San Juanena | Gerrikaitz |
| Otaolea | San Mikel |
| Otsatea (Otxandegi) | Berreño Aldaka |
| Pagolegorraga | Gerrika |
| Sagarraga | Kaltzada |
| Sallobide | Berreño Aldaka |
| Taberna Zarra | Gerrikaitz |
| Talluri | Berreño Aldaka |
| Talluri Kurutzeko | Berreño Aldaka |
| Torre Etxebarri | Berreño Aldaka |
| Totorika Etxetxu | Totorika |
| Totorika Goiena | Totorika |
| Totorika Goxeaskoetxea | Totorika |
| Totoríka Jauregi | Totorika |
| Totorika Jolapixine | Totorika |

| | |
|---|---|
| Trokazulo | Okiz |
| Txarra Garate | |
| Urgozua | Totorika |
| Uribai Errota | Berreño Aldaka |
| Uriona Barrenetxea | Uriona |
| Uriona Etxebarri | Uriona |
| Uriona Goena | Uriona |
| Uriona Ormaetxea | Uriona |
| Urkimendi | Totorika |
| Urretxondo | Berreño Aldaka |
| Urrutieta | Berreño Aldaka |
| Urteaga | Kaltzada |
| Urzilla | Berreño Aldaka |
| Zabala Etxondoa | Gerrikaitz |
| Zabale | Ganbe |
| Zaraingo | Totorika |
| Zarrabe | Munitibar Arbatzeg |
| Zuberoeta | Ganbe |
| Zubialdea | M. Arbazegi |
| Zubibarriaga | Berreño Aldaka |
| Zubikoa | Ganbe |
| Zuzaeta | Berreño Aldaka |



**ETXEBARRIA (GERRIKAITZ)**

# ETXERIK ETXE

## ABAITUENA GOIKO Berreño Aldaka

1992- Lengo zarretan ez da agertzen, bear ba da Mendatakoa izango zalako.

Etxe bizitza bi daukaz.

Bateko jaubea Ramon Basterretxea Belar da.

6 hektarea.

Bestean,

Manuel Basterretxea eta Zezilia Mandaluniz. senar emazteak bizi dira. Eurak dira jaubeak be.

Eta eurekin batera

Luis Mari Basterretxea (semea) eta bere senar Jone Rementeria eta euron seme Adei, bai eta Jon Ander Uriarte Basterretxea lobea.

7 hektarea.

## AGARRE BEKUA (AGIRRE BEKO) Berreño Aldaka

1992.- Utsikdago.

Jaubetasun agiriak Rafael Zabalbeaskoa'ren izenean dagoz.

8 hektarea.



ABAITUENA



AGARREBEKO

## AGORRIA San Mikel

1704.- Antonio Agorria zan jaube eta bertan bizi.
1745- Pedro Agorria.
1795- Antonio Larrinaga zan jaube.
1825- Jose Ant. Zabalbeaskoa.
1992- Utsikdago.
Jaubetasuna Gregorio Olasolo eta Josefina Urionabarrenetxea senar emazteen izenean dago.
10 hektarea.

## AGORRIA ERROTA San Mikel

1745- Pedro Agorria zan jaube eta berak erabilten eban.
1799- Antonio Larrinaga. Agorria baserri eta errota artean 880 errial emoten ebezala urtean autortu eban.
1810- Antonio Larrinaga'kjarraitzen eban jaube lez.
1992- Gregorio Mallea Zabala'ren izenean dago jaubetasuna.



AGORRIA



AGORRIA ERROTA

AJORABIDE Kaltzada

1992- Juan Zuazo eta Juana Urionaguena senar-emazteak bizi dira bertan, jaubeak dira. Eurekin batean Jon eta Joseba semeak.

AJORABIDE SAN JUANENA (ABAITUENA) Kaltzada

1745- Mari Ajorabide zan jaubea.

1796- Juan Bta. Abaitua.

1992- Pedro Malaxetxebarria (alarguna) eta bere loba Maria Luz Malaxetxebarria Urionaguena bizi dira bertan.
Errenteruak dira.
Etxeko jaubetasuna Katalina, Daniela, Fidela eta Zipriano Goiria Irazabal neba-arreben izenean dago.
14 hektarea.



AJORABIDE



ABAITXONE

ALDAIETA Berreño Aldaka

| | |
|---|---|
| 1372- | Etxe au Munditibar'en irazpenerako (fundaziñorako) emon ziran zortziretatik bat da. |
| 1704- | Gaspar Beingolea agertzen da jaube lez eta Andres Agorria eukan errenterutzat. |
| 1796- | Martin Maguna, Durangokoa, zan jaube. |
| 1992- | Erdi jausita dago.<br>Jaubetasuna Obieta-Arestiarrak (neba-arrebak) dauke. |

ALDAKA AURTENETXEA Berreño Aldaka

| | |
|---|---|
| 1704- | Min Aldaka-Aurtenetxea bizi zan. Jaubeazan. |
| 1745,- | Santi Aldaka zan jaube. |
| 1795- | Pedro Orueta agertzen da jaube lez. |
| 1799.- | Pedro Orueta, bardin 1810 eta 1825 urtetan be. |
| 1863- | Bizitza biko lez agertzen da. |
| 1992- | Etxe bizitza bi daukaz. Baten Karmen Gerrikabeitia Jaio dajaube eta bere alaba Elena Ituarte'gaz bizi da.<br>15 hektarea.<br>Bestean, Domingo Uriarte Zarragoikoetxea da jaubea.<br>Utsik dago.<br>14 hektarea. |



**ALDAIETA**



**ALDAKA AURTENETXE**

ALDAKA BARRENENGOA
(BISKO BARRENA. ALDAKA BEASKOA) Berreño Aldaka

1704- Ana Irustazan jaube eta bertan bizi.
1796- Franzisko Larrea zan jaubea. Bertan bizi zan, bai errenterua be.
1992- Benito Altamira Belaustegi, bakarrik bizi da.
Jaubea: Jesus M.ª Altamira Andrinua.
16 hektarea.

ALDAKA GOENENGOA (ALDAKA GOENA) Berreño Aldaka

1704- Bartolome Larreazan jaube eta bertan bizi zan.
1992- Etxe bizitza bi daukaz:
Baten Jose Mari Basterretxea eta M. Begoña Belaustegi senar emazteen izenean dago jaubetasuna eta eurekin bizi dira Kepa eta Nerea seme alabak.
10 hektarea.
Bestean Juan Jose Urriolabeitia eta Antonia diran jaubeak eta aste buruetan etorten dira.
500 $m.^2$



ALDAKA GOENENGOA



ALDAKA BARRENGOA

ALDAKA ZABAL (ALDAZABAL) Berreño Aldaka

1704- Clemente Aldakazabal zan jaube eta bertan bizi zan,
1796,- Juan Larrinaga agertzen da jaubetzat.
1992,- Jazinto Basterretxea eta Piedad Irusta senar emazteak bizi dira bertan, jaubeak dira eta eurekin batean Gotzone eta Maite alabak.
9 hektarea.

ALDAOLEA AZPI (BEKO) Berreño Aldaka

Aldaolea etxea, ez da esaten **goiko** ala **beko** edo **azpi,** bata 1100 garren urtean sortu eban Santo Mandalbea'k eta bestea Aldaolea'ko Gonzalo'k 1216 urtean.
Aldaola biak Gerrikaitz uritik banatu ziran eta Arbazegi'ra aldatu 1630 urtean.
1704- Domingo Mendata zan jaube.
1745,- **Azpikoa** lez agertzen da eta Antonio Garatea bertako jaube.
1795- Maria Irusta zan jaube.
1810-1825,- Juan Jaio'ren izenean egoan.
1864- Manuel Intxaurragaezagutzen zan jaube lez.
1992- Felix Badiola eta Juana Arrate senar-emazteena da.
7,1 hektarea.



ALDAKA ZABAL



ALDAOLEA AZPI -BEKO

ALDAOLEA ETXEBARRI Berreño Aldaka

1992,- Utsikdago.
Bonifazio Alzaa eta Mari Tere Castillo senar emazteena da.
10,6 hektarea.

ALDAOLA GANE Berreño Aldaka

Aldaolea etxea, ez da esaten **goiko** ala **beko** edo **azpi,** bata 1100 garren urtean sortu eban Santo Mandalbea'k eta bestea Aldaolea'ko Gonzalo'k 1216 urtean.
Aldaola biak Gerrikaitz uritik banatu ziran eta Arbazegi'ra aldatu 1630 urtean.
1704- PedroAldaoleazan Goiko'arenjaube.
1745- Sebastian Aldaoleaeta bertan bizi zan.
1795- Jose Astorkia.
1795- Lorenzo Zarrabeitia errenteruak autortu eban jaubearen bost ganadu buru eukazala erdizbanako eta ez ekiala zer emongo eutsan.
1825.- Jose Astorkia ezagutzen zan jaube.
1864- Jose Adrian Alzaaagertzen dajaube lez.
1992- Jose Alzaa Belaustegi dajaubea.
Utsik dago, jausita.
10 hektarea.

ANDUIZA GOIKO Munitibar Arbatzegi.

1992. Bitor Mendiola Urionabarrenetxea eta luisa Kelumberri Abaitua bizi dira.
Jaubeak dira.
5 hektarea.



ANDUIZA GOIKO

ALTAMIRA San Mikel

| | |
|---|---|
| 1704,- | Gaspar Altamira zan jaube eta bertan bizi zan. |
| 1745.- | Jose Altamira. |
| 1795.- | Jose berbera. |
| 1799.- | Irabazien agerpenetan esaten da 660 errial emoten zitula urtean. |
| 1825.- | Domingo Altamira'ren jaubetasunez agertzen da. |
| 1992.- | Utsik dago.<br>Iñazio Antxia eta Miren Edurne Barrena senar emazteak dira jaubeak.<br>20,2 hektarea. |

ANTONTORRENA Kaltzada

| | |
|---|---|
| 1796.- | Juan Bta. Abaituarena lez agertzen zan. |
| 1992,- | Etxe bizitza bi daukaz:<br>Baten: Sabino Urberuaga eta Andresa Arrate, senar emazteak dira jaube eta eurekaz Jose Angel, Felipe eta Bitor semeak bizi dira.<br>10 hektarea.<br>Bestean: Franziska Urriolabeitia Arrate, alarguna, da jaube eta beragaz batean jose Angel eta Tomas Uberuaga Urriolabeitia anaiak bizi dira eta Tomas'en emaztea dan Maria Jesus Natxiondo, eureon seme Ibon eta Joseba'gaz.<br>10 hektarea. |



ALTAMIRA



ANTORRENA

ARANSOLO Munitibar-Arbatzegi

| | |
|---|---|
| 1704- | Domingo Aransolo zan jaube eta bertan bizi zan. |
| 1745- | Maria Belarroa. |
| 1795- | Bixente Belarroa, eta Elorrio'koa dalaesaten da. |
| 1799- | 945 errial emoten zitula, autortzen da, urteko irabazi lez. |
| 1825- | Jaubetasuna Franziska Gerrikabeitia'ren izenean egoan. |
| 1992- | Etxe bizitza bi daukaz.<br>Baten Antonio, Anastasio eta Jesus Astorkia Zabala dira jaubeak.<br>3,5 hektarea.<br>Bestean<br>Martin Barinagarrementeria eta Joseba Goenaga senar emazteak bizi dira euren seme Jesus'egaz. Jaubetasuna semearen izenean dago.<br>3 hektarea. |

ARBAZEGI ANDI (GOIKO) San Mikel

| | |
|---|---|
| 1704- | Nausia izenagaz agertzen zan. Gregorio Urionaga-Barrenetxea bertako jaube. |
| 1795- | Pedro Uriona B.ren izenean egoan. |
| 1799- | Onek autortu eban 2.057 errialen irabazia artzen ebala baserri biren artean. |
| 1810- | Pedro Urionazanjaube. |
| 1825- | Franzisko Uriona. |
| 1992.- | Utsikdago.<br>Jesus eta Jose Olabarria Zabalbeaskoa anaiak dira jaubeak.<br>18,5 hektarea. |



ARANSOLO



ARBATZEGI ANDI

ARETXARROAGA (AITXARRA) Kaltzada

1796- Domingo Zarraagertzen zan jaube.

1992- Iñazio Urionaguena eta Fca. Atxurra Urriolabeitia senar emazteak dira jaubeak.
Eurekaz bizi dira baita Jose Iñaki, Idoia, Xabat eta Esther seme-alabak, eta Esther'en senarra dan Jose Martin Arriaga eta euron seme Aitor.
10,5 hektarea.

AIZTI (ARIZTI) Ganbe

1992- Iñazio Belaustegi Muniozguren (alarguna) eta bere seme alaba Iñaki eta Lorea Belaustegi Goitia bizi dira.
Jaubetasuna Rufina Muniozguren Astorkia, amuma alargunaren izenean dago.
17 hektarea.



AITXARRA



ARIZTI

AROTZENA Gem'kaitz

Arotzena lengoa, desagertu zan.
AROTZENA BARRI.
Juan Luis Irazabal Ipinza dajaubea.

ARRIZABALAGA (ARRIZALALA) Totorika

| | |
|---|---|
| 1795,- | Andres Irusta, Ajangiz'koaren izenean egoan. Bere errenta, sei anega gari. |
| 1799.- | Jaube berberak agertu eban urtean 440 errialen irabazia emoten eutsala. |
| 1825.- | Oraindik Andres Irusta'ren izenean jarraitzen eban. |
| 1782.- | Andres Irusta eta Manuela Undabarrenak zentzu bat izenpetu eben 300 dukatekoa, eta beste 9 dukat urteko mozkin lez, baserri barriaren aurka, Diego Irusta eta Ana Jaio'ren mesedean, Oneik zentzu ori Ana Mari Andrinua'ri saldu eutsen eta oneri Kolajiatako Kanonigoak eroso, eleiz zerbitzu batzuen ordez. |
| 1992.- | Jose Manuel Jaio Madariaga eta Eugenia Eguren Bengoetxea senar emazteak bizi dira. Euren izenean dago jaubetasuna. Eurakin batean Salbador eta Luis M.ª semeak eta Migel Jaio Zabala aita bizi dira. |



AROTZENA



ARRIZABALAGA

ARROSPIDE Berreño Aldaka

1388- Ziarrotza'ko Kolejiataren saroe lez agertzen da.
1557- Etxe lez ezagutzen da.
1704- Dgo. Irubitazan jaubea.
1745,- Joseph Arrospide.
1799- Tomas Arrospide'k saltzera atara eban zordunei erantzun al izateko. Ziarrotza'ko Kolejiatari ordaindu bear izaten eutsan.
1825.- Bentura Zuzaeta zan jaube.
1864- PedroZabala'ren izenean egoan.
1992.- Utsikdago.
Egia-Bollar neba arrebena da jaubetasuna.
9 hektarea.

ARTEBAI San Mikel

1775- Urte onetan Jose Mugira eta Malen Goienetxeak zentzu bat izenpetu eban, etxe barria egitean, urtean 70 dukat eta beste 32 errial eta 4 marau urteko moz-kintzat izentatuaz, Ziarrotza'ko Kolejiatan urteurrena eskintzeko Jose Muniozguren'ek aginduta eukana beteteko.
1795- Franzisko Mugita agertzen zan jaube.
1810- Adrian Mugita.
1825- Juan Adrian Mugita.
1992.- Utsikdago.
Jaubetasuna Koldo Bustinza Perez'en izenean dago.
Hektarearik ez dauka.



ARROSPIDE



ARTEBAI

ASTORKI BENGOETXEA Berreño Aldaka

1864.- Domingo Lamikiz zan jaube.
1992.- Utsikdago.
Jesus Ituarte eta M. Karmen Artaetxebarria dira jaubeak.

ASTORKIGOIKOETXEA Goiko

1704- Martin Astorki'renazan eta bertan bizi zan.
1745,- Pedro Astorki agertzen da jaubetzat.
1796- Maria Astorkia.
1799- Jose Lamikiz. Autortu eban urtean 1.430 errial emoten eutsazala.
1825- Jose Lamikiz.
1992- Maria Jose Zuazo eta Maria Jesus Malaxetxebarria bizi dira bertan.
7.744 $m.^2$ daukez soloetan.



ASTORKI GOIKO



ASTORKI GOIKO

ASTORKI - MARIJENA-BEKO Berreño Aldaka

1825,- Jose Lamikiz agertzen da bertako jaube.
1865- Domingo Lamikiz.
1992- Jesus Ituarte Lamikizbasterretxea eta M.ª Karmen Artaetxebarria eta euren seme alaba Lourdes eta Jabier bizi dira bertan.
Jaubeak dira.
22 hektarea.

AXENDA GOIKOA Munitibar Arbazegi

1796- Agertzen dabere izenaetxeen artean.
1810- Axenda buru lez agertzen da. Jaubea Jose Zena-rruzabeitia.
1825- Domingo Zenarruzabeitia ezagutzen zan bertako jaube.
1992.- Desagertuta dago.

AXENDA BEKOA

1795- Ana Kareaga'ren izenean agertzen zan eta 20 dukat'en errenta emoten eban.
1992- Desagertuta dago.



**ASTORKI MARIJENA**



**ASTORKI BEKO**

AZKARRETA ZARRA Munitibar Arbazegi

Etxe au Munclitibar uri egitean agertzen cla, XIV garren gizalclian.

1704.- Domingo Azkarreta zan jaube eta bertan bizi.

1992- Narziso Lapresa Bilbao dajaubea, bizitzabaten. Utsik dago.
